

Suomiera eta
gaelera, norabide
desberdinetan
ibili diren
hizkuntza bi.

Egilea: Joseba RODRÍGUEZ ZUAZUA.

Lanaren tutorea: Andoni BARREÑA.

0. AURKIBIDEA.

0. Aurkibidea	2. or.
1. Sarrera	3. or.
2. Suomieraren eta suedieren arteko hizkuntza gatazka.	4. or.
2.1. Suomiera	4. or.
2.2. Finlandiako egoera soziolinguistikoa.	5. or.
2.3. Finlandiaren ibilbide historikoa:	
Suedia eta Errusiaren artean.	8. or.
2.3.1. Finlandia suediarren menpe.	9. or.
2.3.2. Finlandia Errusiaren menpe.	14. or.
2.3.3. Finlandia independentea	20. or
3. Gaeleraren mendeetako borroka bizirauteko.	23. or
3.1. Gaelera	23. or.
3.2. Irlandako egoera soziolinguistikoa	24. or.
3.3. Gaeleraren historia	27. or
3.3.1.- Hasieratik Erdi Aroaren amaiera arte.	27. or.
3.3.2.- XVI. mendetik 1922ra arte.	32. or.
3.3.3.- 1922tik aurrera.	46. or.
4. Bi norabide desberdinak	59. or
5. Ondorioak	70. or

6. Irudien eta mapen aurkibidea	73. or
7. Bibliografia	74. or

1. SARRERA.

Suomiera eta gaelera, norabide desberdinetan ibili diren hizkuntza bi. Hau da idazlan honen izenburua eta berak ondo azaltzen du zein den lanaren helburua: hizkuntza hauen eta bere hiztunek izan duten ibilbide historikoa aztertzea, azterketa horrek hizkuntza bien gaurko egoeraren zergatiak ulertzeko asmoz, suomieraren kasua ezin hobea, gaelerarena, ordea, hiltorian. XX. mendearen hasieran, Irlanda zein Finlandia beste estatu batzuen menpe zeuden, Erresuma Batua eta Errusia, Suedia lehenago. Kasu bietan, hizkuntzak menpekotasun egoera nabarmenean zeuden eta, modu batera edo bestera, arriskuan.

XXI. mendearen hasieran, aipatu dugunez, egoera oso desberdina da. Egoera honetara hizkuntza biak eraman dituen prozesua ez da soilik XX. mendekoa, baizik eta bere sustrai historikoak oso sakonak dira, eta hori izango da lan honen helburu nagusia, sustrai historiko horiek aztertzea, XX. mendeko ibilbide kontrajarri hori ulertzeko asmoz.

Azterketa hori egiteko, lanaren lehenengo bi ataletan, hizkuntza bakoitzaren ibilbide historikoa aztertuko dut, lehen testigantza idatzietatik hasita gaur egungo egoerara heldu arte. Azterketa hori egin ondoren, ibilbide horiek konparatuko ditut, gaur egungo egoera desberdin hori azaltzen duten puntuak azpimarratuz. Azkenean, lan osoaren ondorio nagusiak azalduko ditut.

Hasi baino lehen ohartxo bat egin nahi nuke hizkuntzak izendatzeko erabili ditudan hitzen inguruan: Irlandako jatorrizko hizkuntza izendatzeko, euskaraz, gaelera eta gaelikoa erabil daitezke, eta Finlandiakoaren kasuan suomiera eta finlandiera. Nik neuk gaelera eta suomiera aukeratu ditut; izan ere, hizkuntza horien hiztunekiko errespetua erakutsi nahi izan dut. Izen bi horiek hiztunek beren hizkuntza izendatzeko erabiltzen duten izenetik hurbilen daudenak dira. Beraz, idazlan honetan hizkuntza biak aipatzeko orduan suomiera eta gaelera izango dira agertuko diren hitzak.

2. SUOMIERAREN ETA SUEDIERAREN ARTEKO HIZKUNTZA GATAZKA.

2.1 Suomiera.

Suomiera edo finlandiera bospasei milioi pertsona inguruk ama hizkuntzatzat duten Europako iparraldeko hizkuntza da. Estoniera eta hungarierarekin batera, uraldar hizkuntzen taldeko hizkuntzarik mintzatuena. Hizkuntza familia honetako beste kideak saamia edota Ural mendikatearen beste aldean Siberiako iparraldean mintzatzen diren beste hizkuntza batzuk ditugu.

Suomiera Finlandiako biztanleriaren hizkuntza nagusia da, bertan suedierarekin batera hizkuntza ofiziala da, baina hemendik kanpo Suedian, Karelian, bi lurralde hauetan gutxiengo baten ofizialtasuna aitortu zaio, eta Norvegian hitz egiten da. Jatorrizko lurralde honetatik kanpo, Estonian askok bigarren hizkuntzat hartu dute eta XIX. mendetik aurrera gertatutako migrazio prozesuen ondorioz eta ondoren, AEB eta Kanadan hizkuntza hau erabiltzen duenik badago.

Ikerketa arkeologiko eta historikoen ondorioz, gaur egun, finlandiarrak, suomiera berezko hizkuntza dutenak, K.a. azken bi milurtekoetan Finlandiako Golkoan bizi izan ziren eta K.a. 1500 urtetik aurrera gaur egungo Finlandiako lurraldeetara mugitzen hasi ziren. Mugimendu honek K.o. 400 urtera arte luzatu zen, epe luze honetan aldirik garrantzitsuena K. o. 200 eta 400 urte bitartekoa izan zelarik (ALLANDT, 1985: 79). Finlandiatik hedatu ziren bitartean, lehenagotik bertan bizi zen saami herria iparralderantz bultzatu zuten.


K. o. VI. mendetik aurrera, ordea, funtsezko aldaketa hasi zen gertatzen, Aro Bikingoa (800-1050) hasi baino lehentxeago, gaur egungo Suedia aldetik kolonizazio prozesu bati eman zitzaion hasiera. Etorri berriek herrialdearen mendebaldeko eta ekialdeko kostaldeak okupatu zituztelarik eta finlandiarrak barruko eta ipar aldera bultzatu zituztelarik. Egoera hau XII. mendetik aurrera areagotu egin zen, Suediako erresuma Finlandiaz jabetu zenetik. Prozesu historiko honek gaur egungo Finlandiako egoera soziolinguistikoa azaltzen digu.

2.2 Finlandiako egoera soziolinguistikoa.

Gaur egun, Finlandian bi hizkuntza dira nagusi eta izaera ofiziala dute: suomiera edo finlandiera eta suediera.

Hizkuntza	Hiztun kopurua
Suomiera	4.836.138
Suediera	289.596
Errusiera	45.224
Estoniera	19.812
Saami hizkuntza	1.800

Aurreko taulan agertzen diren hizkuntzei eta hiztunei azken hamarkada hauetan heldutako etorkinak eta beren hizkuntzak gehitu beharko genituzke. Dena den, orotara % batetik beherakoa izango litzateke.



1. irudia: Jatorria

http://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/d/df/Native_languages_Finland_2007.jpg.

Esan dugunez, hizkuntza ofizial aitortu bakarrak suomiera eta suediera dira. Finlandiako legediak, 1919ko Konstituziotik hasita, 1922an Hizkuntza Legea izenekoan garatuta eta 1935ean, 1962an eta 1975ean aldatua eta hobetua, finlandiar edozein hiritarri bere ama hizkuntza administrazio publikoarekin harremanak izateko eskubidea aitortzen dio (ALLANDT, 1985: 93). Eskubide hori gauzatu ahal izateko, legediak oinarri bat zehazten du: udalerrria. Udalerrriak beren egoera soziolinguistikoaren arabera sailkatzen dira eta, bertan, egoera horren arabera administrazio publikoak, udalarenak

eta Estatuarenak, behartuta daude egoera soziolinguistikoaren arabera erantzutera (ALLANDT, 1985: 79). Udalerriak lau multzotan banatzen dira:

1. Suomiera udalerrri elebakarrak
2. Suomiera udalerrriak, suediar gutxiengo batekin
3. Suediera udalerrri elebakarrak
4. Suediera udalerrriak, suomiera gutxiengo batekin.

Sailkapen ofizial honekin batera, saami herria kontuan hartzeko, iparraldeko lurretan, saami gutxiengoa aintzat hartzen da, estatistikoki, baina inolako lege ondorioz gabekoa. Udalerrria multzo batean edo bestean kokatzeko, hartzen den erreferentzia %8a da, hots, udalerrri batean gutxiengo linguistikoa %8tik gorakoa edo 3.000 hiztunetik gorakoa bada, elebidun hartzen da. Aipatutako erreferentziatik beherakoa bada, orduan elebakarra dela erabakitzen da.


Hamar urtean behin, eta egiten den errolda erabiliz, Gobernuak udalerrri desberdinen egoera soziolinguistikoa aztertu eta egin beharreko aldaketak egiten ditu. 2001 urteko datuen arabera Finlandiako egoera soziolinguistikoa ondoko taulan ikus daiteke:

FINLANDIAKO UDALERRIEN EGOERA LINGUISTIKOA. 2001-12-31.

Udalerrietako sailkapena egoera sozio-linguistikoaren arabera	Udalerrri kopurua	%
Suomiera udalerrri elebakarrak	385	85,94
Suomiera udalerrriak, suediar gutxiengo batekin	20	4,46
Suediera udalerrri elebakarrak	22	4,91
Suediera udalerrriak, suomiera gutxiengo batekin	21	4,69
Guztira	448	100

Iturria: Svenska Finlands folkting *Swedish in Finland*. Moldatua.

<http://www.folktinget.fi/pdf/publikationer/SwedishInF.pdf>.



■ Suomiera udalerri elebakarrak

■ Suomiera udalerriak, suediar gutxiengo batekin

■ Suediera udalerriak, suomiera gutxiengo batekin

■ Suediera udalerri elebakarrak

■ Suomiera nagusi, saami gutxiengo batekin.

Jatorria: http://en.wikipedia.org/wiki/File:Languages_of_Finnish_municipalities_%282009%29.svg.

Äland Uharteei aitortu zitzaien egoera berezi

horren oinarrian dagoen printzipioa, bere suediar

izaera babestea zen. Izan ere, 1921ean sinatutako

hitzarmenaren arabera, Finlandiako gobernua behartuta

dago suediar izaera hori babestera eta zaintzera (SVENSKA, 8). Uharteetan hizkuntza

ofizial bakarra suediera da, eta hizkuntza horretan egiten dira bizitzako arlo publikoko

jarduera guztiak: irakaskuntza, osasuna, posta, irratia, telebista, eta abar.


3.irudia: Finlandiera Finlandia ez ezik Suedian ere badago gutxiengo bat finlandieraz mintzo dena. Baina

puntu hau gure gaitik kanpo geratzen da. Biztanleriaren %3a da eta gutxiengo baten egoera aitortzen zaie.

Honekin batera, estatuaren iparraldean Meänkeli izeneko hizkuntza ere, finlandieraren aldaera bat, hitz

Testuinguru honetan beharrezkoa da Äland Uharteen egoera aipatzea. Uharte hauek Finlandia eta Suediaren artean kokaturik daude eta, 1917, lehenak independentzia lortu zuenean, bertako biztanleria Suediarekin bat egitearen alde agertu zen. Egoerari irtenbide bat bilatzeko, Konstituzioan oinarriturik, 1921ean, gobernuak oso autonomia zabala eskaini zion, Nazioen Ligaren babespean. Egoera berezi hori nazioarteko hitzarmenek ziurtatzen dute eta, gaur egun, Europar Batasunak uharteen egoera dagoen bezala onartzen du.

2. Irudia. Finlandiako udalerriak:



egiten da. Honi ere onarpen bera egiten zaio. Jatorria:

http://en.wikipedia.org/wiki/File:Finsktalande_s%C3%B6dra_sverige.png.

Hau da, gaur egun, Finlandian finlandiera eta suedieraren artean dagoen harreman eskema eta nahiko eskema finkoa eta orekatua dela esan daiteke. Baina puntu honetara heltzeko ibilbide luze eta gorabeheratsua gertatu da eta beharrezkoa da prozesu historiko hori ezagutzea nola heldu garen puntu honetaraino ulertzeko.

2.3 Finlandiaren ibilbide historikoa: Suedia eta Errusiaren artean.

Lehenago aipatu dudanez, gaurko finlandiarren arbasoak Finlandiako lurraldeak K.a. 1500 urte inguru hasi ziren kolonizatzen, lehenagotik bertan bizi zen saami herria iparralderantz bultzatuz. Kolonizazio prozesu hau K.o. 400 urte aldera amaitu zen, baina handik ez oso epe luzera, VI. mendetik hasita mendebaldean bizi ziren bikingo izenaz ezagutzen ditugun germaniar jatorrizko herrien eragina jasan behar izan zituzten. Herri hauek gaurko Suedia, Norvegia eta Danimarka estatuen lurraldeetan kokaturik zeuden eta V. mendetik aurrera barne aldaketen ondorioz, hedatzen hasi ziren, hegoalderantz Britainia Handia, Irlanda, Frantziako iparraldea inbadituz eta okupatuz eta Siziliaraino helduz; mendebaldetik Islandia uharteaz jabetu eta handik Groenlandiara eta Ipar Amerikara heltzeko; eta, ekialdetik Baltiko itsasotik gaurko Errusiaraino eta, bertan dauden ibaiak aprobetxatuz, Ekialdeko Erromatar Inperioko hiribururaino, Bizantzio edo Konstantinoplaraino. Prozesu hau luzea izan bazen ere, hasiera hasieratik eragin zion suomitar herriari. Gero suediarrek izango diren kolonizatzaile hauek Botniako golkoko finlandiar kostaldea eta lurraldearen hegoaldean hasi ziren kolonizatzen beraien hedapen prozesu horren barruan. Prozesu honen ondorioz, suomitarrek kostaldetik kanporatuak izan ziren eta barruko eta ipar aldera bultzatuak izan ziren.

XI. mendean funtsezko beste aldaketa gertatu zen bikingoak (suediarrak) beraien sinesmenak utzi eta kristautu egin ziren eta berehala hasi ziren misiolariak suomitarren artera bidaltzen hauek ere kristau zitezen (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988:5). Mende honen amaierarako ia herri osoa kristautu zen. Kristautzen prozesu hori, hala ere, ez zen soilik mendebaldetik etorri. Mende berean errusiar lurraldeetan bizi ziren eslaviarrak ere kristautu, baina kasu honetako Ekialdeko Elizari (Ortodoxoari) jarraituz eta hauek ere beraien misiolariak bidali zituzten. Honen ondorioz, kristautu zirenean, suomitarrek zatituz geratu ziren, gehiengo bat Erromako Elizari atxikiak ziren eta gutxiengo bat Bizantzioko Elizari jarraitzen zion.

XIII. mendearen erdialde aldera Erromako Aita Sainduak Gurutzada bat aldarrikatu zuen Europan geratzen ziren azken jentilak, gehien bat Rigako Golkoaren inguruan eta iparraldean, behin betiko kristautzeko. Hemendik bi gurutzada gertatu ziren: bata, suediarrek egin a Errusiako iparraldea inbadituz eta bestea germaniarren Zaldun Teutoien Ordenak Prusian egin. Kasu bietan errusiarrek garaituak izan ziren eta inbasioak erabateko porrota izan ziren. Dena den, eta guri interesatzen zaigun aldetik, erlijioaren izenean antolaturiko ekimen politiko-militar hauek balio handia izan zuten, poliki-poliki, finlandiar lurraldea sortu berria zen suediar erresumaren barruan integratzeko.

2.3.1.- Finlandia suediarren menpe.

Suediar eta errusiarren arteko gerrak, epe baterako behintzat, 1323an bukatu ziren Pahakinasari-ko Bakea sinatu zenean. Itun honen ondorioz, epe luze baterako mugak finkatuta geratu ziren, eta, nolabait esateko, Finlandia Suediar Erresumaren barruan finkatuta geratzeko ere balio izan zuen. Hemendik aurrera, Finlandia eta bere biztanleak Suediar Erresumaren barruan geratu ziren integraturik.

Erdi Aroan zehar prozesu bikoitza ari zen gertatzen. Alde batetik, suediarren kolonizazioa areagotu egin zen, Botniako eta Finlandiako Golkoetan gero eta suediar gehiago kokatu ziren, suomitarrek iparralderantz bultzatuz; beste aldetik, hauek beraien kolonizazio prozesuari ekin zioten, saami herriaren kalterako. XV. mendearen amaierarako, kolonizazio bikoitz honen mugak Finlandiako Golkotik 200 km. iparralderaino eta Botniako Golkoko kostatik 100 km. barruraino heltzen ziren (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988: 6). Prozesu honek bere ondorioak izan zituen. Sortzen ari zen gizartea suedieraz mintzo zirenek kontrolatzen zuten. Horrek suomitar asko suediera erabiltzera bultzatu zuen; izan ere, hori zen gizartean “leku” bat izateko modu bakarra. Suomitarrek funtsean nekazariak ziren, baina lurralde horietan, testuinguru ekologikoa dela medio, ez zen nahikoa bizi ahal izateko, beraz, ezinbestekoa zuten ehizatzea, arrantzan aritzea edota basoak ematen zituzten fruituak biltzea. Suediarrak, oster, beraien kokapen geografikoarengatik, arrantzatik edota merkataritzatik biz zitezkeen. Egoera bikoitz honek bere ondorioak izan zituen; suomitarrek basa bizitzarekin lotuta geratu zen, suediarrek, oster, zibilizazioa ordezkatzeko zuten bitartean. XIII. mendetik aurrerako garapen ekonomikoak ez zuen egoera aldatu, alderantziz baizik. Aldaketa ekonomiko hori merkataritzari lotu zen, baina Finlandiaren

kasuan Hansako merkatarien eskuetan, hots, merkatari alemaniarren eskuetan, geratu zen.

XIV. mendearen amaierarako suediarrek Finlandia osoa okupatu zuten, Suediako edozein probintzia izango balitz bezala. Suediako erregearen menpeko izanik, bere egoera beste probintziena bezalakoa zen, erregea hautatzeko aukera ere bazutelarik, eta 1435ean maila sozial guztiak, apezteria, noblezia, hirietako burgesia eta nekazariak ordezkatzeko zituen Riksdag izeneko parlamentuan ere parte har zezaketen (UNGER, 1986: 75). Baina suediera zen aristokrazia eta gobernuaren hizkuntza nagusia (UNGER, 1986: 75).

Honen guztiaren ondorioz, suomitarrek eta beraien kultura eta hizkuntza bigarren mailan, herri erdi-basati baten ezaugarri gisa agertzen zen. Goi Kultura, Europako osoan bezalaxe, latinez egiten zen, alde batetik; eta, bestetik, gizarteko goi funtzio guztiak, administratiboak, merkataritza arlokoak eta abar, suedieraz edo, bestela, alemanez. Suomi hizkuntza herri xehearen hizkuntza zen, inolako garapen berezirik gabe. Salbuespena Elizak suposatzen zuen. Bere pastoraltza helburuetarako behar-beharrezkoa zuen herriaren hizkuntza erabiltzea. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen zen parroketan suomiera zekiten apaizak izatea (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988: 6). Egoera honek Eliza suomitarren hizkuntza eta kultur sustatzailerik nagusiena bihurtu zuen. 1291an, lehen suomitar gotzaina izendatu zen sortu berriko Turku-ko (Abo, suedieraz) elizbarrutirako. Elizbarruti honek bere baitan Finlandia osoa hartzen zuen. Hemendik aurrera Turkuko elizbarrutia Finlandia osorako erreferente nagusi bihurtu zen, are gehiago, suediarrek hiriburu administratiboa egin zutenean (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988: 6).

Europako iparralde osoko egoera politikoa 1397an aldatu zen erabat. Urte honetan, eta Danimarkako monarkiaren gidaritzapean, Kalmarreko Batasuna sortu zen. Erresuma berriak Danimarkaz gain, Eskandinaviako lurraldeak, Islandia eta Groenlandia hartzen zituen bere menpe. Batasun hau, ordea, ez zen baketsua izan; izan ere, Suediako (beraz Finlandiako) nobleziaren eta Danimarkako monarkiaren artean etengabeko arazoak egon ziren, baita gerrak ere. Gerra hauek Finlandian eragin handia izan zuten, bertako biztanleriak (suomitarrak batez ere) zerga inposaketa handiak pairatu behar izan zituztelarik. Egoera hau aprobeztatuz, Moskuko Ivan III.a Duke Handiak Finlandia inbaditu zuen 1478an, epe luzeko gerra aldi bati hasiera emanez.

Azkenean, 1497an suediar nobleziak itun bat sinatu zuten, bertan bi mende lehenago zehaztutako mugak finkatuta geratu zirelarik (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988: 7). Gerra hauek Danimarkako monarkiarekiko atxikimendua gehiago ahuldu zuten eta 1523an, Suediako noblezia erregearen aurka matxinatu egin zen eta, Gustav Vasaren gidaritzapean, independentzia lortu Gustav I.a Vasaren agindupean. Kalmarreko Batasunetik sortutako monarkiaren zatiketean, Finlandiako noblezia, suediarra zela ezin dugu ahaztu monarkia berriaren alde eta Suediako erresuma berrian sartu zen (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988: 7). Honela jokatu izanak suediar nobleziari balio izan zion Finlandian bere nagusitasunari eutsi ahal izateko.

Baina hau ez zen izan Aro Modernoak ekarri zuen aldaketa bakarra. Alemanian, 1517an, Martin Luther-rek hasitako erreforma Finlandiara ere heldu zen. Gustav I.ak, bere interes politikoak zirela eta, Erreformari bultzada handia eman zion bere erresuman, 1527an Erromako Elizarekin hautsi arte. Haustura horretaz baliaturik, Gustav I.ak Elizaren ondasunak, lur sailak, batez ere, bereganatu zituen, nobleziaren laguntza saritzeko, hauen artean ere banatzeko. Horrek asko indartu zuen beren boterea. Ez, ordea, Finlandian. Lurralde honetan erreformaren aldeko eskariak txikiagoak izan ziren; izan ere, Eliza lur guztien %10en jabe baino ez zen (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988: 8). Horregatik Protestantismoa 1598ra arte ez zela bertan finkatu esan daiteke.

Erreformaren aro honetan Finlandiako erreferente nagusia Mikael Agricola izan zen, berezko izena Mikko Olavinpoika edo Michael Olavi (“Olavi-ren semea”) eta suedierazko zenbait dokumentutan “Mikkel Olafsson”. Nekazari baten semea, hortik ikasle zela hartu zuen abizena, garai hartako ohiturari jarraituz, izanik, Viipuri-n ikasi zuen. Hiri honetako kondea Lutherren aldekoa zen eta Erreformarekin bat egin zuen eta bide erreformatuari jarraitu zion handik aurrera. 1554an Gustav Vasa erregeak Turkuko gotzain izendarazi zuen eta Finlandiako lehen gotzain erreformatu bilakatu zen. Erreformaren lehentasunei jarraituz, Eliza erreformatzeari ekin zion. Aurreko urteetan bere lehen lanak argitaratuak zituen: *Abckiria* izeneko liburua irakurtzen ikasteko eta dotrina, 1543an argitaratua; *Rucouskiria*, 1544an argitaratua, hezkuntzari eta Erreformari buruzkoa. Baina, bere lanik garrantzitsuena *Se Wsi Testamenti*, suomierara eginiko Itun Berriaren itzulpena. Lan hauekin batera *Käsikirja Castesta ia muista Christikunnan Menoista*, *Messu eli Herran echtolinen* eta beste hainbat liburu liturgia eta dotrina Erreformaren beharretara egokituak. Lan hauek guztiek, arlo erlijiosoan duten garrantziaz gain, badute kultur ikuspegi batetik berebiziko garrantzia. Lehenengo

aldiz bere historian suomiera kultur maila jasoan erabiliko da, ez da izango ordura arte bezala ahozko kulturari lotuta hizkuntza. Honek beste ondorio garrantzitsua izan zuen. Erreformaren zutabeetariko batek Bibliaren irakurketa pertsonala bultzatzen zuenez, ezinbestekoa zen irakurmena lantzea. Hortik etorriko da *Abckiria* irakurtzen ikasteko metodoaren garrantzia. Suomitarrek, handik aurrera, beren hizkuntzan irakurtzera bultzatuak izango dira, nahiz eta oraindik hurrengo mendeetan suediera izan kultur hizkuntza nagusia. Agricolaren lanaren ondorioz, suomierak goi mailako funtzio bat bereganatu zuen. Horregatik, bera hartzen da Suomieraren Literaturaren sortzaile gisa (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988: 8).

Gustav I.a Vasareren monarkiak, aldaketa erlijiosoa bultzatzeaz gain, beste aldaketa garrantzitsu batzuk ere ekarri zituen. Erdi Aroko ereduari muzin eginez, berea hautazkoa izan ordez, oinordetzazko monarkia sortu zuen. Garai hartan Europan garatzen ari ziren beste monarkiekin (Espainia, Frantzia, Ingalaterra, ...) Erret boterea sendotzeko asmotan, egitura politiko-administratibo berri bat garatzen hasi zen. Egitura horren oinarriak bi izango dira nagusiki:

- 1.- Monarkia zentralizatua, jakina, Suediarekiko Finlandiaren menpekotasuna areagotuko duena;
- 2.- Estatu burokrazia indartsu bat, suedieraz mintzo direnek beteko dutenak.

Honekin batera, eta estatu berriak eskaintzen zizkien abantailak aprobetxatuz, erdi mailako talde sozial berria sortu zen, burgesia berria, hain zuzen ere; maila sozial berri hau funtzio administratiboetan aritzeaz gain, merkataritzan, finantza jardueratan eta beste mota batzuetako negozioetan aritzen zen (UNGER, 1986: 76). Garapen horrek irakaskuntza eta zuzenbidearen garrantzia areagotu egin zuen. Baina, jakina, garapen hauek guztiak suedieraz “egiten” ziren, hizkuntza honen garrantzia eta beharra areagotuz. Horregatik, eta aurreko jarrerak indartuz, suediera ezinbesteko baldintza bihurtu zen, baita suomitarrentzat aldaketa hauek sortzen zituzten aukerez baliatu nahi bazuten. Gizartean igotzeko ezinbesteko baldintza bihurtu zen hizkuntza aldaketa suomieratik suedierara (UNGER, 1986: 77). Helburu hori berez lortu nahi ez bazen ere, argi zegoen Finlandiako gizartea “suedieratzen” ari zela.

Prozesu honetan funtsezko garrantzia hezkuntzak izan zuen. Erlijioari lotutako hezkuntza izan ezik (pastoraltza helburuak zirela eta), beste arlo guztietarako hezkuntza

suedieraz egiten zen, Latina bera ere, Erdi Arotik Europa osoan *lingua franca* izateaz gain hezkuntza eta kultur hizkuntza zena, unibertsitatekanporatuz; suediera lehen eta bigarren irakaskuntzetarako, goi mailako ikasketetarako sarrera izanik, ezinbesteko bihurtu zen. Honen guztiaren ondorioz, suomierazko elebakarrak desagertu ziren erdi mailako klasekoen artean (UNGER, 1986: 75). Hizkuntza aldaketa prozesua ez da halabeharrezko prozesu baten ondorioa, baizik eta asimilazio prozesu batena (ALLANDT, 1985: 84). Egoera hau XVII. mende amaieran eta XVIII. mende hasieran areagotu egin zen. Errusiaren aurkako gerra (Iparraldeko Gerra Handia, 1700-1721) zela eta, Finlandian izandako burokraziaren galerak estaltzeko, Monarkiak suediarrez eta suedieraz baino mintzo ez ziren finlandiarrez baliatu nahi izan zuen, suomitarren kexuak sortaraziz (UNGER, 1986: 79). Monarkiak atzera egin behar izan zuen 1739an argitaratutako agindu baten bidez.

XVIII. mendearen erdi aldera, Finlandian egoera bikoitza bat ikus dezakegu: alde batetik, eta Monarkiaren garapenari lotuta, suedieraren nagusitasuna erabatekoa da, erlijio arloan izan ezik; bestetik, suomieraren aldeko lehen mugimenduak nabarmentzen hasita zeuden. XVII. mendean suomieraren eta bere kulturaren inguruko jakin-mina hasi zen pizten. 1637an, Alemana-latina-suediera-suomiera hiztegi bat argitaratu zen (ALLANDT, 1985: 85). 1640an, Turkun Aboko Unibertsitatea sortu zen. Bertan hizkuntza nagusia suediera bazen ere, aukera berriak sortu zituen eta horietaz baliatu zen XVIII. mendean Henrik Gabriel Porthan. Filologoa eta geografoa, bere lan eskergeri esker Äboko Unibertsitatean jarduera humanistikoek izugarritzko garapena izan zuten, batez ere, suomiera eta bere kulturaren inguruko ikerketetan. Oso baliotsuak izan ziren herri poesian eta folklorea burutuko dituen ikerketak eta lanak; izan ere, ikerketa horien ondorioz, bere lanaren muina suomiera bera izango zelarik (BIOGRAFIKESKUS). Benetako jarraitzaileak izan ez bazuen ere, bere lanek suomierari eta bere kulturari atea berriak zabaldu zizkien. Hemendik aurrera, ez dira izango herri xehearen adierazpen soilak, baizik eta kultur gaiak. Horregatik, XIX. mendeko finlandiar nazionalismoak “Finlandiako Historiaren Aitatzat” hartu zuen, bera Suediako monarkiaren menpeko leiala izan zen arren.

XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mende hasierarako egoera linguistikoa Finlandia nahiko argia zen: biztanleria osoaren %80-85 batek suomiera zuen ama hizkuntzatzat eta beste %15 batek inguruk suediera zuen ama hizkuntza. Suediera zen hizkuntza ofizial bakarra eta bera zen gizartean gora egiteko ezinbestekoa. Aro

Modernoan zehar “suedieratze” prozesu nabarmena gertatu zen gizartean eta horren adibiderik esanguratsuenak Helsinki hiria bera izan zen. Suediera nagusi zen herriez inguraturik, XVII eta XVIII. mendeetan gertatutako migrazio prozesu baten ondorioz, XVIII. mende amaieran suedieraren nagusitasuna ia erabatekoa zen (ALLANDT, 1985: 86). Bertan, administrazioko kideak eta goi noblezia izan ezik, klase ertainekoak eta herri xehea ere suediera elehunak ziren (ALLANDT, 1985: 85). Dena den, horrek ez du suposatzen nolabaiteko elebitasunik ez zegoenik. Suedieraren nagusitasun hau XIX. mende erdialdera arte luzatuko da.

2.3. 3.- Finlandia Errusiaren menpe (1809-1917).

1808an, Errusiak Suedia inbaditu eta Finlandia konkistatu zuen. Hurrengo urtean Errusia eta Suediaren artean sinatutako Hamina-ko (Fredriksamn, suedieraz) Itunaren ondoren, Suediak Finlandia Errusiari eman zion. Hemendik aurrera, aro berri bat zabaldu zen Finlandiarentzat.

Finlandia Errusiaren eskuetan geratu bazen ere, horrek ez du esan nahi Inperioaren barruan sartu zenik. Inperioarekin bat egite hori pertsonala izan zen, hots, Errusiako Tsarra Finlandiako Duke Handia bilakatu zen, horrek Finlandiari oso autonomia maila handia ematen ziolarik (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988: 10). 1809an Porvoo-n (Borgå, suedieraz) bildutako Dietak, Parlamentu antzeko batzarra, tsarraren dekretuak onartu zituen. Hemendik aurrera, gobernu zuzena, tsarraren izenean, honek izendatuko zuen Agintari Orokor baten eskuetan egongo zen. Lehena suedieraduna bazen ere, handik aurrera beste guztiak errusiarrak izan ziren. Honekin batera, tsarrak izendatutako 40 lagunek osatzen zuten Batzar Agintari bat zegoen, 1816tik aurrera, Senatua deituko zena. Batzar honek, teorikoki, funtzio legegilea zuen, baina ezin zien tsarraren aginduei aurka egin. Finlandiak bere zuzenbide sistemarekin jarraitu zuen, baita bere berezko zerga sistemarekin ere (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988: 10). Honek, funtsean, ez zuen aldatzen modu nabarmenean ezer Finlandiaren barruan, ezta suedieraz mintzo zirenen nagusitasuna ere.

Dena den, Europan aro berria hasi zen sortzen. Frantziako Iraultzak kontzeptu politiko berri bat ekarri zuen: Nazioarena, alegia. Napoleon I.aren aurkako borrokak Europa osoan sentimendu berri bat piztu zuen: nazionalitatearena, hain zuzen ere. Eta XVIII. mende amaieratik aurrera, Ilustrazioaren aurkako erantzun gisa, kultur mugimendu berri bat agertu zen: Erromantizismoa. Honen guztiaren ondorioz, eta

Marxen hitzak erabiliz, eta aldatuz, “Mamu berri bat zabaldu zen European zehar: Nazionalismoaren mamua” alegia.

Finlandia, jakina, ez zen geratu mugimendu orokor honetatik kanpo, baina ezaugarri bereziak izan zituen. Finlandiako mugimendu abertzalea, batez ere, intelektual, irakasle eta ikasleen artean sortutako mugimendua izan zen (UNGER, 1986: 80-81) eta, hasieran, bere bultzatzaile nagusienak, paradoxikoa badirudi ere, suedieraz mintzo zirenak izan ziren. Oso esanguratsua da, esate baterako, finlandiar nazionalismoaren lelo nagusia, Adolf Ivar (Iwar) Arwidsson-ek aldarrikatua, “*Dagoeneko ez gara suediarrik, ez dugu errusiar bihurtu nahi, bihur gaitezen finlandiar*”, jatorriz suedieraz egin zela¹.

Nazionalismoa oso gertaera historiko garrantzitsua da, historialariek, soziologok eta abarrek ikertua eta aztertua. Lan honetan ez dugu finlandiar nazionalismoaren inguruko azterketa sakon bat egingo, baina gure lanarekin zerikusi handia duenez, hizkuntzarekin dituen loturak ezin ditugu aztertu gabe utzi. Horretarako bi historialari finlandiar erabiliko ditugu erreferente nagusi gisa: Risto Alapuro, Helsinkiko Unibertsitateko irakaslea eta Mikko Lahtinen, Tampere-ko Unibertsitateko irakaslea (ALAPURO, 2007 eta LATHINEN, 2006). Nazionalismoaren inguruan planteamendu desberdinak egiten badituzte ere, guri lagungarri izan dakizkiguke, baita osagarriak ere, Finlandian hizkuntza aldaketa nola gertatu zen ulertzeko.

Risto Alapurok bere ikerketa egiteko Miroslav Hroch-en (HROCH, 1968) eta Tom Nairn-en (NAIM, 1977) lanak hartzen ditu oinarritzat. Ikertzaile hauen ikuspegitik, mugimendu abertzalearen sorrera azpigarapenaren aurkako erantzun modu gisa ulertu behar dugu. Honen arabera, mugimendu abertzalea lehenengo talde intelektualen artean zabaltzen da, bigarren momentu batean klase ertainen artean eta, azkenik, herri xehearen artean (ALAPURO, 2007: 22). Lehenengo momentuan, unibertsitateetako ikasle eta irakasleak, elizgizonak, ... izango dira protagonismoa izango dutenak. Hauekin batera, merkatari txikiak eta artisauak, goi mailako burgesiaren aurrean, behe mailako funtzionario publikoak, Estatuko goi mailako burokraten aurrean izango dira protagonista nagusiak. “Abertzale” hauek gizarte mailaketan igo daitezkeen azken

¹ Suedieraz: “*Svenskar äro vi icke längre, ryssar vilja vi icke bli, låt oss alltså bli finnar.*” Suomieraz: “*Ruotsalaisia emme ole, venäläisiksi emme tule, olkaamme siis suomalaisia.*”

punturaino heldu dira eta gorago ezin dira igo, eta horrek kokatzen ditu indarrean dagoen egitura politiko-sozialaren aurrean (ALAPURO, 2007: 22).

1809an, suomieraz hitz egiten zuen Finlandia Errusiaren eskuetan pasatu zenean, Suediar Estatuaren periferian zegoen kokatuta (ALAPURO, 2007: 23) eta horrek garatzen hasita zegoen kapitalismotik kanpo uzten zuen. Errusiar inperioan geratu zenean, hasi zen garatzen independentziara eraman zuen mugimendu abertzalea. Mugimendu abertzale honen garapenak hiru ezaugarri izan zituen Alapuroren ikuspegitik:

1. Finlandiako estatu autonomoa Errusiar Inperioaren barruan, nazionalismoaren sorrera baino zenbait hamarkada lehenago sortu zen.
2. Finlandiako ekonomiaren garapenarentzat oso lagungarria izan zen Inperiokoa baino maila ekonomiko handiagoa izatea eta bere merkatu zabalaz baliatu ahal izatea. Honek aukera eman zion Finlandiari ekonomia nazionalari garatzeko.
3. Finlandiar estatua beste bi estaturen artean, Suedia eta Errusia garatu zen. Aginte politikoa Errusian zegoen, baina aginte ekonomiko eta kulturala suedieraz mintzo zen goi mailetakoen eskuetan zegoen (ALAPURO, 2007: 23-24).

Ezaugarri hauek kontuan izanik, ondorio bezala, Alapurok azken ezaugarri bat azaltzen digu. Europako mendebaldeko nazionalismoaren aurka, non nazionalismoa goi klasekoen mugimendua izan zen, Finlandian Europako beste leku batzuetan bezala nazionalismoa erdi mailetakoen artean zabaldu zen, herri xehearen laguntzarekin atzerriko botereen nagusitasun ekonomiko eta politikoaren aurka (ALAPURO, 2007: 23-24).

Mikko Lathinen, bere aldetik, erreferentzia marxistetan oinarritzen da, finlandiar nazionalismoaren azterketa egitean. Bere ikuspegitik, nazionalismo honen ezaugarriarik nagusienetarikoa bat bere izaera bikoitza izan zen: alde batetik, bere garapena Finlandiako klase garapenarekin, hots, klase gizartearekin, lotuta da; eta, bestetik, aurreko gizarte estamentalaren desegite prozesuan protagonista nagusia izan zen (LATHINEN, 2006: 2). Hobsbawm-en nazio mota bikoitzaren aurrean (iraultzaile-demokratikoa eta nazionalista) (HOBSBAWN: 1990), Lahtinenek hirugarren bat garatzen du. Bere ikuspegitik, finlandiar nazionalismoa iraultzailea zen; izan ere, suedieraz mintzo zen elitearen aurka, “behetik gorako” mugimendu baten aurrean


gaude; baina, beste aldetik, ikuspegi “nazionalista kontserbadorea” ere izan zen; izan ere, mugimendu abertzaleak “elite” bezala jokutzen du suomieraz mintzo den herri xehearen aurrean (LATHINEN, 2006: 3). Gramsci-ren ideia bat erabiliz², “iraultza-berrezarpena”, hain zuzen ere, bere planteamendua ideia honetan azaltzen da: “*Eliteen “iraultza”-elite iraultzaren hazkundera- lotuta dago elite berriak gidatzen duen nekazal jendearen “berrezarpenarekin” edo “erreakzioarekin. Ez zituzten egitura sozial autoritarioak suntsitu, baizik eta bereganatu zituzten eta bere interes hegemonikoen mesederako erabili zituzten*” (LATHINEN, 2006: 4).

Bere planteamendua ulertzeko Finlandiaren egoera 1809an hartu behar dugu kontuan. Errusiaren menpe jarri zenean, ordura arteko suedieraz mintzo zen eliteak bere boterea indartuta ikusi zuen, gizarte estamental batean. Suomieraz mintzo ziren nekazariak ikuspegi ekonomiko, sozial, politiko eta kulturaletik baztertu zegoen (LATHINEN, 2006: 5). Hizkuntza ofiziala suediera izanik, egoera hau aldatu nahi zutenek egin behar zuten lehen aldaketa “suomitar identitatea” sortzea zen, baina Errusiar Inperioaren adostasunarekin. Hauxe izan zen lehenago aipatu dugun Snellmanen helburua: Finlandiar batasuna lortu suomitar kulturaren oinarrituta. Horrexegatik finlandiar guztiak, bera bezalako suediera ama-hizkuntza zutenak ere, suomieraz hitz egitera, lan egitera eta bizitzera eta herrikoia eta abertzalea izango zen literatura jasoa garatzera bultzatu zituen. Bere planteamenduetan bakarrik Finlandia hizkuntzan, kulturaren eta leialtasunean batuak egin ziezaikeen aurre mehatxua zituen arriskuei (ALAPURO, 2007: 26). Lehen planteamendu honetatik sortu zen “*fennomanen*” mugimendua, XIX. mende amaiera arte Finlandiako mugimendu abertzalea gidatuko duena. Baina, zergatik egin zuten Snellman bezalako suedieradunek bat mugimendu abertzalearekin? Bitxia bada ere, hasierako *fennoman* gehienak suedieradunak ziren, baina ez ziren goi mailako elitearen kideak. Beraien helburua Inperioarekin itun bat lortzea zen, Enperadorearekiko leialtasunaren truke, honek beren helburu nazionaleri bide emango zuelakoan. Horregatik, eta Europa osoan zehar, baita Errusiar Inperioaren barruan ere, iraultza eta matxinadak ugari izan baziren ere, ez zen horrelakorik Finlandian gertatu. Leialtasun honek aukera eman zien bere planteamenduak garatzeko. Aurreko elitearen aurkako borrokan, nolabait esateko, alde batetik Inperioaren onspena

² GRAMSCI, Antonio: *Quaderni del carcere* (Espetxean, 1929tik aurrera idatzitako oinarrizko testua). Ez dut aurkitu erreferentzia bibliografikorik.

zuen; eta, bestetik, suomi hizkuntzaren errebindikazioak lotura ezin estuago eman zien nekazal herri xehearekin.

Baina kultura arloko eskakizunekin batera, gizartearen egituraren aldaketak ere agertzen ziren. Snellmanen planteamenduan, suomieraz mintzo zen erdi mailako klasea zen helburu nagusia. Azken finean, klase honi egokitzen zitzaion suedieraz mintzo zen elitearen aurka borrokatzea eta bere inguruan Finlandia modernizatuko zuen indar soziala sortzea (LATHINEN, 2006: 7).



Talde honen helburuetarako funtsezko laguntza izan zen 1835ean *Kalevala* izeneko poema epikoaren argitalpena. Argitalpen hau ogibidez sendagilea zen Elias Lönnrot-en eskutik etorri zen. Honek Finlandia osoa zeharkatu zuen, han-hemenka poema honen bertsiio desberdinak lortuz. Guztiekin sintesi antzeko zerbeit egin zuen eta horrekin suomierazko literatura nazionala sortzeko lehen urratsa eman zuen.

4.irudia: Kalevalaren itzulpena ingelesera. Lönnrot-en argitalpen honek garrantzi berezia izan zuen suomieraren prestigio soziala zabaltzeko. Jatorria: http://en.wikipedia.org/wiki/File:Crawford_-_Kalevala_title_page_-_1888_-_1.jpg.

Argitalpen honen aurretik funtsezko beste aldaketa batzuk gertatu ziren. 1812an Errusiar Inperioa hiriburu administratiboa Turkutik Helsinkira mugitu zuen. 1827an, Turkuko Unibertsitateak sute suntsitzaile bat pairatu zuen eta bere egoitza ere Helsinkira eraman zuten. Hemendik aurrera, unibertsitate hau finlandiar abertzaletasunaren gune bihurtuko da (SOLSTEN eta MEDITZ, 1988: 11). Gainera, lehenago aipatu dudana bezala, mende erditik aurrera, Helsinki suomieraz mintzo zen migratzaile korrante handi baten helburu bihurtu zen eta horrek bere egoera sozio-linguistikoaren aldaketa ekarri zuen. Dena den 1870ean eginiko erroldan, hizkuntzaren inguruko galdera egitean lortu zen emaitza ondoko hau izan zen:

HIZKUNTZA	%*
Suediera	57
Suomiera	20
Errusiera	12

*Ehuneko ehunera heltzeko falta den portzentajea beste hizkuntza batzuei dagokie, batez ere alemana (ALLANDT, 1985: 86).

Data honetatik aurrera, ordea, poliki-poliki, aldaketa linguistikoa gertatu zen.

Aipatu ditugun arrazoiengatik, argi dago hezkuntza mugimendu abertzalearen xede nagusia bihurtuko zela. Honela, 1843an suomieraren irakaskuntza bigarren hezkuntza sartu zen eta 1858an sortu zen batez ere suomieraz irakasten zuen lehen bigarren hezkuntzako eskola. Bide honetatik jarraituz, 1880. Hamarkadarako suomieraz aritzen ziren bigarren hezkuntzako ikasleen kopurua suedierazkoena baino handiagoa zen eta 1902rako bikoiztu egiten zuen (ALLANDT, 1985: 89). Poliki-poliki, beraz, Snellmanen helburua, suomieraz mintzo zen elite baten sorrera, garatuz joan zen.

Baina hau ez zen mugimendu abertzaleak burutu zuen ekintza bakarra. XIX. mendeko bigarren erdian zehar hainbat motatako erakunde “abertzaleak” sortu ziren: egunkariak, aldizkariak, suomieraz idatzitako literatura berria, eta abar. Testuinguru honetan aipamen berezia merezi du kirol arloan sortutako mugimenduak. Seppo Hentilä-k azaltzen duen moduan (HENTILÄ, 2002). kirola Finlandiara une egokian heldu zen, gizarte zibikoa sortzen ari zen une berean. Buruzagi abertzaleek kirola herriaren defentsarako prestatzeko modurik onena iradoki zuten eta, nazioa eraikitzeko beste funtsezko osagai gisa hartu zuten, kirola gizonezkoentzat zein emakumezkoentzat. Gainera, eta gaur egun bezala, kirolak identitate nazionala indartzeko modu eraginkorra zen.

Suomieraren funtsezko urratsa bere ofizialtasuna lortzea izan zen. Lehen saioa 1863an gertatu zen Alexander II.aren garaian. Une horretan ezinezkoa izan ez bazen, suedierarekin parekotasuna 1892an lortu zen Alexander III.aren garaian. Hemendik aurrera, *de facto*, suomiera eta suediera egoera juridiko berean zeuden, parekotasuna lortuta zegoen. Berdintasun hau 1906an areagotu egin zen, eta suomieraren nagusitasunaren lehen urratsa ekarri zuen, sufragio unibertsala gauzatu zenean, baita emakumeentzat ere. Hemendik aurrera, suedieraz mintzo zen eliteak bere botereari eusteko aukera guztiak galdu zituen; izan ere, sufragio unibertsala ezartzean, suomieraz mintzo zen kopurua askoz handiagoa zen.

Lathinenen planteamenduekin jarraituz, lehenengo helburua lortuta, hots, boterea suomieraz mintzo zen elite berri baten eskuetan uztea, bigarrenaren txanda zen, herri xehea egoera berrietara, klase gizartera egokitzearena, alegia. Garapen

ekonomikoa sortzen ari zen klase gizartea sendotzeko ezinbesteko baldintza zen herria egoera berrietarako hezte. Heziketa honen oinarria elite berriaren boterearen onespina eta jarduera ekonomiko berrietara langile klase bat prestatzea, eta horretan, jakina, hezkuntzak bere biziko garrantzia izan zuen.

Eta suedieraz mintzo zirenek ez al zuten erantzun? Bai horixe. Suedieraz mintzo zen elite horrek boterea galtzen zuen heinean, bere erantzuna gauzatu zuen. Suomieraren aldeko jarrera areagotzen zen bitartean, suedieraz mintzo zirenek *Svekoman* izeneko mugimendua sortu zuten. Beren planteamenduetan Finlandia bi hizkuntza desberdinez mintzo diren nazioez osatuta dago: suedieraz eta suomieraz mintzo diren nazioak, alegia. Batez ere, 1906tik aurrera, suomieraz mintzo zirenen aurrean politika defentsiboa garatu zuten, helburua beren izaera suediarri eustea izan zelarik.

I. Mundu Gerra aurreko urteek Errusiaren politika aldaketa ekarri zuten. Gobernuak, errusiar mugimendu abertzaleak bultzatuta, “errusiaratze” politika bati ekin zion, Finlandiaren mota guztietako berezitasunak ezabatu nahian: derrigorrezko soldaduskaren inposaketa (atzera egin arte ia matxinada orokorra eragin zuena) edota errusieraren erabilera. Errusiaren ekimen hauek mugimendu abertzalea indartzea baino ez zuten lortu eta 1914 gerra hasi zenean, Finlandia prest zegoen bere independentzia lortzeko. Dena den, horrek ez zuen ekidin *Fennoman* mugimenduaren zatiketa. Errusiaren politikaren inguruan bere baitan bi adar sortu ziren, batzuk Gobernuarekin epel jokatzearen alde agertu ziren, ohiko bideari ekinez, hauek Finlandiar Alderdi Zaharra sortu zuten; beste batzuek, ordea, aurka egitearen aldekoak ziren eta Finlandiar Alderdi Gaztea edo Alderdi Konstituzional-Fennomama sortu zuten.

2.3.4.- Finlandia independentea (1917-...).

I. Mundu Gerra hasi zenean, Finlandia Errusiar Inperioaren barruan zegoen, baina bere egitura autonomoagatik, mende hasieran errusiar gobernuak ezabatu nahi izan zuena, ez zuen parterik hartu. 1917an Errusian Iraultza piztu zen otsailean eta urrian, gure azaroan, bere jarraipena izan zuen Iraultza Boltxebikearekin. Egoera hori aprobetxatuz, Finlandiak bere independentzia aldarrikatu zuen eta errusiar iraultzaileek zein alemaniarrek parte hartu zuten gerra labur baten ondoren, Brest-Litovsk-en bakearen ondoren, independentzia finkatuta geratu zen.

Hurrengo urratsa Finlandiaren barne egituraketa egitea izan zen. Gerra zibilak egindako kalteez gain, oraindik konpondu gabeko arazo bati egin behar zitzaion aurre: hizkuntzaren auziari, alegia. Alde bien jarrerak oso nabarmenak ziren: suomieraz mintzo zirenen helburua, Finlandia suomiera baino erabiltzen ez zuen estatu-nazioa sortzea zen; suedieraz mintzo zirenen Suediarekin bat egitea ezinezkoa zenez, Finlandiaren barruan beren suedierazko izaera ziurtatuko zuen egoera bereizi bat eraikitzea.

Bien arteko hitzarmena bilatu nahian, 1919ko Konstituzioak hizkuntza bien koofizialtasuna bermatu zuen. Berme hori garatzeko 1922an Hizkuntzen legea argitaratu zen, hizkuntza bien kudeaketa nola egingo zen azaltzen zuena eta denboran zehar hainbat hobekuntza eta aldaketa izan dituen (ikus gorago). Ez gara orain luzatuko zertan den gaur egungo egoera, dagoeneko aztertua baitugu. Baina gaur egun suma daitekeen lasaitasuna ez da lortu arazorik gabe.

Konstituzioak eta Hizkuntzen legeak egoera finkatuta utzi bazuten ere, hainbat puntu guztiz konpondu gabe geratu ziren eta liskarren jatorria izan ziren. Alde batetik, suedieraz mintzo direnek tinko eutsi diote beren egoera bereziari (ALLANDT, 1985: 93)³, bestetik suedieraz mintzo zirenen desagertzea nahi zutenak, honen barruan sar daiteke oraindik, sektore batzuetan indartsu mantentzen den derrigorrezko suedieraren irakaskuntzaren aurka agertzen direnak. Finlandiako alderdi eta pertsonaia politikorik garrantzitsuenak dagoen egoerari eustearen alde dauden arren, badira kanpoko beste hizkuntza bat lehenestearen aitzakian, suediera borondatezko irakasgaia bihurtu nahi dutenak. Dena den, gaur egun borroka linguistikoa Finlandiatik desagertzen ari da. Desagertze horren arrazoi bai, hala ere, hasieran aipatutako suedieraren gero eta erabilera txikiagoa izan daiteke.



5.irudia: Eskoletan suedierazko derrigorrezko irakaskuntzaren aurkako kanpainan erabilitako logoa.

Hala ere 2003an Hizkuntzen lege berri bat onartu zen, 2004tik aurrera indarrean dagoena. Lege berri horrek funtsean ez du aldatzen hizkuntzen egoera:

³ Ikerlari honek berebiziko garrantzia ematen dio kultura eta hizkuntza baten defentsak politikariek eta herri arruntak beren alde mobilizatzeari. Bere ustez, gaur egun hizkuntza bati eta berari lotuta dagoen kulturari eusteko ezinbestekoa da defentsa sutsua eta bere alde mobilizatzea.

1. Bere lehenengo artikuluan suomiera eta suediera Finlandiako hizkuntza nazionalak direla zehazten du.
2. Hizkuntza bietako hiztunek eskubide berberak dituzte administrazio publikoaren aurrean (2. artikuluan).
3. Udalerria izango da banaketa linguistikoa egiteko oinarrizko erreferentzia (8. artikulua)
4. Udalerriak elebarkarreak edo elebidunak izango dira, duten eledun proportzioaren arabera (8. artikulua).
5. Udalerri bat elebiduntzat joko da, gutxiengoa %8tik gorakoa bada edo, gutxienez, 3.000 pertsonatik gorakoa bada (8. artikulua) .
6. Äland uharteen egoera ez da aldatzen eta 1991an onartutako legearen arabera jarraituko du funtzionatzen.
7. Aipamen berezia egiten zaie saami hizkuntzari eta beste batzuei, berauentzat legedi berezia dagoela zehaztuz.


Lege hau, 2006 eta 2009an argitaratutako txosten batzuen bitartez, garatua izan da, bere helburua hizkuntza bietako eledunei administrazioaren aurrean beraien hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortuz eta zehaztuz. Une honetan, beraz, Finlandia hizkuntza borroka amaituta dagoela esan daiteke: suomiera bilakatu da hizkuntza nagusia, baina gutxiengo linguistikoei, bereziki suedieradunei beren eskubideak bermatuta geratu zaizkie. Egon daitekeen arazoa suedieraren gero eta erabilera txikiagoa izan daiteke, baina horrek beste azterketa bat eskatuko luke.

3. GAELERAREN MENDEETAKO BORROKA BIZIRAUTEKO.

3.1.- Gaelera.

Gaelera edo Gaelikoa (*Gaeilge*, gaeleraz) Irlandako jatorrizko hizkuntza da. Gaelera hizkuntzen taldean sartzen dute hizkuntzalariek Eskoziako Gaelerarekin eta Manxerarekin batera, lehena, izenak esaten duen moduan, Eskoziako mendebaldean eta

mendebaldeko uharteetan mintzatua, nahiz eta Erdi Aroan bere hedapena askoz handiagoa izan zen, eta hirugarrena, dagoeneko ama-hizkuntza bezala desagertua berreskuratzeko saioak egiten ari badira ere, Britainia Handiaren eta Irlandaren artean dagoen Manx uharteko berezko hizkuntza.



6.irudia:Irlandako lurraldeak eta bere konderriak.


<http://www.buyimage.co.uk/ireland/general/map.gif>.

Gaur egun, biztanleriaren %3rena baino ez bada eguneroko hizkuntza Eireko Errepublikan eta askoz gutxiago Erresumaren Batuaren barruan jarraitzen duten Ulster-reko sei konderrietan, gaelera Irlandako biztanleriaren hizkuntza izan da mendeetan zehar.

Historialariren eta hizkuntzalariren arabera, gaelera Irlandara K.a. II. milurtekoan heldu zen Europako mendebalde osora hizkuntza zeltikoak mintzo ziren herriak heldu zirenean. Handik aurrera eta uhartea kristautu arte bera izan zen biztanleriaren hizkuntza. K.o. V. mendean, ostera, Ulsterreko hainbat buruzagik eta bere gudarik, eskotoak izenekoak, hortik herri honen izena, Eskozia inbaditu zuten eta bertan erresuma bat sortu zuten, *Dál Riata*, *Dal Riada* edo *Dalriada*. Hurrengo mendeetan Eskoziako bertako biztanleak, piktoak, garaitu eta honela sortu zen Erdi Aroan ezaguna izango da Eskoziako Erresuma. Konkista politikoarekin batera kulturala ere gertatu zen eta gaelera ia lurralde osoan zabaldu zen. Erdi Aroaren amaieran hizkuntza bereizi zen eta orduan sortu ziren gaur egun ezagutzen ditugun bi hizkuntza desberdinak. Mende hauetan lortu zuen bere hedapenik handiena. Hemendik aurrera gaur arte iraun duen etengabeko galera eta atzerakada gertatu da, adar bereko hiru hizkuntzak desagertzeko zorian jarri dituena. Hala ere, Aro Modernoan zehar, Irlandan zein Eskozian izandako gertaera desberdinak direla kausa, pobrezia, goseteak, kanporatzeak, gerrak, ..., milaka irlandar eta eskoziarrek emigratu zuten eta beraien hizkuntza harrera lurraldeetara eraman zuten: AEB, Kanada edota Australia. Gaur egun, estatu hauetan hizkuntza, gutxienez, ezagutzen duten talde txikiak daude.

3.2.- Irlandako egoera soziolinguistikoa.

Legearen arabera, bere egoera XX. mendean zehar asko aldatu da. Eireko Errepublika independente bihurtu zenean, ingelesarekin batera, hizkuntza ofiziala izendatu zen, baita lehentasuna eman ere. Erresuma Batuen barruan jarraitzen duen Ulsterreko konderrietan, hemendik aurrera Ipar Irlanda, ordea, bere egoera gero eta okerragoa izan da 1922tik 1998. urtera arte. Urte honetan, eta Stormont-eko Itunen barruan, hizkuntza ofizialaren egoera aitortu ez bazaio ere, nolabaiteko onarpena, bai eta horrek aginte politikoaren jarreran erabateko aldaketa ekarri du. Gainera, 2001. urtean, Erresuma Batuko Gobernuak Hizkuntza Gutxituen edo Lurraldekoen Europako Ituna sinatu zuen, beste onarpen bat suposatzen duelarik. Azkenean, 2007. urtean Europar Batasunaren onarpen ofiziala lortu zuen.



Onarpen ofizial arloan aurrerapauso nabarmenak eta ukaezinak egin baditu ere, bere erabileran ez du horrelako aurrerapausorik ekarri.

2006. urteko erroldaren⁴ datuen arabera, Eireko errepublikako biztanleriaren %41 da gaelera hiztuna, hau da, Eireko Errepublikako biztanleria osotik, 4.057.646 pertsona, 1.656.790 pertsona inguru. Baina hiztun horietatik guztietatik 453.207k, hots, hiztunen %27,25ek, bakarrik erabiltzen dute hizkuntza egunero Hezkuntza sistemaren barruan, eta soilik 31,605 pertsonak erabiltzen dute hizkuntza bere eguneroko bizimoduan, hots, % 1,90. Jakina, portzentaje hauek askoz txikiagoak izango lirateke Errepublikako biztanleria osoa kontuan hartuko bagenu. Datu esanguratsuagoak ditugu *Gaeltacht*⁵ izeneko eremuei dagozkionak.:

GAELTACHT IZENENKO EREMUEI BURUZKO DATUAK. 2006KO ERROLDAREN ARABERA⁶.

GAELTACHT EREMUA	91.862
GAELERA HIZTUNAK	64.265
EZ-GALEREDUNAK	26.539
ZEHAZTU GABEKO HIZTUNAK	1.058
GAELERADUNEN %	70,8

Egia da, eremu honetan inon baino gaeleradun portzentajerik handiena dagoela, %70,8, baina horrek baditu beste alde txar batzuk. Alde batetik, eremu hauetan bizi diren gaeleradunak, guztietatik oso portzentaje txikia suposatzen dutela, %3,87, beraz, beste gaeleradun guztiak, ia %96 bat ingelesdun itsaso batean murgilduta bizi dira, hizkuntza erabiltzeko oso aukera gutxirekin. Honetaz gain, lurralde berezi hauetan, badago ia %30eko bat hizkuntza ezagutzen ez duena, beraz erabiliko ez duena, eta gaeleradunentzat oztopo izan daitezkeenak beraiek hizkuntza erabil dezaten.

Errolda horrek beste datu mota batzuk ere ematen dizkigu. Hona hemen hiztunen kopuruaren bilakaera historikoa.


GAELTACHT IZENENKO EREMUEI BURUZKO DATUAK. 2006KO ERROLDAREN ARABERA⁷. HIZTUN KOPURUAREN BILAKAERA 1996-2006

⁴Census 2006. *Principal Demographic Results*. Government of Ireland 2007. 33- 34. taulak. 30. orrialdea. <http://www.cso.ie/census/documents/Amended%20Final%20Principal%20Demographic%20Results%202006.pdf>.

⁵ *Gaeltacht*: Geroago ikusi dugunez, Eireko gobernuak ofizialki gaelera lurraldea aitortuko Irlandan zehar sakabanatutako lurraldeak. Teorian behintzat, gaelera inon baino osasuntsuagoa dagoen lurraldeak dira.

⁶ Census 2006.

⁷ Census 2006.



Zer erakusten digute datu hauek? Gobernuaren eginahalak egin, portzentajeak ez direla hobetzen. Egia da hamarkada bat ez dela benetako datu esanguratsua, baina *Gaeltacht* politika XX. mendeko hirugarren hamarkadan hasi zela kontuan hartzen badugu, aitortu behar da porrota nabarmena dela. 8. irudia: *Gaeltachteko gaeleradunen bilakaera azken hiru erroldetan. Jatorria: 2006ko erroldaren datuak.*

9.irudia: *Gaeltacht eremuak Eireko Errepublikan. Jatorria: <http://en.wikipedia.org/wiki/File:Gaeltacht.svg>.*


Eta, zein da egoera Ipar Irlandan? XX. mendeko bilakaera historikoaren ondorioz, 1922tik aurrera, protestanteen, hots, Erresuma Batuen barruan jarraitu nahi izan dutenen eskuetan

egon denez, hizkuntza guztiz da. Horren gaur egungo tamalgarriak erroldatik datuen arabera⁸,


Badaki gaeleraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten eta ulertzen du.	75.125
Badaki gaeraz hitz egiten eta irakurtzen, baina ez daki idazten.	7.183
Badaki gaeleraz hitz egiten baina ez daki irakurtzen eta idazten hizkuntza horretan.	24.536
Ulertzen du gaiera, baina ez daki hitz egiten, idazten ezta irakurtzen ere.	36.479
Hizkuntza gaitasun hauen beste nahaste mota batzuk.	24.167
Ez daki ezer gaeleraz.	1.450.467

hango politika aurkako izan ondorioz, datuak nahiko dira. 2001eko lortutako

GAELERAREN EZAGUTZA IPAR IRLANDAN 2001EKO ERROLDAREN ARABERA. 3 URTETIK GORAKOAK.



01. Theme Tables. [theme_tables.pdf](#).



Líon na nDaoine a bhFuil Cumas ar Ghaeilig acu i gCúige Uladh

Datu haek ere oso esanguratsuak dira. 3 urtetik

gorakoak kontuan harturik, bakarrik biztanleria osoaren %10,35 du nolabaiteko ezagutza, eta bakarrik biztanleria osoaren %4,64 da hiztun osoa, hots, ulertzen eta hitz egiten jakiteaz gain, badaki gaeleraz irakurtzen eta idazten.

10.irudia: Ondoko irudian Ulster osoko gaeleraren ezagutza maila azaltzen duen irudia dugu. Kontuan hartu behar da Ulster historiko osoa sartzen dela, Eireko Errepublikan dagoen parte barne (mendebaldean, berde ilun kolorekoa eta Errepublikako gaelera hiztun portzentajerik handienetarikoa erakusten duen eskualdea. Jatorria: http://en.wikipedia.org/wiki/File:Gaeilig_in_Uladh.jpg

Orain arte eman ditugun datu haek guztiek gaur egungo gaeleraren egoera larria Irlanda osoan argi eta garbi azaltzen digute.

Datu hauei guztiei Britainia Handian, Ameriketean edota Australian bizi diren gaeleraren hiztunak gehitu beharko genituzke.

3.3.- Gaeleraren historia.

Sarreran azaldu dugun bezala, gaelera Irlandara K.a. II. milurtekoan zehar heldu zen eta bertan erabiltzen z(ír)en hizkuntza(k) desagerrarazi zituen. Handik aurrera gaelera izango da nagusi Irlandan XVIII. mendera arte.

Mac Giolla Críost-ek bere ikerketan gaeleraren presentziari hasieratik Erdi Aroaren amaiera arte, hainbat ezaugarri ezartzen dizkio (MAC GIOLLA CHRÍOST, 2005: 63).


- 1.- Epe historiko luze honek jarraipena eta aldaketa oso modu esanguratsuan nahasten ditu.
- 2.- Funtzio erlijiosoaren galera.
- 3.- Aurrekoarekin lotuta, goi mailako talde laiko baten sorrera, gaeleraren kultura guztiz atxikitua eta irlandar gizartean oso eragin handia izan zuena.

4.- Gaelera Erdi Aroko azken urteetan hirietatik kanporatua izan zen, landetako herriaren eta goi mailako hizkuntza bihurturik.

Lau ezaugarri hauek ulertzeko ezinbestekoa da gaeleraren ibilbide historikoa aztertzea. .

3.3.1.- Hasieratik Erdi Aroaren amaiera arte:

Gaeleraren lehen testigantzak Ogham izeneko idazkeraren bitartez ezagutzen ditugu. Testu hauek K. o. 400-600 urte bitartean idatzi ziren, batez ere harrien gainean, *galláin*, gaeleraz, Irlandan, aurkitutako 400 testuetatik 330 inguru bertan agertu dira, eta Britainia Handian. Alfabetoa hogeitaz osatzen dute lau hizkitako bost taldetan banatuta. Bere hedapena ez zen oso zabala izan eta ez dago bat ere argi zein zen bere funtzioa. Testuak oso laburrak dira eta gehienbat izenak azaltzen dituzte. Idazkera hau hizkuntzalariek ezagutzen duten lehen gaelera idazteko balio zuen: paleo-gaelera, alegia.



Zenbait ikerlarik (MAC GIOLLA CHRIOST 2005: 65) idazkera honen agerpena Irlandan gertatutako funtsezko aldaketa batekin lotzen dute, K.o. IV. eta V. mendeetan gertatutako baso soiltze orokorra eta nekazaritzaren garapena, alegia. Honek garai

hartako gizartearen oinarritzko aldaketa suposatzen zuen, tokian finkatzea, alegia; eta aukera zabaldu zuen ordura arte ahozkoa izan zen kultura, idatzizko bihurtzeko. Dena den, ez dugu pentsatu behar idazkera hau gizarte osora zabaldu zenik. Uste denez, apaiz talde bati lotutako idazkera baino ez zen (MAC GIOLLA CHRIOST 2005: 65).

11. irudia: Ogham idazkeraren alfabetoa. Jatorria: <http://es.wikipedia.org/wiki/Archivo:Oghamalfabet.gif>.

Arkeologoek, beraien aldetik, beste berrikuntza batzuen berri ematen digute. Garai honetako zenbait aztarnategietan erromatar jatorri duten hainbat urrezko lepoko latinezko idazkunekin. Honek erromatarren edo erromatar kultura barneratu dutenen presentzia azaltzen du. V. mendean, gainera, kristautzen prozesua hasi zen. Prozesu honek, hizkuntzaren bilakaeraren arloan, beste aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen: paleo-galerak latinari utzi zion lekua goi mailako kultur adierazpide gisa (MAC GIOLLA CHRIOST 2005: 66) eta bere bilakaeran beste etapa batean sartu zen: Gaelera

Zaharra izeneko aldiari eman zitzaion hasiera, Irlandatik Eskoziara zabaltzen zen une berean. Aldi honek X. mendera arte iraun zuen.

Gaelera Zaharraren garai honetan, irlandarrak kristau talde gisa agertzen da, bi hizkuntzatan alfabetatua: latinez eta gaeleraz (MAC GIOLLA CHRIOST 2005: 66), baina lehenago aipatu dugunez, funtzio desberdinekin: kristautze prozesuaren ondorioz nonahi sortu ziren monasterioetan latina oso modu sistematikoa ikasi eta aztertua izan zen Irlandan, honen ondorioz, oso ondo bereiz zitekeen latin mota bat garatu zuten, “hisperiar latina” izenekoa, Irlandatik Europa osotik zehar zabaldu zena, monje horiek VII. eta VIII. mendeetan misio lanetan hasi zirenean. Latina landu zuten monje hauei *fir léighinn* edo “irakurketa-gizonak” deitzen zitzairen. Honekin batera, gaeleraz garatutako kultura zabaldu zen, baina horretarako beharrezkoa izan zen latindar kultura Irlandan hedatzea.

Ordura arte ahozkoa bakarrik zen gaelerazko kultura, idatzizkoa hasi zen bihurtzen VIII. mendetik aurrera. Gaeleraz hezitako talde berri bat sortu zen, *fili* edo *filid* izenekoa. *Filid* hauek, latindar kultura ondo ezagutzen zutenak, poeta taldea osatzen zuten: hizkuntza, legedia, lan historikoak, eta abar landuz. Monasterioetako *scriptorium*-etan lan eginez, XII. mendera arte kultura tradizionala jaso zuten.

Latinez eskolatutako poeta hauekin batera, ahozko kultura baino garatuko ez duten beste poeta mota batzuk ere aurki ditzakegu: *adwall* izenekoak behe mailako nobleziarentzat lan egiten zutenak, *tuathbard* izenekoak jende arruntarentzat, *dul or cáinte* gudari taldeentzat lan egiten zutenak baina Elizak debekatzen zituenak (MAC GIOLLA CHRIOST 2005: 70). Epe honetan, *Táin Bó Cuailgne* (“Cooley-ren abere lapurketa”) bezalako garai aurre-kristautetako kultur lan garrantzitsuek izaera literarioa hartu zuen. *Críth Gablach* bezalako zuzenbide tratatuak garai honetakoak dira. Baina goi mailako kultura, erlijioari lotua, jakina, latinez egiten zen.

IX. mendetik XI. mendera arte, Galera Ertainaren aroa gutxi gora behera, Irlandako gizartea eta bilakaera historikoa aldatuko duen gertaera berri bat hasiko da: Bikingoen inbasioak. Hauen presentziaren lehen testigantza 795ekoa da. Inbasio hauek XI. mendera arte iraun zuten eta epe honetan inbaditzaileak uhartearen zati handi batzuek jabetuko dira. Gure gairi dagokionez, etorri berriek beren hizkuntza ekarri zuten, *dänsk tunga* edo Eskandinavia Zaharra. Hizkuntza honen eragina, batez ere, pertsona izenetan, toponimoetan eta arlo zehatz batzuen hiztegian nabarmentzen da (MAC GIOLLA CHRIOST 2005: 71).

Baina Irlandaren eta, ondorioz, gaeleraren bilakaera behin betiko aldatuko duten gertaera nagusiak XII. mendean jazo ziren: alde batetik, kontinentetik heldutako egitura erlijioso berriak; eta, bestetik anglo-normandiarren inbasioa. Azter ditzagun banan-banan.

1.- Aldaketa Irlandako Elizan: Kontinentean une berean Eliza erreformatzeko egiten ari ziren ahaleginekin bat eginez, Gregorio VII.a Aita Sainduak XI. mendean hasita eta Bernardo Clairvaux-koak jarraitua, Zister ordenaren sorrerarekin, San Malakiasek Irlandan orden berriak erakarri zituen: aipatutako Zisterrez gain, Agustindarrak ere, lehenago, Frantziskotarrak, Dominikarrak eta Karmeldarrak, geroago (MAC GIOLLA CHRIOST 2005: 77). Hauek monakotza eredu berria eraman zuten uhartera bertako tradizioarekin apurtuz. Orden etorri berriek lotuago zeuden Erromako tradizioari eta, une batzuetan hainbat debozio liburuak gaelerara itzuli zuten arren, orokorrean, gaelera baztertzen hasi ziren eta gero eta pisu handiagoa hartu zuen ingelesaren erabilera, latinarekin batera, *anglizazio* prozesu baten bultzatzaile nagusienak bihurtuz (MAC GIOLLA CHRIOST 2005: 77).

Elizan gertatutako aldaketa hauek guztiek gaelerazko literaturaren sekularizazioa ekarri zuen. Prozesu hau ematen ari zen une berean, *fili* (gaeleraz eta latinez eskolatutako idazleak) eta *baird* (gaelerazko ahozko kulturaren poetak) izeneko bi taldek bat bakarra osatu zuten: *aéís dána*, “gaitasun gizonak”, izenekoa ((MAC GIOLLA CHRIOST 2005: 77). Irlanda osoan, eta familia boteretsuen babespean bardo edo koblari eskolak sortu ziren non hizkuntza biak, latina eta gaelera, lantzeaz gain, metrika, zuzenbidea, genealogia eta beste hainbat arlo landu egiten ziren. Beraien prestigioa hain handia izango zen, ezen XIV eta XV. mendeetan noble anglo-normandiar askok ere beraien babespean hartu zituzten. Noble hauekin, eta beraien jatorrizko kulturarekin, izandako harremanen ondorioz, poesia mota berri bat sortu zen: *dánta grádha* izenekoa, bere garapena XVII. mendera arte luzatuko dena. Nolabait esateko estilo berri hau Frantziako hegoaldean sortutako trobadoreen poesiaren irlandar bertsioa izan zen. Poesia honen sorrerak herri hizkuntza goi mailako kultura adierazteko gai zela onartzea suposatu zuen eta horrek gaelerarekiko anglo-normandiar nobleziaren jarreraren aldaketa ekarri zuen. Poeta hauen lanak hizkuntzaren estandarizazioa ekarri zuen, gaelera klasikoa sortuz, eta hizkuntza erabiltzen zen eremu osora, Irlandaz gain Eskoziara eta Manx uhartera, ekarri zuen. Honela *fir dhána* izeneko poeten jarduera Irlandatik kanpo gauzatu ahal izan zen (MAC GIOLLA CHRIOST 2005:79). Koblakari

edo bardoen eskola hauek funtsezkoak izan ziren XVII. mendera arte gaelerazko literaturaren garapenean.

2.- Anglo-normandiarren inbasioa: 1169an Irlandaren bilakaera historikoa behin-betiko aldatuko zuen gertaera jazo zen: irlandarren arteko gatazkak aprobetxatuz, urte honetan normandiar zaldun talde bat Irlandara abiatu zen. Bi urte beranduago, eta 1155 Adriano IV.a Aita Sainduak Enrike II.ari eman zion baimena erabiliz, honek konkista kanpaina antolatua gauzatu zuen. Hurrengo urtean, Alexander III.a Aita Sainduak konkista baieztatu egin zuen eta handik aurrera uharte osoa Ingalaterrako Erregearen subiranotasunaren menpe geratuko da XX. mendera arte.



12.irudia:Irlanda XIII. mendearen amaieran. Berdez dagoena, irlandar buruzagien menpe dauden lurraldeak dira, beste guztia anglo-normandiar nobleziaren menpeko lurraldeak.

Jatorria:

<http://en.wikipedia.org/wiki/File:Www.wesleyjohnston.com-users-ireland-maps-historical-map1300.gif>

Ingalaterrako erregeek Irlanda anglo-normandiar nobleziaren artean banatu bazuten ere, monarkiak izan zuen kontrola ez zen oso eraginkorra izan eta uharteko parte handi batzuk, ondoko irudian ikus daitekeen bezala, bere kontrolpetik kanpo geratu ziren. Izan ere, XIV. eta XV. mendeetan zehar, eta Ingalaterrako erregeek Frantzia etengabeko gerrak

egiten zituzten bitartean, “Ehun Urteko Gerra (1337-1453 edo bestela, Ingalaterra barruko gerra zibilak, “Arrosa Bien Gerra (1455-1485), irlandar nobleziak aukera izan zuen bere boterearen parte handi bat berreskuratzeko ondoko irudiak erakusten duen bezala.

*13. irudia: Irlanda 1450ean. Berdez dagoena irlandar nobleziaren eskuetan dagoen eremua da; morez dagoena anglo-normandiar nobleziaren menpeko lurraldeak, eta gorritz, Hesitegia edo oholesia, **An Pháil** edo **An Pháil Sasanach** irlandera, erregeak zuzenean kontrolatzen zuen eremua. Jatorria: http://es.wikipedia.org/wiki/Archivo:Ireland_1450.png.*

Dena den, konkista honek hizkuntza ikuspegitik garrantzi handia izan zuen. Aurreko mendeetan, bikingoen garaian, kostaldean hainbat merkatal gune sortu ziren. Ezin dugu ahaztu bikingoak batez ere merkataria zirela eta beraien merkatal harremanak Europa ekialderaino eramane zutela. Merkatal gune horietatik hiriak sortu ziren. Hiri horietan, jakina, hizkuntza nagusia beraiena zen. Baina XII. mendean anglo-

normandiarrek heldu zirenean, hizkuntza ordezkapen bat gertatu zen: Eskandinavia Zaharra utzi eta bere lekua ingelesak edo frantsesak hartu zuten. Hiri hauetan gaieraz mintzo zirenak guztiz baztertuak izaten ziren: 1270etako hamarkadako azken urteetan, Cork hiriko biztanleek protesta egin zuten Eduardo I.a erregearen aurrean, gaieraz mintzo zirenak erregearen eta beraien interesen etsaiak zirela esanez (*Hybernica lingua nobis et vestrīs sit inimica*). Handik urte gutxi batzuetara, 1285ean, gobernuaren dokumentu batek gaierazko inor ez zedila gotzain izenda gomendatzen zuen (CROWLEY, 2005: 2). Hirietan, gaieradunak bazeuden ere, beraiantzat propio sortutako auzoetan, *Irish town* izenekoetan, bizitzera behartuta zeuden. Limerick bezalako hirietan auzo hau harresiz inguraturik zegoen eta Kilkenny-n harresia edukitzeaz gain, legedi berezia zuen, hiritik bereizten zuena (MAC GIOLLA CHRIOST 2005:79). Harrigarria badirudi ere, beraien lurraldean gaieraz mintzo ziren irlandarren egoera, garai berean Europan zehar sakabanatuta zeuden judutar ghetthoekin pareka zitekeen.

Gertaera hauek gorabehera, Erdi Aroaren azken mendeetan, gaierak indartsu jarraitzen zuen eta noblezia anglo-normandiarren akulturazioa gertatu zen. Dagoeneko ikusi dugu nola koblakarien poesiak noble hauek erakarri egin zituela eta. Prozesu honen garrantziaz jabetzeko, garai hartan erabilitako esaldi bat gogoratu baino ez dugu egin behar: *Hiberniores Hibernis ipsis* (*Níos Gaelaí ná na Gaeil iad féin*, gaieraz, “Irlandarrak baino irlandarragoak”). Egoera honi aurre egiteko eta ingelesez boterea sendotzeko, 1367an, Kilkennyko Estatutuak izeneko legedia argitara eman zen. Legedi honen helburua ez ziren irlandarrak, anglo-normandiarrek baino (HULL, E. 1931: 6). Legedi honek, gaieradun eta ingelesdunen arteko ezkontzak debekatzeaz gain, ume irlandarrak etxean hartzea edo adoptatzea eta irlandar janzkera eta gaierazko izenak edukitzea ere debekatu zituen. Gainera, anglo-normandiar jatorria edukita ere, ingelesez hitz egiten ez zekiena behartu egiten zuen hizkuntza ikastera, beraien lurrak eta ondasun guztiak galtzeko mehatxupean. Irlandarrei ez zitzaien arazo berezirik beraien hizkuntza erabiltzeko ezta beraien betiko tradizio, ohitura edo legeen arabera bizitzeko. Erdi Aroaren amaieran, beraz, Irlandan ez zegoen ingeles akulturaziorik, alderantziz baino; anglo-normandiarrek ari ziren gaiera kulturara akulturizatzen eta horri eman nahi zioten amaiera Kilkennyko araudi horrekin.(CROWLEY, 2005: 2)⁹.

3.3.2.- XVI. mendetik 1922ra arte.

⁹ Bitxia bada ere, esan beharra dago ingelesaren defentsarako testu hori, testu ofiziala izanik, normandiar frantsesetik idatzita zegoela.

Aurreko puntuan ikusi dugun bezala, argi dago XV. mendearen amaieran gaelera hizkuntza eta kulturak zirela nagusi Irlandako uharte osoan (CROWLEY, 2005: 11), hirietan izan ezik, baina hemen ere galeraren presentzia nabarmena zen. 1495ean, Kilkennyko araudia berretsia izan zen eta 1515eko testu baten arabera, bazirudien jatorriz ingelesak zirenak irlandar bihurtuak zirela.

Egoera, ordea, laster hasi zen aldatzen eta aldaketa hori Enrike VIII.a erregearen eskutik etorri zen. Lehenengo urratsa Erromako Elizarekin haustea izan zen. 1533an eskumikatua izan ondoren, 1534an behin-betiko Aita Sainduarekiko menpekotasuna hautsi eta Ingalaterrako Elizaren Buru bihurtu zen. Hiru urte beranduago, 1537an, Irlandako Parlamentuak Irlandako Eliza Buru izendatu zuen. Honek aro berri bati eman zion hasiera. Enrike VIII.aren asmoak garai bereko errege guztienak bezalakoak ziren: errege boterea handitzea, horretarako egitura politiko zentralizatuagoak garatuz. Horretarako funtsezkoa zen hizkuntza nagusi bat erresuma osoan inposatzea. Honela 1539an, Frantziako Frantzisko I.ak *Villers-Coterets Aginduaren* bitartez, Frantziako erresuma osorako hizkuntza ofizial bakarra frantsesa izendatu zuen. Enrike VIII.ak, 1536an Galwayko hiritarrei bidalitako mezuan, beraien seme-alabak ingeles eskoletara bidaltzera animatzen zituen eta 1537an *Act for the English Order, Habit and Language* (“Ingeles Ordena, Ohitura eta Hizkuntza Legea”) izeneko legea argitaratu zuen (CROWLEY, 2005: 13). Lege horretan bere menpeko guztiak ingeles ohitura eta legeen arabera uniformetu nahi izan zituen; izan ere, hizkuntza eta kultur aniztasunak arazoak baino ez zituela sortzen irizten zion. Hemendik aurrera, gaeleraren erabilera traiziotzat hartuko zen. Bere helburuak lortzeko, lehenago aipatu dugunez, garrantzi berezia eman zion haurren irakaskuntzari, nahiz eta bere asmo horiek ez ziren gauzatu 1831era arte, Eskola Sistema Nazionala sortu zenean.


Baina gatazka nagusia erlijioaren inguruan sortu zen. XVI. mendeko erreformatzaile guztientzat funtsezko ideia zen fededun guztiek zuzenean jaso behar zutela Jaungoikoaren hitz Bibliatik. Horrek, eta ordura arte Elizak izandako jarreraren aurka, Liburu Saindua herriaren hizkerara itzuli behar zen, eta berarekin batera sinesmenarekin lotuta egon zitezkeen beste testu mota guztiak, otoitz liburuak, dotrinak, elizkizunak, kantuak, eta abar. Ingalaterrako erreformatzaileei honek funtsezko arazoak sortu zien. Liburu sainduak ingelesera itzultzen zituztenean, Irlandan ez ziren baliagarri; bertako biztanleria ia osoa gaeleradun elebakarra baitzen. Arazo honek egoera bitxi bat sortu zuen, Irlandan ez zegoen, ez testu erlijiosorik ezta gaelera zekien elizgizonik ere, orduan Irlandako Parlamentuak arazoari konponbidea bilatu nahian, baimen berezia

eskatu zuen gaiera nagusi zen eremuetan, ia uharte osoan beraz, Erromako Elizaren hizkuntza ofiziala, latina, erabiltzeko aukera eta hori bera onartu zuen Henrikeren alabak, Elisabet I.ak, 1559an, Uniformetasun Legearen bitartez.

Dena den, Irlanda erreformatzaileentzat misio eremu bihurtu zen eta uharteko biztanleria Erreformara erakartzeko asmoz, 1567an John Carswell-eki argitaratu zuen lehen liburu inprimatua gaieraz *Foirm na nUrrnuidheadh*, Edinburg-en eta gaiera estandarrean, beraz Eskoziarako ez ezik Irlandarako ere, John Knox-en “Orden Arruntaren Liburua” itzulpena. Urte batzuk beranduago, 1571an, Seán Ó Cearnaigh-ek (John Kearney’s) *Aibidil Gaoidheilge agus Caiticiosma* izeneko liburua argitaratu zuen, hau ere, jatorriz ingelesez argitaratutako otoitz liburu baten itzulpena. Oraindik beste berrogei urte beharko dira lehen liburu katoliko gaieraz inprimaturik argitaratzeko (McCOY, 2009, 7). Elisabet I.a erreginaren erregealdian, 1592an, Dublinen Irlandako lehen unibertsitatea sortu zen, *Trinity College* izeneko ikastegia, alegia. Erreginaren asmoa bere bitartez Erreforma uhartetik zehar zabaltzea izan zen (McCOY, 2009, 7).

Ingalaterrako monarkiaren politikak laster lortu zuen lehen arrakasta. Hasiera batean Conn Bacach mac Cuinn Ó Néill-ek, Ó Neill leinuko buruak, Henrike VIII.aren aginduak bete ez arren, 1541ean bere lurraldea inbaditua ikusi ondoren, erregearen nagusitasuna onartu zuen, erreformatu bihurtu zen eta hizkuntza eta bizimodua “ingelestu” egin zuen, baita izena ere, Conn O’Neill izango da handik aurrera. O’Neill izan zen lehena denboran zehar Irlandak askok egingo duten bidean. Bere leialtasuna saritzeko Enrike VIII.ak Tyrone-ko lehen konde izendatu zuen. Aldaketa honek Irlandan izugarritzko oihartzuna izan zuen (CROWLEY, 2005: 19).

Baina goi mailako nobleziaren parte bat Ingalaterraren, bere erlijio berriaren eta ingelesaren alde jartzen hasi bazen, beste buruzagi batzuk monarkia berriaren aurka altxatzen hasi ziren. Lehenengo matxinadak XVI. mendean gertatu ziren: lehena 1534 eta 1537 bitartean Thomas FitzGerald-ek, Kildare-ko 10. Kondeak, *Silken Thomas*, ingelesez, *Tomás an tSíoda*, gaieraz deitua, burutua; baina askoz esanguratsuagoak izan ziren 1569-1573 eta 1579-1583 bitartean Munster lurraldean gertatutako Desmond matxinadak. Elisabet I.aren aurka izandako matxinada hauek berehalako ondorioak ekarri zituen. Elisabet I.ak ondo ulertu zuen matxinada horiek suposa zezaketen arriskua bere interesetarako, Irlandan bertan ez ezik, Espainiako Filipe II.aren aurkako borrokan. Izan ere, eta geroago hori frogaturik geratuko da, matxinatuek Espainiako erregearengan



aliatu ezin hobea aurki zezaketen. Hori guztia zela eta, Elisabet I.ak, uhartea kontrolatzeko asmoz, Britainia Handian jatorria zutenekin kolonizazio prozesu bat ekin zion: “*The Plantations*”, ingelesez, edo *Plandálacha na hÉireann*, gaieraz, hitzez hitz, “landaketak”, baina bere benetako esanahia Irlandako uhartean Britainia Handitik jende protestantea ekartzea eta kokatzea besterik ez zen. 1556-1576 bitarte horretan, lehenengo saioak egin baziren ere, benetako lehenengo “landaketa” 1586tik aurrera hasi zen egiten Munsterren bertan Desmond matxinaden ondoren eta

zigor gisa.

14. irudia: Irudi honetan XVI. mendean zehar eta XVII. mendearen hasieran Irlandan eginiko kolonizazioen mapa agertzen da. Kolore arrek edo marroiek, argiagoa eta ilunagoa Maria I.a eta Elisabet I.aren garaian eginikoak dira; gorriak, argiagoa edo ilunagoa Jakue I.aren garaian eta laranja itxurako hori kolonizazio pribatuak izan ziren. Jatorria:

http://en.wikipedia.org/wiki/File:Plantations_in_Ireland.png.

Askoz larriagoa izan zen Elisabet I.aren azken urteetan gidaturiko Aodh Mór Ó Néill, Hugo O’Neill Handia, Tyrone-ko bigarren Kondeak buruturiko matxinada: “Bederatzi Urteko Gerra”, 1594-1603. Gerra honen amaieran, lortutako bakea matxinatuen aldekoa izan zela esan daiteke, baina, gerrarekin jarraitzeko asmoz, matxinadaren buruak lurralde katolikoetara, Espainiara eta Frantziara batez ere, egin zuten bidaiak hondamendia izan zen beraiantzat eta Irlanda gaelikoarentzat. Kanpoan ziren bitartean, beraien ondasunez, batez ere lurrez, desjabetuak izan ziren, eta aukera eman zioten monarkiari kolonizazio berri eta handi bati ekiteko, Ulsterren batez ere.

Kolonizazio hauek bi motatakoak izan ziren. Ulster eta Munster-reko kolonizazioak gobernuak berak antolatu zituen, batez ere Elisabet I.a eta Jakue I.aren garaian; beste batzuk, ordea, ekimen pribatuak izan ziren, gobernuak bultzatuta, eta, batez ere, Ulsterren egin ziren. XVII. mendearen erdialderako, 22.000 ingeles inguru ziren kokatuta Munsterren eta beste 15.000 ingeles eta eskoziar inguru Ulsterren (MAC GIOLLA CHRIOST 2005:85). Azken lurralde honetan kokatutako eskoziar gehienak presbiterianoak ziren, ingelesak, gehien bat anglikanoak ziren bitartean. Hizkuntzaren

ikuspegitik aztertuta, kolono hauen etorrerak Irlandan ingelesaren berriz sartzea ekarri zuen, kontuan izanda Erdi Aroan heldutako anglo-normandiarrak orduko guztiz bertakotuak eta asimilatuak zeudela.

Baina Irlandarentzat, bere herriarentzat eta bere kulturarentzat askoz ondorio kaltegarriagoak ekarri zituzten XVII. mendean bertan gertatutako beste bi gerrak. Lehena 1641ean hasi zen Irlandako buruzagi katolikoak, Ingalaterrako Gerra Zibila aprobetxatuz, matxinatu zirenean. Matxinada honek gerra bati eman zion hasiera “Hamaika Urteko Gerra”, 1641-1653. Azkenean, Oliver Cromwell-ek, Ingalaterrako *Common Wealth*-eko Lord Babesleak, garaipena lortu zuen Gerra honen ondorioak izugarriak izan ziren Irlandarentzat. Alde batetik galera demografikoak itzelezkoak izan ziren, zenbait kalkuluren arabera, biztanleriaren % 15 inguru hil zuten gerran eginiko sarrasketan, batez ere, Cromwellen armadak eginak. Honek beste kultura arloan bere biziko garrantzia izan zuten. Gerrak Erdi Aroan sortutako buruzagitza egituren amaiera ekarri zuen. Buruzagitza horiek desagerturik, beraien sostengatzen zituzten bardo edo koblakari eskolak ere desagertu ziren eta beraiekin ordura arte hizkuntza eta kultura gaelikoaren sostengu nagusiak izan zirenak. Hemendik aurrera, hasi zela gaeleraren atzerakada esan daiteke. Gainera, matxinatutako katolikoak beren ondasunez desjabetuak izan ziren. Herri katoliko gaeleraduna oinarri ekonomiko gabe geratu zen.

Prozesua, ordea, hasi baino ez zen izan. 1688an, Ingalaterran “Iraultza Loriatsua” gertatu zen. Honek Jakue II.a erorazi ekarri zuen eta Koroa Maria II.aren eskuetara pasatu zen, Monarkia Parlamentarioaren aroaren hasiera ekarriz. Jakue II.ak, ordea, jarraitzaile sutsuak zituen bai Eskozian, bere familiaren jatorria, zein Irlandan. Bi lurralde hauek matxinatu egin ziren eta matxinada horiek zapaltzeaz Mariaren senarra, Gillermo Orangeko, arduratu zen. Azkenean, eta beste gerra anker baten ondoren, garaipena lortu zuen, gaur egun oraindik, Ipar Irlandako protestanteek udako ibilaldietan ospatzen dutena. Gerra honek Cromwellen garaian hasitako prozesuari amaiera eman zion. Parlamentua protestanteen eskuetan egonik, hemendik aurrera katolikoek aurkako hainbat lege atera zituen: *Na Péindlíthe*, gaeleraz, edo “Zigor Legeak”. Egia esanda, lege hauen xedea ez ziren katolikoak bakarrik, baizik eta eliza ofizialarekin bat ez zetozen guztien aurka, baita beste adar protestanteetako kideak ere. Dena den, eraginik handiena katolikoek artean izan zuen. Hona hemen, zigor lege hauen hainbat atal:

- Katolikoak ogibide publikoetatik kanporatuak izan ziren.

- Katoliko eta protestanteen arteko ezkontzak debekatuak geratu ziren.
- Debekatu egin zitzairen katolikoei armak erabiltzea edo soldaduska egitea.
- Katolikoei debekatu zitzairen Irlandako eta Ingalaterrako parlamentuetan sartzea.
- Katolikoei boto eskubidea ukatu egiten zitzairen.
- Katolikoei ukatu egiten zitzairen zuzenbide lanetan, abokatu zein epaile gisa.
- Katolikoei debekatu egiten zitzairen uhartetik kanpo irtetea ikastera.
- Katolikoei debekatu egiten zitzairen Dublingo *Trinity College*-n sartzea.
- Lurjabe katoliko baten lurrak bere seme guztien artean banatuko ziren. Baina seme nagusi protestante bihurtzen bazen, orduan bera izan zitekeen lur guztien jabe eta beste semeei uzten zekiekena ezin zen jabetza osoaren herena baino handiagoa. Lege honen ondorioz, nekazari katoliko gehienek beren lurrak galdu zituzten ondoko taulak azaltzen duen bezala.

URTEAK	LUR PROPORZIOA KATOLIKOEN ESKUETAN
1688	%25
1704	%14
1776	%5

Iturria: http://en.wikipedia.org/wiki/Popery_Act.

- Protestantismotik katolizismora pasatzeko debekua. Eginez gero, ondasunik gabe geratu eta hauek erregearen eskuetara pasatuko ziren.
- Katolikoei debekatu zitzairen lurrak erostea, 31 urteko maiztergoa pasatu gabe.
- Katolikoei debekatu zitzairen protestanteen lurrak ondorengotza moduan hartzea.
- Katolikoei eskola publikoetan zein pribatuetan eskola ematea debekatzea

Lege hauen helburua katolikoak gizarteko bigarren maila batean kokatzea zen edo bestela protestante bihurtzea. Kutur ikuspegi batetik, gaieraz adierazten zen kultura osoa erabat suntsituta geratu zen, inolako babes sozialik gabe.

Dena den, ezin dugu pentsatu kultura gaelikoaren suntsipena egun batetik bestera gertatu zenik, ezta inondik ere. Eliza Katolikoak hizkuntza nagusitzat latina hartzen zuen bitartean, jendearen aurreko predikazioak, jakina, gaieraz zen, adar desberdinetako adar protestanteek Irlanda eta irlandarrak Erreformara erakartzeko helburuekin testu erlijiosoak gaieraz argitaratzen jarraitu zuten. Robert Boyle-k eta John Richardson-ek XVII. mendeko bigarren erdialdean ahalegin bereziak egin zituzten

katolikoak Irlandako Elizara, Anglikanora, erakartzeko, horretarako gaelerazko testuak erabiliz. Dena den, erreformatuen artean, horren aurkako lehen ahotsak hasi ziren altxatzen. Crowley-k jasotzen duen moduan (CROWLEY, 2005:69-70), E. Nicholson izeneko apez erreformatu batek arrazoi hauek ematen zituen itzulpen hauen aurka:

- 1- Apaiz katolikoek beren jendearen gainean zeukaten kontrol itogarria.
- 2- Beharrezkoa zen gaelera eta ingelesaren arteko bereiztea
- 3- Ingelesa hedatzen ari zen.
- 4- Eraginkorragoa zen umeak zuzenean Protestantismoan eta Ingelesez hezte.

Lau arrazoi hauetatik azken biak oso adierazgarriak iruditzen zaizkit. Alde batetik, ingelesa hedatzen ari zela gauza nabarmena izaten ari zen; bestetik, zuzenean, ingelesez hezteari ekin behar zitzaion, gaelerari inolako heziketa edo hezkuntza funtziorik ukatuz. Hauxe izango da hemendik aurrera Irlandan protestanteen, baina baita katolikoaren artean, nagusitzen hasiko den ideia.

XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mendearen hasieran, funtsezko aldaketak ekarri zizkion egoera honi. Estatu Batuen independentzia gerra eta Frantziako Iraultzak irlandar askoren askatasun ametsa areagotu egin zuten katoliko, baina batez ere presbiterianoaren artean. Azken hauek estatubatuarrekin harreman estuak zituzten, arrazoi erlijiosoak zirela medio. Beraz Ameriketara gertatutakoak beraiengan eragin berezia izan zuen eta hortik 90eko hamarkadaren hasieran *Society of United Irishmen* (“Irlandar Gizon Batuen Elkarte”) sortu zuten. Hasiera batean, Zigor Legeen abolizio partzialaren alde borrokatu bazuten, 1798an matxinada orokorra aldarrikatu zuten. Frantziako iraultzaileen laguntza izan bazuten ere, oso epe laburrean Gobernuak menperatu egin zuen. Matxinada honen ondorioz zuzenena Irlandako Parlamentuaren desagertzea eta Irlanda Erresuma Batuan sartzea izan zen, 1800ean eginiko *Act of Union* (“Batasunaren Legea”) izeneko legearen bitartez. Honen ondorioz, 1801eko urtarrilaren 1ean Britainia Handiko eta Irlandako Erresuma Batua sortu zen. Honek, bere aldetik, areagotu egin zuen gaineratik ingelesera pasatzeko martxa. Hemendik aurrera, aurreko mendean sortutako ideia nagusitzen hasi zen: gaelera iraganaren hizkuntza zela, modernitatearena, oster, ingelesa (Ó TUATHAIG, 2005: 42).

Dena den, XIX. mendearen hasierako egoera soziolinguistikoa Irlandak, oraindik, gaeleraren aldekoa zen. Zenbait kalkuluren arabera, 1800 urte inguruan, 2

milioi pertsona inguru gaeleradun elebakarrak ziren; 1,5 milioi gaelera-ingelesa elebidunak, eta beste 1,5 milioi ingelesdun elebakarrak (Ó TUATHAIG, 2005: 43).

Beste aldetik, eta *Society of United Irishmen* elkartearen porrota gorabehera, Europan sortzen ari ziren ideia berrien ildotik Irlandan egoera aldatzen hasia zen. Lehenago aipatu dugunez, XVIII. mendean hasi ziren Zigor Legeak ezarritako mugak desagertzearen aurkako kanpainak; izan ere, lege horiek ia guztiak 1778-1869 bitartean desagertu ziren. Honekin batera, Frantziako Iraultzaren ideiak, momentuz behintzat, Vienako Biltzarretan (1814-1815) lurperatuak izan baziren ere, beraien arrastoa utzi zuten eta Erromantizismoarekin bat egin zuten. 1760an Seumas Mac a' Phearsain edo Seumas MacMhuirich (James MacPherson, ingelesez) eskoziar poetak Eskoziako lurralde gaelikoetan bildutako poesietan oinarriturik, *Fiannaidheacht*, gaur egungo gaeleraz *Fiannaíocht*, edo Ossindar zikloa idatzi eta argitaratu zuen, jatorrizko hizkuntzatik itzulpena egin izan balitz bezala, beste modu batez esanda, iruzurra eginez. Argitalpen honek jakin min handia piztu zuen Europa osoan kultura zeltikoarekiko, Irlandan ere, batez ere, goi mailako noblezia anglikanoaren artean. Noblezia honek bere burua aro mitologikoko heroiekin identifikatu zuen, honela irlandarren gaineko lidergoa indartu nahian (McCOY, 2009, 30). Gainera iragan mitiko horrek Katolikoa ez zen Irlanda bat zekarren gogora, beraz Irlanda eta katolikotasun eskema horretatik kanpo izan zitekeen Irlanda bat. Ez da harritzekoa, beraz, talde sozial hauek iraganaren inguruko jakin min horren testuinguruan gaelerari, ordura arte ukatutako balioa ematen hastea. Mugimendu Erromantikoak gaeleraren estatusa igo egin zuen, nekazarien hizkuntza izatetik, kultura hizkuntza izateraino (McCOY, 2009, 31).

Honela, 1818an Irlandako Elizako zenbait kidek *Irish Society for Promoting the Education of the Native Irish through the Medium of their Own Language*, laburrago *The Irish Society*, “Irlandar Elkarte”, sortu zuten. Bere izen osoak ondo adierazten duen moduan, beraien helburua irlandarren hezkuntza gaeleraz garatzea zen. Lehenengo aldiz, XVII. mendetik aurrera, gaelerari kultur funtzioa aitortzen zaio. Printzipioz, Elkarteak desberdintasun erlijiosoak alboratu egin zituen, eta bere lanerako irakasle katolikoak kontratu zituen, nahiz eta ikuskariak protestanteak izan (McCOY, 2009, 11).

Elkarteak Irlanda osoan karitatezko eskolak eraiki zituen, goi mailako noblezia anglikanoaren laguntza ekonomikorekin. Horrek, zenbait lurraldetan katolikoek kontrako jarrera bortitzak ekarri zituen (McCOY, 2009, 13). Katolikoek protestek

governua ikuskaritza zerbitzua osatzera bultzatu zuten. Horrek ez zuen, ordea, arazo berezirik ekarri eta Elkarateak ekimen berri bati ekin zion, oraindik ausartagoa: eremu gaeleradunetan kolonia protestanteak sortzea, alegia.

Beste aldetik, eta Ulsterreko mugimendu kulturalaren barruan, 1830ean Downshire-ko markesak gaelera lantzeko elkarte baten patroia izatea onartu zuen: *Ulster Gaelic Society/ Cuideacht Gaoidhlighe Uladh* (“Ulsterreko Elkarte Gaelikoa”, alegia). Elkarte hau, batez ere presbiterianoz osatua, testuak biltzeari eta gaelera ikasteko eskolak emateari ekin zion. Bere jarduerekin geroago etorriko den Pizkundearen aitzindaria izan zen.

Gain-begirada azkar bat eginez, XIX. mendeko lehen erdiak gaeleraren alde jokatu zuela esan daiteke. Baina errealitatea beste bidetik joan zen. XVIII. mende amaieran antzematen ziren ezaugarriak, mendean zehar areagotu egin ziren. Ó TUATHAIG-en hitzetan (Ó TUATHAIG, 2005: 43) gaeleraren uzte orokorra oso gertaera historiko azpimarragarria da irlandar kulturaren historian. XIX. mendean zehar gaeleradun kopurua haziz joan zen 1845era arte, horren arrazoi nagusia soziologikoa eta demografikoa da: gaeleradunak ziren Irlandako gizarteko txiroenak eta hauek ziren ume kopururik handiena zeukatenak (Ó TUATHAIG, 2005: 43).

Baina, orduan, zergatik gaeleraren gainbehera? Ez da erraza azaltzea. Atzerapena XVII. mendean hasi zen (BUTTNER, 2004, 1), baina bere bilakaeraren inguruko ikerketek erakusten dutenez, galera hori XIX. mendearen hasieran benetan hasi zen areagotzen. Hainbat ikerketaren arabera, bere erabilera eta ezagutza asko murriztu zen 1800-1830 bitartean, Ulsterren zein Leinsterren eta mendebaldean eta hegoaldean oraindik indartsu eusten bazion ere, bere erabilera poliki-poliki gutxitzen hasia zen (BUTTNER, 2004, 1). Hori da gertaera, baina ez dugu gertaera horren arrazoi edo kausarik eman. Hasiera puntutzat har dezakegun ideia nagusia hau da: XVII. mendetik aurrera Irlandan kultura hizkuntza bakarra, latinarekin batera, Eliza Katolikoaren baitan, ingelesa zen eta bera zen goi mailetako kideek erabiltzen zutena. Ingelesez mintzo ziren 1798an matxinatu ziren Irlandar Elkarteko kideak, eta berauek hartzen dira irlandar abertzaletasunaren aitzindaritzat. Eta ingelesaren alde egiten zuen Dónal Ó Conaill-ek (Daniel O’Connell, ingelesez), irlandar katolikoek buruzagia katolikoek eskubideen defentsan, bera gaeleraduna izan arren. Bere bizitza politiko guztian berak eta berak gidatzen zuen mugimenduaren propaganda osoa ingelesez

egiten zen. Ó Tuathaigen hitzetan (Ó TUATHAIG, 2005: 44) Ó Connaillek une hartan garatzen ari zen burgesia katoliko ertainaren planteamenduak jasotzen zituen. Talde sozial honek, Erromantizismoaren giroaren barruan, Irlandaren iragana goraipatu egiten zuen eta identitate nazionala eraikitzeke oinarritzat hartzen zuen, erlijio katolikoarekin batera, baina horrek ez zuen suposatzen inolako benetako kezkarik hizkuntzari dagokionez. Nazio identitatea garatzeko, Erresuma Batuak suposatzen zuenari aurre egiteko, burgesia horrek bazituen beharrezko ezaugarriak: Historia eta Erlijio Katolikoa. Hortik aurrera, hizkuntza bigarren maila zegoen. Ó Cainailentzat, eta berak ordezkatzan zuen talde sozialarentzat gaelera mundu atzeratu baten hizkuntza zen, ingelesa, ordea, modernitatearena; eta hizkuntza aniztasuna, Bibliaren arabera, zigorra. Bere ikuspegitik, irlandar nazionalitatea osatzeko eta sendotzeko askoz eraginkorra zen Katolizismoa gaelera baino (PRITCHARD, 2004:7). Irlandako elite sozialaren portaera hau ulertzeko, oso adierazgarriak dira Stephen Barbour-rek (BARBOUR, 2000: 19) Erresuma Batuko eliteen inguruan egiten dituen gogoetak. Bere oinarritzko planteamendua oinarritzko ideia honetan laburbiltzen da: XVII. mendetik aurrera, *Commonwealth*-en porrotaren ondoren, sortu zen eliteak berezko ezaugarriak zituen: gizonezko ingeles eleduna, Eliza Anglikanoko kidea, lurjabe handia eta jabetza mota honen inguruan berezko ideologia garatuko zuena, “*country gentlemen*”-arena, “landako zaldunarena”, alegia, XIX. mendetik aurrera eskola, *Public Schools* izeneko ikastetxe berezi batzuetan heziketa jasoko zutenak, gero Oxford edota Cambridgera joateko, non ingelesa ahoskatzeko modu berezi bat ikasiko zutena, oso prestigio handikoa eta bere maila sozialaren ikurra: *Received Pronunciation*, “ahoskera onartua”, izenekoa. Ezaugarri hautetatik bat edo beste falta izanez gero, bigarren maila batean kokaturik gelditzen ziren: ingelesa ez zekitenak, ingeles ez-estandarizatua erabiltzen zuten ingelesdunak, ahoskera egokia ez zutenak, katolikoak, anglikanoak ez ziren beste mota guztietako protestanteak, kristauak ez ziren bete erlijioetako kideak, lurjabe txikiak, lurrik gabekoak, heziketarik gabekoak edo prestigiorik gabeko eskoletan ikasitakoak, horiek guztiak gizarteko maila batean kokaturik geratzen ziren. Irlandako elite sozialak planteamendu hauek beretzat hartu zituen eta mugimendu abertzalea sortu zenean, britainiarrekiko menpekotasunetik askatzeko mugimendua izan zen arren, horrek ez du esanahi mugimendu hori sortu zuten horiek balore horiek guztiak edo gehienak konpartitzen ez zituztenik, are gehiago Ó Conaill bezalako buruzagiek bere egin zuten balore sistema hori eta horrek azaltzen du galerarekiko mespretxua edo

axolagabekeria, kasu batzuetan hurrengo belaunaldietan, abertzaletasuna indartzen zen bitartean, aldatuko dutenak, baina funtsean gaur arte mantenduko direnak.


Planteamendu hauek 1840tik aurrera hasi ziren aldatzen, mende honetako 30. hamarkadaren amaieran eta *The Nation*, ikus daitekeenez, ingelesez, egunkariaren inguruan *Young Ireland*, “Irlanda Gaztea”, elkarte sortu zenean. Elkarte honetako kideek planteamendu berri bati ekin zioten eta planteamendu horretan lekua eman zioten hizkuntzari, batez ere Thomas Davis-ek. Hau protestantea bazen ere, katolikoekin bat egin nahi zuen irlandar nazioa egiteko eta oinarritzat hizkuntza hartu zuen, desberdintasun erlijiosoak gaindituz. Dena den, elkarte honen eragina kultur arloan nahiko mugatua izan zen.

Eliza Katolikoak, beste arlo batzuetan, Irlandan hain eragin handia izan zuenak, ezer gutxi egin zuen gaeleraren alde. Bere jardueretako goi mailako hizkuntza latina zen eta, jende arruntaren aurrean, predikuetan gaiera erabiltzen bazen ere, oso gutxi egin zuen hizkuntzaren garapenean, askotan hizkuntza aldaketa ere bultzatu zuten, eta bere alde egitekotan, beti eliza protestanteen proselitismoari aurre egiteko (McCOY, 2009, 16). Gainera, kultura gaelikoaren berpizkundean protestanteek zuten protagonismoa ikusita, hizkuntza eta kulturarekiko urruntasuna handiagotu egin zen; izan ere, Eliza Katolikoa bere kontrolpetik kanpoko Irlanda gaelikoaren beldur zen (PRITCHARD, 2004, 3). Eliza Katolikoaren gaelerarekiko jarrera epel hori areagotu egin zen bere burua misiolari ikusi zuenean, batez ere ingelesez hitz egiten zen lurraldeetan, AEB, Kanadan, Australian, Zeelanda Berrian, ...; izan ere, horra joaten baitziren Irlandatik joandako migratzaileak (Ó TUATHAIG, 2005: 45). Dena den, 1900erako Eliza Katolikoak Liga Gaelikoaren jardueri eman zienean, hizkuntza behin betiko nazio identitatearen oinarritzat onartua izan zen (PRITCHARD, 2004, 3).

Britainiar Estatuak, bere aldetik, printzipioz ez zuen ez alde ez aurka, baina Irlanda elebiduna izanik, bakarrik ingelesez funtzionatzen zuen. Gainera, 1831ean, Irakaskuntza Nazionala sortu zuenean, eskoletan erabiltzen eta irakasten zen hizkuntza bakarria ingelesa zen. XIX. mendea, beste aldetik, estatuaren garapenaren mendea izan zen, hots, estatuak gero eta eginkizun gehiago hartu zuen bere gain eta hiritar bakoitzarengandik gero eta hurbilago agertu zen. Honek, irlandar jendearen artean, modernitatea eta ingelesa identifikatzera bultzatu zuen, ingelesa gizartean hobetzeko ezinbesteko baldintza bizi izateraino. Honen ondorioz, gero eta jende gehiagok, batez

ere hirietan, gaelera utzi eta ingelesa hasi zen erabiltzen eta beren seme-alabei hauxe zen irakasten zieten hizkuntza bakarra.

Baina galerarentzat benetan kolpe latza izan zena, 1845-1852 urte bitartean gertatutako “Gosete Handia”, *an Gorta Mór*, “Gosete Handia”, galeraz, edota *an*



Drochshaol, “Bizitza Txarra”, gaeleraz. Goseteak Irlandan ez ziren hain gauza arraroa. Mende bat lehenago, 1740-1741 bitartean, beste bat gertatu zen, Erregimen Zaharreko jarrera demografiko arruntaren barruan, eta XIX. mendean bertan, geroago, 1879an beste bat izan zen. Baina horietariko batek ere ez zuen izan Gosete Handia izeneko horrek izan zuen eragina. Kausak nahiko ezagunak dira, urte batzuetako oso uzta txarrak, batez ere patataren ekoizpenean, bera bihurtu zen jende arruntaren ohiko janari, eta britainiar gobernuaren politika okerra, gosetearen unerik latzenean ere, Irlandak Britainia Handiari janari esportatzen jarraitzen zion, hondamendi demografikoa eragin zuen.

15. irudia: Grafiko honetan Gosete Handiaren eragina Irlandako bilakaera demografikoan ageri geratzen da. Jatorria: <http://en.wikipedia.org/wiki/File:IrelandEuropePopulation1750.PNG>.

Biztanleriaren galera 1841–51 (%)

Leinster	Munster	Ulster	Connaught	Ireland
15.3	22.5	15.7	28.8	20

Joe Lee, *The Modernisation of Irish Society* (Gill History of Ireland Series No.10) p. 2
Iturria: http://en.wikipedia.org/wiki/Great_Famine_%28Ireland%29.

Goiko taulan zelako galerak ekarri zituen Gosete Handiak Irlandako lurralde desberdinetan ikus daitezke.

Galera demografikoa uharte osoan oso handia izan bazen ere, ez zen modu uniformearen gertatu. Goiko taulan eta ondoko mapan argi ikus daitekeenez, gosetearen ondorioak gehien pairatu zituzten lurraldeak gaelera nagusi eta indartsu zegoen lurraldeak izan ziren. Kontrakoa gertatu zen erabat *anglizatuta* zeuden hirietan, Dublin, Belfast eta Cork, mapan berdez, beraz, hondamendi honen erdian hazkunde demografikoa izan zuten gune bakarrak. Hildakoez gain, gosete honek beste ondorio bat izan zuen: migrazioak. 1854rako, 1,5-2 milioi irlandarrek emigratu egin zuten, batez ere AEBetara, Kanadara edo Australiara, eta, jakina migrazioak, batez ere, gaelera nagusi zen eskualdeetan kolpatu zuen. Beraz, eremu hauetan kolpe demografikoa bikoitza izan zen: goseteak eragindako heriotzak eta migrazioak.


16. irudia: Gosete Handiaren galera demografikoak Irlandan konderrika Jatorria:

http://en.wikipedia.org/wiki/File:Ireland_population_change_1841_1851.png.


Honen guztiaren ondorioz, eta 1840. urte inguruan gaeleradun kopurua 3 milioi pertsonatara heltzen zela suposa badezakegu, gosete ondoko erroldek kopuru hori 1,5 milioiraino jaisten zuen, erdiraino beraz, baina okerreana zen kopuru horrek biztanleria osoaren %25a baino ez zela (Ó TUATHAIG, 2005: 43). Baina Gosete Handiak gaelerari egin zion kaltea ez zen heriotzek eta migrazioek eginikoa bakarrik, baizik eta epe luzean askoz eragin sakonagoa izango duena. Beren burua miseria gorrian ikusi zuten nekazariak eta txiroek, handik aurrera egoera horretatik ateratzeko edo berriz ez erortzeko ingelesean ikusi zuten heldulekua. Ingelesa izango zen eta ez gaelera lagunduko ziena. Honela, askok etxean gaelera erabiltzeari utzi eta ingelesaren aldeko apustua egin zuten beraientzat, baina, batez ere, beren seme-alabentzat. Hemendik aurrera guraso asko izango dira berauentzat ingeles eskolak eskatuko dituztenak. Jende honen artean, une honetan erabileraren sostengu nagusia zirenak, gaelera saihestu beharreko oztopoa baino ez da ezingo.

Galera horrek gaeleraren inguruko kezka piztu zuen, eta kezka horretatik 1893an, Eoin Mac Néill-en, Eoin MacNeill, ingelesez, ekimenez eta Dubhghlas de hÍde-ren (Douglas Hyde, ingelesez) gidaritzapean, gutxiengo protestantearen kidea, *Conradh na Gaeilg* ("Liga

Population Fall in Ireland 1841-1851



Gaelikoa”) izeneko elkarte sortu zen. Elkarte honen sorrera testuinguru zabalago baten barruan kokatu behar dugu. Dagoeneko azaldu dugu XVIII. mendeko Ossian zikloko kondairen argitalpenak izan zuen eragina. Eragin hori, Erromantizismoaren eraginez, areagotu egin zen XIX. mendean eta mundu zelta osoa hartzen zuten eremu guztietan zabaldu zen: Irlandaz gain, Eskozia, Cymru (Gales), Britainia, Kornualles, ... Mende honen amaieran, kultura zelta puri-purian zegoen, gaelera inoiz baino atzerakada handiagoa



pairatzen ari zen une berean, Irlandan zein Eskozian. Kontraesan horren barruan kokatu behar dugu Ligaren sorrera eta garapena. Une honetarako, gainera, Irlandako eliza protestante guztiek amore emana zuten irlandarrak Erreformara ekartzeko asmo horretan: orduko irlandar nazionalitatea eta katolizismoa burdinazko loturaren bidez lotuta agertzen ziren, lehenengo autonomia zabala, *Home Rule* izeneko sistema autonomoaren aldeko borrokan, zein, zuzenean, independentziaren arteko borroka. Handik aurrera, protestanteek gaelera, katolizismo eta nazionalismoarekin lotu egin zituzten, eta ordura arte hain modu eraginkorrean gaeleraren alde aritutakoak “etsai” bihurtu ziren; izan ere, beraiek protestanteak ziren eta Erresuma Batuen barruan jarraitu nahi zuten eta edozein motatako autonomiaren, eta zer esanik ez independentziaren aurka gero eta modu bortitzagoan agertu ziren.

17. irudia: Gaeleraren eremua 1871ean. Atzerakada nabarmena da. Urte honetarako bakarrik zen nagusi uharterean mendebaldean eta hegoaldean, eremurik txiroenak, atzeratuenak eta despulatuenak. Jatorria: <http://en.wikipedia.org/wiki/File:Irishin1871.jpg>.

Testuinguru honetan ulertu behar dugu Ligaren hasierako planteamenduak. Dubhghlas de hÍderen asmo nagusia, hizkuntzan eta kulturaren oinarritutako irlandar nazionalitatearen garapena lortzea izan zen, zatiketa erlijioso guztien gainetik. Berarentzat eta beste ligakide askorentzat kultura emantzipazioa politikoa baino lehenagokoa zen (McCOY, 2009, 35). Nahiz eta elkarte honek huts egin zuen jendea gaelera erabiltzera bultzatzeko orduan, arrakasta lortu zuen kultura gaeliko kulturaren inguruko kontzientzia pizteko orduan, gaelera eskoletako curriculumetan sartzeko kanpainetan, literatura eredu berriak sortzean eta mugimendu abertzalea bultzatzean (MCMAHON, 2004:1).

Dublinen sortua, Irlanda osora zabaldu zen, batez ere hirietan. 1898an Irlandan zehar 80 elkarte inguru zeuden, baina hauetariko oso gutxi zeuden uhartearen mendebalde eta hegoaldean, gaelera indartsuen agertzen zen eskualdeetan, hain zuzen



ere (MCMAHON, 2004:1). 1906an Irlanda osoan 600 *craobhacha* (“adar”, galeraz) baino gehiago zeuden, ia beste horrenbeste Irlandatik kanpo. Uharteko konderri guztietan zeuden “adar” horiek, batez ere, urte honetarako, gaelera hiztun

portzentajerik handiena zutenetan eta hiririk handienetan, Dublin, Belfast, Cork eta Galway-n. Baina, galeradun kopururik handienak zeuden konderrietan mugimenduaren buruzagiak ingelesdunak izaten ziren eta leku gutxi batzuetan baino ez ziren nagusi gaeleradunak. Hizkuntzaren erabilera baxua zen konderrietan “adarretan” aritzen zirenak, gehienbat, ingelesdunak ziren gaelera ikasteko interesa zutenak (MCMAHON, 2004:1).

“Adarretako” kideak astero biltzen ziren eta historiaren edo unean uneko gaien inguruan eztabaidak izaten zituzten. Horretaz gain, gaelera, historia, dantza edo musika eskolak ematen ziren. Gainera, agintari publikoak presionatzeko, mota desberdinetako kanpainak antolatzen zituzten, gaelera eskoletan sartzeko, edo 1908-1910 bitartean egin zuten bezala, Irlandako Unibertsitate Nazional berriko “senatuak” ikasleak onartzeko orduan, gaeleraren oinarritzko ezagutza eska zezan.

Beste ekintza batzuk *ceilidhs*, kontzertuak, *feiseanna*, lurraldeetako jaialdiak, eta *Oireachtas*, nazio mailako jaialdiak, non poesia, oratoria, dantza edo musika lantzen zen, antolatzea zen. Honekin batera, literatura lan berriak argitaratzea izaten zen elkartearen eginkizun nagusia, baita egunkari elebidunen argitaratzea ere (MCMAHON, 2004:2).

18. irudia. Liga Gaelikoaren iragarki elebiduna. Jatorria: http://en.wikipedia.org/wiki/File:Gaelic_League_advert_in_Gaelic_Journal_1994.jpg.

Hasiera batean, kide gehienak katolikoak eta mota bateko edo besteko abertzaleak baziren ere, elkartean katolikoak eta protestanteak aritu ziren lanean. Baina 1915ean, *Irish Republican Brotherhood*-ek, “Irlandar Anaidi Errepublikarra”, mugimendu abertzalearen erakunde nagusiak, Elkartearen kontrola lortu zuenean, Dubhghlas de hÍdek lehendakaritza utzi zuen, Eoin Mac Néillek hartu zuena, eta

berarekin batera protestante gehienak. Gertaera honek eta independetziara eraman zuten hemendik aurrerako gertaera politikoek erakunde honen gainbehera ekarri zuten. Hala ere, Irlandako Estatu Librea, lehenengo, eta Eireko Errepublika sortu zirenean, beren eragina oso handia izan zen, batez ere, Eamon de Valera, mugimendu abertzaleko buruzagirik nagusienetarikoa, gero Estatu Libreko gobernu burua eta presidente eta azkenean Eireko presidente ere izendatuko dutena.

3.3.3.- 1922tik aurrera.

1916ko Pazko eguneko matxinadaren eta 1919-1921 urte bitarteko gerraren, Independentzia gerraren, ondoren, 1921ean ituna sinatu zen Erresuma Batuko Gobernuaren eta 1919an independentzia aldarrikatu zuen *Dáil Éireann* edo Irlandako Parlamentuaren artean. Itun honek *Saorstát Éireann*-a edo Irlandako Estatu Askea sortu zuen. Estatu honek Kanadak, Australiak edo Zeelanda Berriak zuten egoera juridiko bera aitortzen zion Estatu Libreari, hots, Estatu Librea Commonwealth-eko kide izango zen eta Erresuma Batuko erregea arituko zen estatuburu gisa. Hortik aurrera modu independente arituko zen.

Itun honek bi ondorio nagusi izan zituen:

1.- Estatu Librean, Irlandako 26 konderrik osatua, gerra zibila piztu zen, itunarekin ados eta aurka zeudenen artean, 1922ko ekainetik 1923ko apirilera arte. Estatu berriaren aldekoak garaile irtenda, Estatu Askeak bere ibilbidea jarraitu zuen. 1937an konstituzioa aldatua izan zen, *de facto*, Errepublikaren aldarrikapena eta erabateko independentzia onartzen zuena, baina 1948ra arte itxaron beharko da, *de iure*, independentzia hori gauzatu arte, orduan sortu zen Irlandako edo Eireko Errepublika *Poblacht na hÉireann* edo *Saorstát Éireann*, gaeleraz.

2.- Ulsterreko sei konderrik, Aontroim (*Antrim*), Contae Ard Mhacha (*Armagh*) Contae an Dúin (*Down*), Fear Manach (*Fermanagh*), Tír Eoghain (*Tyrone*) eta Doire (*Londonderry*), gehiengo protestante zutenak, erakunde politiko berritik kanpo geratu ziren, nahiz eta, itunaren arabera, Estatu Libreko autonomia antzekoa zen. Baina protestanteen gehiengoak Erresuma Batuaren menpe jarraitzearen aldeko apustua egin zuen, beranduago “Parlamentu protestante, herri protestantearentzat” esamoldearekin azalduko dena. Handik aurrera, eta batez ere, 1949ko Irlandaren inguruko Legearen

ondorioz, aipatutako Ulsterreko sei konderrri horiek, 1948an aldarrikatutako Eireko Errepublikatik kanpo geratu ziren eta Erresuma Batuko egitura politikoaren barruan bete-betean sarturik.

Aurreko bi ondorio horiek direla eta, 1922tik aurrera, gaeleraren inguruko xehetasunak azaltzeko bi errealitate politiko desberdin horiek kontuan hartuko ditugu eta, beraz, bereizita aztertuko ditugu.

c.1.- Irlandako Estatu Askatua eta Eireko Errepublika (1922-2010): Estatu Askatua osatu ondoren, 1926an errolda egin zenean, bakarrik biztanleria osoaren %18a zen galeraduna, horietatik erdia inguru uharteko mendebaldeko eta hegoaldeko eremu zehatz batzuetan bizi zirenak; beste erdia, horietariko askok hizkuntza eskoletan ikasi zutenak ingelesdunen artean bizi ziren (Ó RIAGÁIN, 2004:1).

Hizkuntzaren egoera honen aurrean, 1922an bertan gobernu berriak estrategi bati ekin zion hizkuntzaren egoera hobetzeko, batez ere, oraindik nagusi zen eskualdeetan. Estatu Askatuko konstituzioak, bere 4. artikuluan gaelerari Hizkuntza Nazionalaren ezaugarria aitortzen zion eta ingelesarekin batera, maila berean, ofizialtasun osoa aitortzen zion¹⁰. 1937ko konstituzio berriak, gaur egun indarrean dagoenak, egoera bera aitortzen zion bere 8. Artikuluan¹¹. Kasu honetan, hizkuntza nazionalaren aitormena egiteaz gain, lehen hizkuntza ofizialtzat hartzen da, ingelesari bigarren hizkuntza maila aitortuz.

¹⁰ *Article 4: The National language of the Irish Free State (Saorstát Eireann) is the Irish language, but the English language shall be equally recognised as an official language. Nothing in this Article shall prevent special provisions being made by the Parliament of the Irish Free State (otherwise called and herein generally referred to as the "Oireachtas") for districts or areas in which only one language is in general use.* Estatu Libreko Konstituzioa, 1922. Iturria: <http://www.irishstatutebook.ie/1922/en/act/pub/0001/print.html>.

¹¹ **Article 8:**

1. *The Irish language as the national language is the first official language.*
2. *The English language is recognised as a second official language.*

Errepublikako Konstituzioa, 1937.

Iturria: http://www.taoiseach.gov.ie/attached_files/Pdf%20files/Constitution%20of%20Ireland.pdf.

Bi eremu izan ziren bereziki landu nahi izan zituztenak, alde batetik, eskola mundua Errepublika osoari begira; eta, bestetik, ahalegin bereziarekin, gaelera oraindik indartsu mantentzen ziren eskualdeak, *Gaeltacht* izenaz ezagutzen direnak.



Eskolari dagokionez, gaelera derrigorrezko eskola gaia bihurtu zen eta zenbait jarduera publikotarako ezinbestekotzat jo zen, horretarako azterketa batzuk gainditu behar zirelarik (Ó TUATHAIG, 2005: 49). Politika honen emaitzak oso emankorrak ez baziren ere, XX. mendeko 50 hamarkadarako gaitasun maila desberdinak zituen hiztun multzo dezente sortua zen. Bigarren hezkuntzako eskoletan gaelera eta ingelesa izan ziren derrigorrezko ikasgaiak 1927tik. Gaelera derrigorrezkoa zen biazterketa nagusietan: *Intermediate Certificate* (oinarrizko irakaskuntza amaitutakoan) eta *Leaving Certificate* (bigarren hezkuntza amaitutakoan) (MOYANO, 28).

Dena den, hasieratik derrigortasun horren aurkako jarrerak nabarmenak izan ziren eta presio askoren ondoren, 1973an Robert Burke Hezkuntza Sailburuak gaelera ez zela derrigorrezkoa izango gorago aipatu diren hezkuntza agiriak lortzeko¹². Hurrengo urteetan gaeleraren aurkako jarrerak areagotu egin dira, Hezkuntza sistematik ateratzeko ez ezik bere ofizialtasuna galtzeko ere (RUDDOCK, 2005 eta REFORM MOVEMENT, 2003).

Eremu gaeleradunei dagokienez, *Gaeltacht* izenekoa, 1926an, gobernuak eremu hauetaz arduratzeko eta beraien, eta beraz hizkuntzaren garapenerako, *Coimisiún na Gaeltachta* izeneko batzarra sortu zuen. Eremu hauetan sartzeko erabili zen irizpidea gaeleradun portzentajea %25a izan zen, baina batzordeak proposatutako zenbait aldetan portzentaje hau, errealitatez, apalagoa zen.


19.irudia. *Gaeltacht* eremuak 1926ko Batzordeak eginiko proposamen arabera. Jatorria: http://en.wikipedia.org/wiki/File:Gaeltacht_1926.jpg.

Gobernuak, Batzordeak emandako irizpideak osorik hartu ez bazituen ere, Estatuko 26 konderrietatik 15etan gaeleradun kopurua nabarmena zegoela onartu zuen. Printzipioz, Batzordeak, gainera, Ipar Irlandako hainbat eremu ere kontuan izan zituen, baina egoera politikoa zela eta, ez zuen inolako eraginik izan, jakina.

¹² <http://www.scoilnet.ie/lookathistory/Video2.aspx?FolderId=2&Id=515&ref=9>.

1956rako bigarren batzar bat osatu zen. Bigarren batzar honek aurreko mapari funtsezko aldaketak egin zizkion, benetako errealitate sozio-lingustikoari eta ez planteamendu politiko edo ideologikoei kasu eginez.

20.irudia. *Gaeltacht* eremuak 1956ko Batzordeak eginiko proposamen arabera. Jatorria: http://en.wikipedia.org/wiki/File:Gaeltacht_1956.jpg.



2002. urtean hirugarren batzorde batek proposamen berri batzuk egin zituen, horien artean, *Gaeltachteko* eremuak hiru azpimultzotan sailkatzea proposatu zuen.

Proposamen horren arabera, hiru eremu linguistiko sortuko ziren, errealitate soziolinguistikoari kasu eginez:

1.- A eremuak. Hauetan gaelera da eguneko hizkuntza arrunta, beraz, jendea, benetan gaeleraz bizi da eta gaelera egunero erabiltzen duenaren portzentajea %67tik gorakoa da.

2.- B eremuak. Hauetan ingelesa da nagusi, baina badago gutxiengo gaeleradun indartsu bat, egunero gaelera erabiltzen duen portzentajea %44-66 da.

3.- C eremuak. Hauetan ingelesa da nagusi, baina gaeleradun portzentajea nazioaren batz bestekoa baino handiagoa da. Gaelera egunero erabiltzen duen portzentajea %43tik beherakoa da.



21. irudia. 2007an argitaratutako txostenaren arabera, *Gaeltacht* eremuen barruan A multzoan sailkatu beharko liratekeenak. Jatorria: http://en.wikipedia.org/wiki/File:Gaeltacht_2007.jpg.

1956ko aldaketen ondorioz, gainera, *An Roinn Gnóthaí Pobail, Comhionannais agus Gaeltachta* (“*Gaeltacht, Berdintasun eta Komunitate Saila*”, euskaraz) sortu zen, gobernuko ministro baten ardurapean. Bere helburua landa zein hiri komunitateen garapena bultzatzea da, arreta berezia *Gaeltacht* eremukoei jarritz.

Gaeltachta eremuei dagokienez, sortu zirenetik etengabeko atzerakada ematen ari da. Horretarako zenbait arrazoi daude.

- Orokorrean harturik, Irlandako lurralderik txiroenak izanik, etengabeko migrazioa pairatzen ari dira, eskualdea gaeleradunak galduz, ingelesa nagusi den eremuen mesederako.
- Ingelesaren presioa oso handia eta hizkuntza aldaketarako joerak ez dira irauli ezta gelditu ere.
- Ez da egon gobernuaren aldetik politika koherente bat eremu hauekiko. (Ó TUATHAIG, 2005: 50).

1922tik hona garatutako politika aztertuz gero, argi dago gaelerak ez diola eutsi bere hasierako egoerari ezta hiztun portzentajerik handiena duen eremuetan, zer esanik ez horietatik kanpo, nahiz eta eremu txiki eta zehatz batzuetan oraindik egunero hizkuntza den. Gaelera gutxiengo txiki batek baino ez du bere eguneroko bizitzan erabiltzen eta, gainera, oso sakabanatutako gutxiengo bat da eta kasu askotan hiztunek duten hizkuntzaren maila nahiko kaxkarra da. (Ó RIAGÁIN, 2004).

Pritchardek egoera hau honela laburbiltzen du (PRITCHARD, 2004, 9): gaur egun, elbidunak, batez, “lepoko zurikoen” arteko ogibideetan aurki ditzakegu, hots, klase ertainen artean; *Gaeltacht*-eko komunitateek biztanleria osoaren %2 baino ez dute suposatzen eta eremu hauetatik kanpo oso gutxi dira bizirautean duten komunitate gaeleradunak eta, azkenik, hizkuntzaren irupena eskola sistemaren menpe dago, hortik kanpo, ezer ez. XX. mendeko 20. hamarkadan eginiko inkestekin konparatuz, orduan bezala gaur egun familien %5ek baino ez dute gaelera etxeko hizkuntzatzat.

Egoera honi aurre egiteko, 2002ko *Comisiún na Gaeltachta*, hots, eremu hauetarako propio sortutako hirugarren batzordeak txosten bat prestatu zuen eta bertan 19 gomendio egiten ziren (*COMISIÚN NA GAELTACHTA*, 2002: 18). Horien artean esanguratsuak aipatzearren, honako hauek azpimarratuko nituzke (parentesi artean txosteneko puntua):

- Galerak eremu hauetako eskoletako lehen hizkuntza izan beharko du (2)
- Gaeleraren inguruko ikasketak sendotzeko Hirugarren Mailako ikasketak eratzea (5)
- Gaelera benetako hizkuntza nazionala izan dadin politikaren aldaketa (6)
- Estatu zerbitzuak gaeleraz emateko azpiegitura ziurtatzea (9)

- Egitura ekonomiko berria eta aurreratua gaelera nagusi den eskualdeetan sortzea eta garatzea (13-14)

Ildo beretik jarraituz, 2009an *An Roinn Gnóthaí Pobail, Comhionannais agus Gaeltachta* izeneko sailak txosten bat sortu zuen, *20 YEAR STRATEGY FOR THE IRISH LANGUAGE*. Bertan, eta gaeleraren erabilera gaurko hiztunen artean sustatzeko ez ezik gizarte osoan zabaltzeko eta jende gehiagok egunero gero eta gehiago erabil dezan, 2010-2030 urte bitarteko plana helburu zehatz batzuekin planteatzen da. Helburu horiek bost arlo desberdinetan lortzea aurreikusi da:

- Hezkuntza
- Administrazio publikoa, Zerbitzuak eta Komunitatea
- Komunikabide eta Teknologia arloan
- Eremu ofizialean
- Bizitza ekonomikoan.

Aipatutako txosten eta planteamendu hauetaz gain 2003an, *Acht na dTeangacha Oifigiúla* edo “Hizkuntza Ofizialen Legea” onartu zen. Lege honek toponimoak izendatzeko hizkuntzen erabilera arautzen da. Legearen arabera, bi eremu desberdin bereizten dira:

- *Gaeltacht* eremu barruan, leku izenen gaelerazko bertsioa derrigorrezkoa izango da, ez, ordea, ingelesezkoa.
- *Gaeltacht* eremutik kanpo, leku izenak hizkuntza bietan agertuko dira eta balio bera izango dute. (*ACHT NA dTEANGACHA OIFIGIÚLA 2003/ OFFICIAL LANGUAGES ACT 2003*)

Honen guztiaren helburua gaeleraren biziraupena ez ezik Irlandako bizitzaren parte esanguratsua bihurtzea ere da.



c.2.- Ipar Irlanda (1922-2010): Hasieran ikusi dugunez, Ipar Irlandan gaeleraren ezagutza ez da oso handia. 2001eko erroldaren arabera, biztanleria osoaren %10,4k baino ez zuten ezagutza minimo bat. Horietatik, %92, 34 katolikoak ziren eta besteak protestanteak edo beste adar kristauetako kideak. Irlandako Estatu Askatua sortu

zenez, protestanteak nagusi ziren Ulsterreko sei konderrietan, egitura politiko berritik kanpo geratu ziren, asmo abertzale horiekin, arrazoi erlijiosoak zirela medio (katolikoaren nagusitasuna). Ikusi dugunez, denboran zehar protestanteak katolikoak baino gaeleraren sustatzaile sutsuagoak izan dira, baina katoliko abertzaleek Liga Gaelikoa bere kontrolpean jarri zutenean, 1915ean, hizkuntzarekiko jarrera erabat aldatu zen eta handik aurrera gaclera eta kultura gaelikoa katolizismoarekin eta abertzaletasun irlandarrarekin identifikatu zituzten eta azken hauek bezain gorrotagarriak eta arbuigarriak bihurtu zitzaizkien. Horregatik, bereizketa hori gertatu zen une beretik hizkuntza bazterketa politika bati ekin zioten Ipar Irlandako Parlamentuak zein gobernuak. Hogei eta hogeita hamargarren hamarkadetan gacleraz aritzen zirenen kopurua gutxituz joan zen eta berau ikasteko laguntza ekonomikoak 1934an desagertu ziren.

22. irudia. 2001eko erroldaren arabera, biztanleriaren heren batek gacleraz hitz egin dezakeen mapa.
Jatorria: http://en.wikipedia.org/wiki/File:Irish_language_northern_ireland_two_thousand_and_one.jpg.

Pritcharden iritziz (PRITCHARD 2004: 14), Ipar Irlandako “unionisten”, gehienak protestanteak, identitatearen eraikuntza beraien sustrai eta ondorengotza historikoaren alienazioaren bitartez egin da. Urteetan zehar eskoletan irakatsitakoa askoz gehiago zegokion Britainia Handiari eta bere kulturari Irlandari baino. Oso gutxitan, ia inoiz ez zaie gacleraren inguruan beraien tradizioaren berri eman.

Horrek beraien identitatearen eraikuntza beren izaera irlandarrari ukatzean oinarritu da. O’Reilly-k (O’REILLY, 1997: 1) azaltzen duenez, Ipar Irlandan gaclerarekiko jarrerak ezin dira bereizi testuinguru sozial eta politikotik. Beraz, bere egoera aztertzeke komunitate bien, katoliko errepublikazalea eta protestante unionista, aztertuko dugu.

C.2.1.- Katoliko errepublikanoen artean: O’Reilly-k (O’REILLY, 1997) eginiko ikerketaren arabera, katoliko errepublikanoen artean hizkuntza auziaren inguruan, hiru jarreretan desberdin aurki daitezke: diskurtso deskolonizatzailea, kultur diskurtsoa eta eskubideen diskurtsoa. Ikus ditzagun banan-banan autore horri jarraituz.

- Diskurtso deskolonizatzailea: *Sinn Féin* talde politikoari lotuta dagoen planeamendua. Historikoki, talde politiko honek hizkuntzari oso garrantzi berezirik eman ez bazioen ere, 1981eko IRAko zenbait kidek, ezagunena Bobby Sands, eginiko

gose grebaren ondorioz, lehenasuna bihurtu zen, preso hauen arteko komunikazio hizkuntza gaelera bilakatu zenean (PRITCHARD, 2004:13) . Diskurtso honek, XX. mendearen hasieran Liga Gaelikoak erabiltzen zuen diskurtso bera berreskuratzen du. Bere planteamendu nagusiak hauexek izango lirateke: gaelerak britainiar nazioak irlandar nazioak ez irensteko balioa du eta galera britainiarren aurkako borrokarako arma da. Diskurtso honi beste batzuk gehitzen zaizkio: anti-imperialismoa, deskolonizazioa eta borroka politikoari lotuta dago. Gaeleraz hitz egitea identitate nazionala eta ez soilik etnikoa adierazteko modu indartsua da. Beste diskurtsoekin konparatuz, galera jarrera politiko zehatz baten, errepublikanismoa, funtsezko partea da eta deskolonizazio prozesuarekin identifikaturik dago. Gaeleraz hitz egiteak esanahi politikoa du (O'REILLY, 1927: 4). Ideia bera jasotzen du Pritchardek (PRITCHARD, 2004: 13) telebistako saio batetik agertutako ideia azaltzean: *Sin Féinen* planteamenduetan gaelera tresna laguntzailea da Irlanda kanpoko nagusitasunetik askatzeko borrokan, “zenbat eta gaelera gehiago erabili, orduan eta kanpoko eragin txikiagoa”.

- Kultur diskurtsoa: Diskurtso honentzat gaelerak eta arazo politikoak guztiz bereizita agertu behar dute. Hizkuntzaren garrantzia ez datza kapital politikoan, baizik eta bere edertasunean eta balio kulturalen. O' Reillyren azterketan (O'REILLY, 1927: 5), norbaitek horrelako planteamendua egiten duenean, gaeleraren eta errepublikanismoaren arteko loturaren aurkako jarrera ari da adierazten. Ondorioz, diskurtso honentzat ez da zilegi politika sektarioan hizkuntza arma gisa erabiltzea. Honek ez du esan nahi, jarrera hau guztiz apolitikoa denik. Diskurtso hau sostengatzen dutenen artean, badago guztiz legitimo jotzen duena gobernuak hizkuntzaren alde politikoki presionatzea. Kultur diskurtso hau ez da gaur eguneko soilik, baizik eta badu tradizio luze bat eta Liga Gaelikoaren lehen buruzagiaren, Dubhghlas de hÍde-ren, Douglas Hyde, ingelesez, jarrerarekin lotu behar da.

Gaur egun diskurtso hau bi modutara agertzen da. Lehena, politikatik urrun, planteamendu erromantikoan eta, batzuetan, abertzaletasun kulturalen oinarritzen da. Bigarrenak kultura eta identitateak lotzen ditu. Planteamendu honetatik, 1989an *Cultural Traditions Group (CTG)*, “Tradiziko Kulturalen Taldea” izeneko taldea sortu zen gobernuak sortutako *Community Relations Council (CRC)*, “Komunitateen Harremanen Kontseilua”, Ogasun eta Langile Sailaren adarra (O'REILLY, 1927: 6).

GTG erakunde horren helburu nagusia, Maurice Hayes-en arabera, 1990-1993 bitartean presidente izan zena, Ipar Irlandako kultur tradizio desberdinen balioaren inguruan eztabaidak sortzea, baina eztabaida politikotik kanpo. GTGren jaiotzarekin batera, urte berean, *Iontaobhas ULTACH / ULTACH Trust* izeneko elkarteak sortu zen. Bere helburuak hauek dira:

- Komunitateen arteko lankidetzak.
- Ikasteko baliabideen garapena.
- Udal, ikerketa, irakaskuntza edo estatu hainbat erakunderekin lankidetzan aritzea.
- Hizkuntza plangintzan eta politikan beraien aholkularitza.
- Ipar Irlandako gaelerazko komunikabide sistema garatzea.
- Gaeleraren inguruko materialak argitaratzea
- Hizkuntza ekimen berritzailea sustatzea edota bultzatzea¹³.

Orain arte azaldutako bi diskurtso hauek harremanetan garatu dira, eztabaida baten bi alde kontrajarri gisa agertu baitira (O'REILLY, 1927: 10).

-Eskubide diskurtsoa: Diskurtso honetan gaeleraz hitz egitea eskubidetzat hartzen da, adierazpen askatasun mota bat izango balitz bezala. Honen arabera, jendeak gaeleraz hitz egiten duenean, beraien identitate nazional, etniko edo kulturalaren adierazpen gisa, edo beraien konbinatze moduan ikusi beharko litzateke. Gaeleradunentzat eskubide zibilei buruz hitz egitean, normalean diskurtso honekin egiten da bat, batez ere, gaeleraz arituko diren eskolak sortzeko edo estatu administrazioarekin harremanetan gaeleraz aritzeko eskubideekin lotuta (O'REILLY, 1927: 11). Honek hizkuntza politikarekin lotzen badu ere, gaeleraren sustapena beste edozein planteamendu politiko edo kulturalaren gainean egiten da. Diskurtso hau gaeleraren inguruko ideologia desberdinek sortu dute, baina ez da apolitikoa eta ez dago planteamendu politiko zehatz bati, errepublikanoa, esate baterako, loturik (O'REILLY, 1927: 12).

¹³ ULTACH izen honek bi esanahi ditu: gaeleraz, "Ulsterreko gizona", ingelesez akronimo bat da: '*Ulster Language, Traditions And Cultural Heritage*' (Ulsterreko Hizkuntza, Tradizio eta Kultur Ondarea". http://www.ultach.dsl.pipex.com/English/index_eng.htm.

O'Reillyk identifikatutako diskurtso deskolonizatzaileraren barruan, XX. mendeko 60. hamarkadaren amaieran, sei familia katolikok Belfasteko mendebaldeko aldean (nagusiki, eremu katolikoa eta errepublikanoa) *Gaeltach* bat sortu zuten. 1970ean, *Bunscoil Phobal Feirste* izeneko eskola zabaldu zuten, gaelera ikasteko tresna gisa eta ez irakasgai gisa erabiltzen zuen lehen eskola. 1978an lehen *Naíscoil* eskola (haur eskola gaeleraz) zabaldu zen eta 1984an diru-laguntza zuen lehen Lehen Hezkuntzako eskola sortu zen. Auzo txiki honek izan zuen arrakasta aprobetxatu nahian, 2008an Gerry Adams-ek, *Sinn Féin*eko buruzagietariko batek, Belfasteko mendebaldeko auzoan 20.000 lagunetik gora izango zuen *An Ceathrú Gaeltachta*, “*Gaeltachta* auzoa”, izeneko auzoa sortzea proposatu zuen.

C.2.2.- Unionista protestanteen artean: Zein da protestante unionisten jarrera gaelerarekiko? Ikusi dugunez, XX. mendean zehar, beraien identitatea garatu dutenean, garapen hori gaelerarekin edo bere kulturarekin inolako harremanik gabe egin da. Horren ondorioz, beraien identitateak kanpo ikusten dute, protestantismoak gaeleraren eta bere kulturaren garapenean eta iraupenean izandako garrantzia ahaztuta edo baztertuta utzita. Horregatik, gaur egun, gai hau planteatzen zaienean, ezinegona nabarmena da. Jude Collins-ek (COLLINS, 2003) *Irish News* izeneko Belfasteko egunkari errepublikanoan galdetzen duen moduan: *Zer dauka gaelerak unionistak urduri jartzen dituen?* Galdera honi erantzutea zaila eta erantzuna oso konplexua baita. Dena den, erantzuna aipatutako artikuluan ager daiteke: unionista protestanteen ustez, errepublikano katolikoek hizkuntza **bahitu** egin dute. McCoyk, bere aldetik (MCCOY, 1997:1), puntu hau aztertzean, gaeleraren inguruko ideologia nagusia irlandar abertzaletasunarena da, hots, Britainiar agintearen amaiera Irlandan lortu nahi duenarena. Eta ideologia hori unionista protestanteek bere egin dute, gaeleraren aurka aritzeko eta horrek azaltzen du gobernu eta herri protestanteen jarrera, aurkakoa jakina, 1922tik gaur arte Dena den, esan behar dago protestanteen artean ez dagoela erabateko uniformetasunik. Lehentxeago aipatu dugun McCoyren lanean¹⁴, argi geratzen dira protestanteen arteko desberdintasunak gaelerarekiko maila sozialaren arabera. Eta hauxe da azpimarratzen duen lehenengo puntua. Gaelera ikasi nahi duten protestanteentzat nahi hori gauzatzeak unionista eta errepublikanoak bereizten dituen muga gainditzea suposatzen du; izan ere, lehenago aipatu dugun aurreiritziaren aurka borrokatu behar dute eta, gainera, beraien komunitatearen gaitzespena pairatu behar dute.

¹⁴ McCoyren lana gaelera ikasten ari ziren protestanteen artean eginikoa da.

Aipatutako zailtasun horiek handiagoak dira langile klasekoak direnentzat, erdi mailako klasekoentzat baino. Azken hauek askatasun handiagoa dute beren komunitateen baloreen gainetik pasatzeko eta ez dira beraien komunitatekideen erantzunaren beldur. Maila honetako kideak “liberalagoak” omen dira eta ez dute, halaber, begi txarrez ikusten beraien komunitatekideek gaelera ikasi eta erabili nahi izatea. McCoyren ustez, ikuspegi “zabalago” hori, arazo politiko larriak egon direnean, barruti baketsuetan bizi izan dira eta horrek gatazkaren beste ikuspegi bat eman die (MCCOY, 1997: 2). Gainera, maila sozial honek askoz harreman handiagoak eta estuagoak izan dituzte Eireko Errepublikako jendearekin, bisitatu ere egin dute, eta bertan ere errepublikanismoaren eta hizkuntzaren arteko lotura gaitzetsia dela ikusi dute. Beraz, gaeleraren inguruan beste planteamendu berri bat garatu ahal izan dute. Klase ertaineko unionista protestanteek britainiar hiritartasuna eta nolabaiteko “kultur irlandartasuna” lotzen dituen identitate bikoitza garatu dute eta horrek malguago egiten ditu gaelera eta bere kulturarekiko.

Langile klasekoentzat, ordea, egoera oso desberdina da. Maila hauetakoak dira XX. mendean zehar unionismoaren inguruan sortutako ideologia modurik sakonenean barneratu dutenak. Irakaskuntzak eta aginte publikoek ukatu egin die gaeleraren eta protestantismoaren harreman historikoak ezagutzeko aukera eta, ondorioz, barru-barruan dute barneratuta gaelera eta errepublikanismoaren arteko harremana. Langile klasekoek, baita gaelera ikasi dutenen artean ere, beraien burua, errepublikanismoaren aurkako borrokan, abangoardian ikusten dute eta horregatik oso zaila egiten zaie hizkuntza eta hiztunak, hots, gaelera eta gaelera erabiltzen duten errepublikanoen artean bereizketa egitea, beraz, kontrako jarrera berez datorren jarrera da.

1998ko Bake Hitzarmenak, eta berauetatik sortutako beste akordioek, bakeari ez ezik, gaelerari ere aukera berriak zabaldu dizkiote. Ostiral Sainduko akordioaren artean, puntu garrantzitsu bat hizkuntza arloari zegokion. Aipatutako hitzarmen horren arabera, Ulsterreko eskozierarekin batera gaelerari lurraldeko hizkuntza aitormena egin zitzaion. Horrek ordura arte itxita zituen ateak zabaldu zizkion. Aitormen horren lehen emaitza 199an *Foras na Gaeilge* (“Gaeleraren Institutoa”) izeneko erakundearen sorrera izan zen (Eskozierarentzat¹⁵, *Tha Boord o Ulstèr-Scotch* izeneko erakundea sortu zen).

¹⁵ Eskoziara, Eskoziako hegoaldean eta mendebaldean iparraldeko uharteetan eta Ipar Irlandako hainbat aldetan erabiltzen den germaniar jatorrizko hizkuntza. Askok ingelesaren dialektotzat hartzen badute ere, hizkuntza hau anglosaxoien eta bikingoen hizkuntzen nahastetik sortutako hizkuntza da. Hizkuntza

Erakunde berri honen lanaren helburua gaieraren erabilera sustatzea izango zen uharte osoan zehar, hots, muga politikoak gaindituz. Bere jarduerak puntu honetan laburbil daitezke¹⁶:

- Irlandako hegoaldean idatzizko eta ahozko erabilera publikoa zein pribatua erraztea eta bultzatzea eta Ipar Irlandan Lurraldeetako Hizkuntzen edo Gutxituen Europar Ituneko III. partearen testuinguruaren arabera, gaieraren erabilera sustatzea, eskaria egokia dagoen kasuetan.
- Administrazio biei, erakunde publikoei eta arlo pribatuetako zein arlo boluntarioetako beste erakundeei aholkuak ematea.
- Sustatze egitasmoei ekitea, erakundeei eta erakundeei laguntzea, beharrezkoa ikusten denean.
- Ikerketa, promozio kanpainak eta harreman publiko zein komunikabide kanpainei ekitea.
- Terminologia garatzea eta hiztegia sortzea.
- Gaieraren bidezko irakaskuntza eta hizkuntzaren ikaskuntza bultzatzea.

2000. urtean, Erresuma Batuko Gobernuko Hezkuntza Ministerioak *Comhairle na Gaelscolaíochta*, “Gaierazko Eskolen Kontseilua”, izeneko erakundea sortu zuen bi helburu hauekin:

- Ipar Irlandan eskoletan gaiera hizkuntza tresna bezala bultzatzeko, sustatzeko eta errazteko
- Horretarako, planifikazioa, eraginkortasuna eta errentagarritasuna bermatzea¹⁷.

Aldaketa honen ondorioz, 2005-2005 ikasturtean 3.713 ikasle ari ziren gaieraz hutsezko ikastetxeetan:

- 44 Haur Eskola (*Náíscoilleana*) 855 ikaslerekin

hau Irlandara XVI eta XVII. mendeetako kolonizazioekin heldu zen Irlandara eta gaur egun, oraindik, Ipar Irlandan bizirik dirau. Ipar Irlandako biztanleen artean %2k dio hizkuntza honen hitzun dela.

¹⁶ http://www.gaeilge.ie/Foras_na_Gaeilge/About_Foras_na_Gaeilge.asp.

¹⁷ <http://www.comhairle.org/aboutus.html>.

- 32 Lehen Hezkuntza eskola (*Bunscoileanna*) 2,328 ikaslereekin
- 2 Bigarren Hezkuntzako eskola eta Lehen Hezkuntza osteko unitate bat 530 ikaslereekin.

Datu hauek guztiek argi uzten dute gaur egun Ipar Irlanda gaeleraren irakaskuntza boom bat ari dela gertatzen, baina eskola hauek guztiak katolikoen eskuetan daude eta bat bera ez dago protestanteen eskuetan.

4. BI NORABIDE DESBERDINAK.

Aurreko bi ataletan suomiera eta gaeleraren ibilbide historikoak, lehen erreferentziak ditugunetik gaur egun arte, aztertu ditugu. Prozesu historiko hori oso desberdina izan da eta horrek, gaur egun, oso emaitza desberdinak eman ditu.

Bi norabide hauek, azaletik aztertuz gero, harridura nabarmena sor daitekeela ezin da ukatu, baina azaletik barruraino sakontzen badugu, zergatik izan den emaitza hori nahiko erraz uler daiteke. Egia da bi herrialdeak, Finlandia eta Irlanda, beraiek baino indartsuagoak izan diren bi potentzien menpe egon direla Erdi Arotik, ia-ia garai beretik, XX. mendera arte; estatu biek oso tarte desberdinekin lortu zuten beren independentzia, Finlandiak, 1918an eta Eireko Errepublikak, 1937an. Egia da baita menpe egon diren mendeetan zehar, beraien hizkuntza beste baten menpeko, suediera,

suomieraren kasuan, eta ingelesa, gaeleraren kasuan. Egoera horretan potentzia menperatzaileen hizkuntzak bete ditu, mende batzuetan zehar latinarekin batera, goi mailako komunikazio funtzio nagusiak: Estatuarekiko harremanetan erabili beharreko hizkuntza; irakaskuntza sisteman, unibertsitatean batez ere; hirietako eta merkatal guneetako hizkuntza nagusia, kasu bietan, beti izan da estatu menperatzailearen hizkuntza. Egia ere bada herri hauetako gizarteetako goi mailetakoeak, lur jabeak eta bertako buruzagiak edo liderrak, mendeetan, eta beraien interesak hobeto defendatu ahal izateko eta potentzia menperatzailearekiko atxikimendua erakusteko, menperatzaile horren hizkuntzaren aldeko hautua egin dutela. Ezin dugu aipatu gabe utzi, gizarte bietan erlijioak funtsezko papera jokatu duela hizkuntzaren iraupenean, batez ere, XVI. mendeko erreforma protestantea sortu zenetik. Bi lurraldeetan mugimendu abertzale indartsuak sortu ziren XIX. mendean, eta bi mugimendu horietan beren aldarrikapenen artean hizkuntzak ohorezko lekua zuen; izan ere, biek beren hizkuntza hizkuntza nazional gisa aldarrikatu zuten, nahiz eta, independentzia lortu ondoren, menperatzailearen hizkuntzari ere ofizialtasuna aitortu zaion.

Hainbat puntutan antzekotasunak oso nabarmenak dira, beraz. Hala ere, prozesu historiko bien emaitza oso desberdinak dira: gaur egun, gaelera, uharte osoan, Eireko Errepublikan zein Ipar Irlandan hilzorian dago, suomiera Finlandian gero eta indartsuago dagoen bitartean eta, historikoki, nagusi izan den suediera, gobernuaren eta legearen babesa, gorabehera gero eta erabilera txikiagoa duen bitartean. Non daude beraz desberdintasunak bi bilakaera horien artean? Ondoren banan-banan aztertuko ditugu eta horrek emango digu aukera galdera horri erantzun egokia emateko. Ibilbide hori aztertzeko puntu desberdinak izango ditugu kontuan, eta puntuka aztertuko ditugu.

a.- Bilakaera historiko kontrajarriak: Bilakaera historiko orokorra, lehen testigantza idatziak sortzen direnetik gaur arte, bilakaera guztiz kontrajarria izan dela ikus daiteke argi eta garbi. Gaelera V. mendetik aurrera hizkuntza idatzia izan da, hasiera batean uhartean bertan garatutako berezko alfabetoa erabiliz, eta kristautu ondoren, Europako mendebaldeko idazkera erabiliz. Horrek gaelerari aukera ezin hobe eman zion, Erdi Aroan zehar hizkuntza idatzia izanik testuetan eta gizartean garapen izugarria izateko, aro kristau aurreko historiak, kondairak, eta abar jasotzeaz gain, testuetan ekoizpen berria ere jaso zen eta ekoizpen hori gizarte osora zabaldu zen goi mailakoengandik hasita herri xeheraino. Funtzio erlijiosoa, latinez egiten bazen ere, horrek ez zuen, printzipioz, inolako gaindiezineko arazorik suposatu. Alderantziz baino,

Erdi Aroko lehen mendeetan Irlandako monasterioetan latina klasikoa inon baino hobeto gorde ez ezik, Irlandako monasterioetako monjeek oso ondo identifika zitekeen goi mailako latina garatu zuten, beren hizkuntzako testuak alboratu gabe.

Egia da, XII. mendeko monasterioetako erreformarekin, eta gero sakonago aztertuko dugu arlo erlijiosoa, galerazko kulturatik berauetatik kanpo geratu zela. Baina horrek ez zuen inolako arazorik suposatu, alderantziz baino. Ordutik aurrera, gaelera eta bere kultura erlijiotik independente bihurtu ziren eta XVII. mendera arte kultura laiko garrantzitsua garatu zen, jaun eta nobleen babespean. Kultura horrek hain prestigio handia lortu zuen ezen XII. mendetik aurrera Ingalaterratik noblezia anglo-normandoa bera akulturazio prozesu batean sartu zen eta akulturazio hori hain sakona izan zen, ezen Ingalaterrako monarkiak bere nagusitasuna Irlandan arriskuan ikusi zuen Erdi Aroaren amaieran, bere interesak defendatu behar zituztenak menperatuen gizartean zuten integrazio eta asimilazio maila zela.

Baina, egoera XVII. mendetik aurrera gero eta okerrago bihurtu zen. Irlandan mende horietatik hasita gaur arte pairatutako jazoera historikoak zirela medio, gaelera atzera prozesu batean hasi zen, XX mendearen hasierarako hiltzorian utzi zuena, gizarteko funtzio guztiak, salbuespen batzuk kenduta, ingelesaren eskuetan geratzen zirelarik. Eta gainbehera prozesu horretan ez mugimendu abertzaleak ez kultur pizkundeak ezin izan zuten norabidea aldatu.

Suomieraren kasuan, ordea, prozesua guztiz kontrakoa da. Orokorrean hartuta, Erdi Aroan zehar suomiera hizkuntza idatzi gabea izan zen. Kultur hizkuntza nagusia, Europa osoan bezala, latina zen eta berauetan idazten ziren ia testu guztiak, batez ere, erlijiosoak eta hainbat testu ofizial. Eta latinez idazten ez ziren testuak edo suedieraz, potentzia nagusiaren hizkuntzan edo, bestela, alemanez, Baltikoko itsasoko merkatal harremanak kontrolatzen zituzten merkatarien hizkuntza.

Aro Modernoaren hasiera arte itxaron beharko dugu lehen testuak suomieraz idatzita ikusteko. Eta, hemendik aurrera, hasiera batean arrazoi erlijiosoak zirela medio, eta gero arrazoi politikoengatik, mugimendu abertzalearekin lotuta, etengabeko garapena izan zuen, Finlandia independente bihurtu zenean, hizkuntza mintzatuena eta funtzio guztietarako erabilgarri izateraino.

Laburbilduz, gaeleraren bilakaera goitik behera izan bada, suomieraren, ordea, behetik gora izan da.

b.- Erlijioaren papera: Prozesu honetan, aurreko puntua garatzean zirriboratu dugun bezala, funtsezkoa izan da, baina bere eragina guztiz kontrakoa izan da eta hori kontuan hartzeak lagun diezaguke hain prozesu desberdinak ulertzen.

Industria Iraultzaren aurreko gizarte guztietan bezala Irlandako zein Finlandiako gizarteetan erlijioak eta erlijioari lotuta dauden erakunde eta egiturek funtsezko garrantzia izan dute jendearen eguneroko bizitzan, baita hizkuntzari dagokionez ere. Baina eragina guztiz desberdina izan zen. Irlandaren kasuan, Erdi Aroko lehen mendeetan bertako monakotza garatu zenean, galerari eta bere kulturari monasterioetan lekua eman ez ezik garatu egin bazuten ere, XII. mendetik aurrera, kontinentetik heldutako erreformek gaclera eta bere kultura Elizaren arduetatik kanpo geratu zen eta nahiago izan zuen nagusiki latinez aritu gero ingelesaren erabilera sustatzeko aztertu dugun moduan. Gaclerari garrantzia emango dio, Erreforma protestanteak herrien hizkuntzen erabilera bultzatu zuenean, baina beti erantzun gisa, ez Elizak bere eginkizunetarako funtsezkotzat jotzen zuelako. Are gehiago, ikusi dugunez, zenbait momentutan gacleraren aldeko mugimendua susmagarritzat jo zuen, hizkuntza eta kulturaren aldeko mugimendu horren atzean protestanteen eskuetan ikusten zuelako. Eta hemen dago gakoa. Historikoki, irlandarrentzat, orokorrean, erlijioak funtsezko eginkizuna izan eta izaten du bere identitate nazionala zehazteko. Irlandar gehienentzat, historikoki, katoliko izatea irlandar eta ez britainiar adierazteko modua izan da eta bere identitate nazionala eraikitzean katoliko izatea elementurik funtsezkoena izan dela esan daiteke. Irlandar gehienek, nolabait esateko, “euskaldun, fededun” eskema bera errepikatzen dutela esan daiteke. Horregatik, Eliza Katolikoa gaclera bigarren mailan utzi izanak errazago egin du irlandar askoren artean hizkuntza aldaketa prozesua. Erlijioak identitate nazionala zehazteko orduan duen garrantzia aipatzean, ezin dugu ahaztu garrantzi hori katolikoentzat ez ezik, protestanteentzat ere badela. Gaur egun, Ipar Irlandako unionisten artean, beren identitatea zehazten duen elementurik nagusia, bere izaera protestantea gutxiengo errepublikano eta katolikoaren aurrean, beren erlijio presbiterianoa da.

Erreformak Irlandan ezin izan du beste Europako beste lurraldeetan izan duen papera herri hizkuntzaren garapenean. Ikusi dugunez, eliza erreformatuek, Anglikanoak

zein Presbiterianoak, ahalegin berezia egin zuten gaeleraren erabileran, irlandarrak erreformara erakartzeko eta hizkuntzaren garapenaren arloan eginiko lana oso garrantzitsua da. Baina, eliza bi hauen jarduera menperatzaile britainiarrekin lotzen zenez, gizartean izan zuten eragina oso txikia izan zen eta XIX. mendeko pizkundean protagonista nagusiak protestanteak izan baziren ere, horrek ez zuen ezer aldatu. Are gehiago, mugimendu abertzalearen garapenak protestante asko gaeleratik eta bere kulturatik urundu egin zituen eta Ipar Irlandan beren tradizioa ukatzera bultzatu ditu, hizkuntzaren kontrako jarrerak, salbuespen batzuk kenduta, oso indar handia duelarik.

Suomieraren kasuan, ordea, erakunde erlijiosoek garrantzi berezia izan zuten bere garapenean. Erdi Aroan, erakunde erlijiosoek ez zioten garrantzi berezirik eman hizkuntzari. Azken finean, Elizak bere hizkuntza zuen, latina, eta horrekin nahikoa zuen. Erreforma protestanteak, ordea, egoera hau goitik behera aldatuko du. Erreformatik testu erlijiosoak jendeari hurbiltzeko duen jarrerak testu horiek, Bibliatik hasita, itzultzerara bultzatuko du, suomierari Europako beste kasu askotan bezala, euskara barne, eredu kultu eta estandarra eskainiz. Baina ez da bakarrik Bibliaren itzulpena, handik aurrera mota guztietako testuak ekoiztu eta argitaratuko dira: otoitz eta liturgia liburuak, batez ere, eta argitalpen horiek hizkuntza finkatzen lagunduko dute, XIX. mendean hizkuntza sisteman sarrera ahalbideratuz.

c.- Hezkuntza erakundeak: Historikoki, hezkuntza erakundeak European Elizari lotuta sortu, garatu eta bizi izan dira, batez ere Erdi Aroan. Aldi honetan, monasterioak izan ziren kulturaren gordelekua. Irlandaren kasuan, XII. mendera arte, ikusi dugunez, gaeleraren alde jokatu zuen. Baina kontinentetik etorritako erreformek monasterioetatik kanpo utzi zuten. Une horretan garrantzi berezia izan zuten nobleziaren babespean sorturiko koblakari edo bardoen eskolak. Eskola hauen sorrerak aukera eman zion gaelerari Aro Modernora arte kultur hizkuntza moduan garatzeko, Elizaren eraginpetik kanpo, baina kultur hizkuntza moduan. XVII. mendean Irlandak pairatutako hondamendiek eskola horien desagerpena ekarri zutenean, gaelera kultur babesik gabe geratu zen eta handik aurrera, ordura arte, hizkuntza idatzia izan zena, ahozko hizkuntza soilik izatera pasatu zen, horrek dituen ondorio guztiekin. Irlandako lehen unibertsitatea, *Trinity College*, sortu zenean gaelera bere geletatik eta interesetatik kanpo geratu zen. Gainera, XIX. mendean eskola sistema garatzen hasi zenean, berriz ere gaelera geletatik kanpo geratu zen eta XX. mendera arte itxaron behar du gaelerak geletako ateari zeharkatu ahal izateko, baina, agian, beranduegi izan da.

Ez da hau suomieraren kasuan. Erdi Aroan, egia da, hezkuntza erakundeetatik kanpo geratu zen. Baina Erreformatik egoera hori aldatzen hasi zen. Aro Modernoan zehar, orokorrean hartuta, eskola erakundeetatik kanpo geratu bazen ere, batez ere Turkuko unibertsitatetik, beren pastoraltza eginkizunetarako Eliza Erreformatuak bere apezteria suomieraz prestatu behar izan zuen eta horrek gizartean eragin handia duen suomieradun funtsezko talde sozial bat sortzea suposatu zuen. Talde hau izango da, lehenago aipatu dugun hizkuntza estandarra garatu zuena eta hizkuntza XIX. mendean sortu zen hezkuntza sisteman sartzeko prestatu zuena. Eta egoera berezi horretaz jabetu zen sortu berria zen mugimendu abertzalea.

d.- Mugimendu abertzaleen jarrera desberdina. XIX. mendeko gertaera politikorik nagusiena, seguruenez, abertzaletasuna edo nazionalismoaren sorrera izan zen. Mugimendu nazionalistak, modu batera edo bestera, Frantziako Iraultzaren ondorengoak izan ziren, baina beren garapenean funtsezkoa izan zen Erromantizismoaren sorrera eta garapena. Mugimendu erromantikoaren oinarrietariko bat herri kulturaren aldarrikapena izan zen, beraz, ordura arte, baztertuta edo bigarren mailan egondako kulturak eta berauek adierazten dituzten hizkuntzak eta, ondorioz, mota guztietako Pizkunde mugimenduak sortu eta garatu ziren Europa osoan zehar. Herri kulturaren aldarrikapen hori mugimendu nazionalistek bere egin zuten eta handik hartu zuten, hasieran elite batzuen planteamendua zena, herri xehera hurbiltzeko eta bereganatzeko modua. Horregatik, Europa osoan zehar mugimendu nazionalistak eta herri kulturaren aldarrikapena batera joango dira.

Aurreko planteamendu hori Europa osora zabal badaiteke ere, lekuan lekuko ñabardura eta berezitasunak agertuko dira. Eta horren adibiderik nagusiena Irlandaren kasua izan zen. Zalantzarik ez dago XVIII. mendetik hona herri kultura bat aldarrikatu bada hori zeltikoa, orokorrean, eta zehatzago, irlandarra izan da. Gaur egun, oraindik ere, irlandar kultura erreferente garrantzitsua da. Baina, irlandar kulturaren aldarrikapen horrek alde desberdinak baditu, musika, kirola, tradizio literarioa, eta abar, gutxien garatu dena hizkuntzarena izan da. Ikusi dugunez, hasiera batean, mugimendu abertzaleak hizkuntza alboratu, mespretxatu eta hiltzen uztearen alde agertu zen. Gaelera ez zen izango etorkizuneko Irlandaren hizkuntza, britainiar zapaltzaileen ingelesa baino. Denborak aurrera egin ahala, jarrera hori aldatuz joan bazen ere, hizkuntzak beti bigarren maila batean egon da, historikoki, mugimendu abertzalearen aldarrikapenetan, baina Ipar Irlandakoaren artean.

Hizkuntzaren aldeko lehen benetako mugimendua sortu zenean, Liga Gaelikoa, alegia, bete sustatzaile nagusiak protestantean ziren, mugimendu abertzale katolikotik kanpo geratzen zirenak, eta horrek, beste lekuetan arrakastatsu izan den mugimendu abertzalearen eta hizkuntzaren arteko lotura estua ia ezinezko izan da Irlandaren kasuan eta jendearen artean, identitate nazionala garatzeko orduan, hizkuntzak balioa izan badu balio sinbolikoa izan da, iraganeko handitasunaren ikur, baina iraganekoa ez gerorako. Geroari begira identitate nazionala eraikitzeko beste materialak erabili dira eta horrek irlandar asko galetatik urrundu du, askok bere izaera ofiziala eta bere derrigortasuna eskoletan zalantzan jartzera. Kasu honetan aldarrikatzen dutena “*laissez faire, laissez passer*” linguistikoa da.

Hau ez da izan, jakina, Finlandiako mugimendu abertzalearen jarrera. Abertzaletasun horren lehen aldarrikatzaileak suedieradun eliteko kideak izan baziren ere, hasieratik argi izan zuten eraiki nahi zuten identitate nazionala garatzeko suomierak zuen garrantzia. Ikusi dugunez, finlandiar abertzaleak hizkuntzari berebiziko garrantzia eman zioten, azken finean, bere aldeko aldarrikapena egitea gizartean egin beharreko aldaketen aldeko aldarrikapena baino ez zen. Gizartea nahi zuten norabidera joateko, aldatu behar bazen, horrek elite suedieradunaren aurka borrokatzea suposatzen zuen eta borroka tresnarik nagusia hizkuntza izan zitekeen. Honela abertzale hauek indarkeria edo suzko armak erabili ordez, borroka kultur armaren bidez planteatu zuten eta horien artean armarik eraginkorrena hizkuntza zen. Suomierak esparru berriak irabazten zituen heinean, eskoletan, unibertsitatean sartzea, ofizialtasuna lortzea, eta abar, elite kontserbadore horren aurkako borrokan aurrerapauso berri bat zen. Horrek elitea hizkuntza aldaketa egitera bultzatu zuen eta hortik etorri zen suomieraren arrakasta.

e.- Elite sozialen portaera desberdina: Aurreko puntuan aipatu dugun arren, talde sozial hauen garrantzia ukazina da, batez gure lanaren bi lurralde horietan izan duten jarrera desberdinengatik, denboran zehar eta momenturik esanguratsuenetan. Esan beharreko lehenengo gauza, denboran zehar, Irlandaren kasuan elitea aldatu egin dela. Erreferentzia historikoak jasotzen hasten garenetik, XVII. mendera arte, gehien bat elitea, Irlandako gizarteko elite tradizionala izan, bere kulturari eta hizkuntzari erabat lotuta, XII. mendetik aurrera koblakari eta bardoei eman zien babesak ondo frogatzen duen bezala. Egia da, XII. mendetik aurrera, elite honi beste bat gehitu zitzaizkion, anglo-normandiarra, alegia. Baina lanean ikusi ahal izan dugunez, elite inbaditzaile honek Erdi Aroko azken mendeetan akulturizazio prozesu bat jasan zuen eta, ikuspegi kulturaletik

behintzat, gaelerari eta bere kulturari eman zien babesengatik, jatorrizkoarekin bat egin zuten. Dena den, XVI. mendetik aurrera eta britainiar monarkiaren politikaren ondorioz, bereizten hasi zen eta bide beretik joan zen irlandar jatorrizko elitearen parte bat.

Baina egoera honekin amaitu zutenak, XVI. mende amaierako eta XVII. mendean zehar jazotako gerrak eta bestelako gertaera historikoak. Epe horretan, Irlandako elite gaelikoa edo erbesteratu zen edo bestela erabat suntsituta gelditu zen. Onik atera ziren bakarrak britainiarren nagusitasuna eta baloreak onartu zituztenak izan ziren. Hain barruan sartu ziren egoera berrian ezen beren jatorrizko kulturatik erabat kanpo gelditu ziren, britainiarra inportatu eta gizarte osoan txertatu zuten. Honela, XIX. mendearen hasieran, elite bihurtu nahi zuten erdi mailako talde irlandar berri bat sortu zenean, britainiar baloreak erabat barneraturik zituen eta horrek jatorrizko kultura eta hizkuntzak baztertzeraz eta mespretxatzeraz eraman zuten. Mende amaieran eta XX. mendearen hasieran, independentzia prozesua gauzatzen ari zen unean, prozesu hori gidatzen zutenak maila teorikoan kultur gaelikoaren aldeko apustuan egiten bazuten ere, garatu zuten politika oso inkoherentea izango zen eta horrek eragingo du aztertzen ari garen porrota.

Finlandiaren kasuan, ordea, hasieratik elitea suediar atzerritarrek osatuko dute eta egoera hori XX. mendearen amaiera arte. Elite horrek ez du berez inoiz amore emango eta beti argi izango du suediarrek direla eta suediera dela beraien hizkuntza eta suedieraz bere kultura. Beren nagusitasun horrek, gainera, finlandiarren elite txikia erakarri zuen eta horrek elebidun bihurtu zituen, kasu batzuetan hizkuntza ordezkapena ere gertatu zelarik.

Baina Finlandiaren kasuan elitearen jokaera bitxienean elitearen artetik sortu zirela egoera hau guztiz aldatuko zutenak. Suomieraren aldeko lehen aldarrikapenak talde sozial honen artetik sortu ziren eta hain modu kontzientean ezen suomieraren aldeko apustua erabatekoa izan zen: izen-abizenak aldatu egin zituzten, baita etxeko hizkuntza ere, beraien seme-alabei lehen hizkuntzatzat suomiera irakatsiz; horretaz aparte, suomiera borroka politikaren muina eta oinarria bihurtu zuten. Beste modu batean izanda, suedierazko eliteko kideak izan ziren hizkuntza aldaketa hasi eta garatu zutenak, prozesu horretan finlandiarrak erakarritik eta protagonista bihurtuz. Hain aldaketa handia izan zen, ezen independentzia gauzatu zenean, beraien ere lekua utzi zioten XIX. mende

amaieran gertatutako aldaketa sozio-ekonomikoen ondorioz sortu zen elite sozial berriari.

f.- Faktore ekonomikoen eragina: Historian zehar lurralde biak beraien menperatzailearekiko izan dituzten harreman ekonomikoak metropoli eta kolonien artean daudenen antzekoak izan dira. Finlandia zein Irlanda oso lurralde txiroak ziren bertan dauden ezaugarri naturalen ondorioz. Menperatzaileak, Suedia eta Ingalaterra, batez ere XVI. mendetik aurrera, oso garapen ekonomiko handia lortu zuten.

Desberdintasuna XIX. mendean etorri zen. Mende honen hasieran Finlandiak jabe aldaketa izan zuen, Errusiaren menpeko bihurtuz. Hau egoera berriz zen. Errusia bera Finlandia baino atzeratuago zegoen, baina oso merkatu handia eskaintzen zuen. Finlandiarrek egoeraz baliatzen eta horrek aukera eman zien XIX. mendean zehar industrializazio prozesuari heltzeko eta horrek eragin zituen aldaketak izango dira XX. mendearen hasiera bere independentzia politikoa eta garapena ahalbideratuko dituen.

Oso bestelako izan zen egoera Irlandan. XVIII. mende arteko desberdintasun ekonomikoa Ingalaterrarekiko, ikaragarri areagotu zen azken honek industrializazio prozesu azkarrari heldu zionean. Handik aurrera, metropolia-kolonia harremanak areagotu egin ziren. Ingalaterra modernitatearen eredu eta erreferente nagusi bihurtu zen irlandarrentzat, baita arlo kulturean ere: modernitatea ingelesez mintzo zen, ez gaeleraz, beraz aukera argia zen.

Harreman kolonialista hauek Irlandaren arazo ekonomiko eta sozialak areagotu egin zituzten eta bere punturik gorenera mende erdiko Gosete Handiarekin heldu zen. Irlandan, beste edozein gizarte aurreindustrialetan bezala, baita Finlandian ere, goseteak gertaera “arruntak” izan ziren. Baina mendearen erdialdeko gosete honek esanahi berezia izan zuen. Alde batetik, britainiar gobernuaren politikak arazoa larriagotu egin zuen, gosetearen erdian, Irlandak Ingalaterrari janaria esportatzen zion!!! Baina, bestetik, gosete honek irlandar gizartearen, batez ere gaeleraz mintzo zenaren desegituraketa orokorra izan zen. Hildakoei migratu behar izan zituztenak gehitu behar zitzaizkien. Handik aurrera, gaeleraz mintzo zen gizarteak bere lurraldean bere burua gutxitua ikusi zuen eta egoera horretatik ateratzeko bere hizkuntza eta kultura utzi eta ingelesa hartzerantz behartua sentitu zen. Goseteak kalte demografiko itzelak egin bazituen, arlo kulturean egin zituenak ez ziren leunagoak izan; izan ere, jendearen desagerpen fisikoak gaeleraz mintzo zen kulturaren desagerpen ia osoa ekarri zuen.

Hondamendi haren ondorioak, Irlandak XX. mendearen amaiera arte pairatu ditu. Irlandako gobernuak egoera honi aurre egin nahi izan badio ere, argi dago ez duela asmatu, gaelera bere onera ekartzeko behintzat.

g.- Gobernuen politiken eragina: Estatu biek independentzia lortu zuten bezain laster, beren lehentasunen artean, garrantzitsuenen artean, beren hizkuntzei dagokien lekua ematea izan zen. Finlandiaren kasuan, eta hizkuntza gatazkak ekiditearren, suomierari eta suedierari hizkuntza nazional izaera eman zitzaizen Konstituzioan eta egoera arautzeko gaur arte sortutako legedian. Bere hiztun kopurua kontuan harturik, suedierari, teorikoki zegokion baino egoera askoz hobea eman zitzaion. Baina beste aldetik, gobernuak suomierari bere lekua ematen jakin izan du eta horren ondorioz, gaur, suomieraren egoera erabat finkatuta dago eta atzerantz bere erabilera doana suediera da. Dena den, eta zenbaitzuen presioen aurrean, finlandiar gobernuak ez du aldatu suedieraren egoera eta ez du ematen hurrengo urteetan egingo duenik.

Irlandaren kasuan, bere politika porrotaren historia dela esan daiteke. Hasieratik, gaelerari, legearen arabera, lehentasun osoa eman bazaio ere, horrek ez du inolako eraginik izan bere erabileran, ezta gutxiago ere. Gaeleraren erabilera sustatzeko bi zutabe nagusiak irakaskuntza eta gaeleraren eremu berezien sorrera izan da. Bietan porrota nabarmena izan da. Gaelera eskola sisteman sartu zenetik ia mende bat joan denetik, oraindik ez da biztanleriaren erdiraino irizten hizkuntzaren gutxieneko ezagutza duen portzentajea. Askoz gutxiago bere eguneroko jardueran erabiltzen duena. Hezkuntza sistema batentzat porrot argiagorik aurkitzea ez litzateke erraza izango. Porrot horrek beste ondorio bat izan du: hizkuntza sustatzearen inguruan biztanleriaren parte baten aurkako jarrera. Oraindik oso zabaldua ez badago, bere eragina ez da txikia eta zenbait arrakasta lortzeko gauza izan da.

Gaeltachta izeneko lurraldeen sorrera, printzipioz, politika positiboa izan zitekeen. Baina politika hori gauzatzean, errealitateari muzin egin eta printzipio ideologikoei kasu gehiago egin zaie. Politika hori gauzatzean, ez da kontuan izan gaelera oraindik bizirik dagoen lurralde horiek Errepublikako txiroenak eta atzeratuenak direla. Horrek, alde batetik, biztanleriaren artean lehendik zuten aurreiritzia, gaelera atzerapenaren hizkuntza izatearena, alegia, indartu egin du, beraz zertarako ikasi eta erabili dagoeneko munduan zehar gehien erabiltzen den hizkuntzaren jabe izanik. Bestetik, txirotasun horrek bertako biztanle asko migratzera bultzatu du, Irlandako beste

eremuren batera, Britainia Handira, AEBetara, edo beste edozein lekutara. Honela, eremu horiek biztanleria galdu dute, hizkuntzaren erabilera oraindik ahulago utziz, hiztunak ingeles ozeanora bizitzera joaten ziren bitartean, non gaclera erabiltzea oso zaila den.

Gaur egun, gainera, eta azken urteetan Irlandak izan duen garapen ekonomikoa aprobetxatuz, *Gaeltacht* egoera ekonomikoa hobetzeko asmoz egin den politikak beste ondorio kaltegarri bat ekarri du. Garapen programetan lehentasuna eman zaionez, ingelesdun askok eremu horietara migratu dute, bertako hizkuntza ezagutu gabe eta ikasteko inolako asmorik barik, horrek hizkuntzaren erabilera oraindik gehiago ahulduz. Une honetan Eireko gobernu gaclerari laguntzeko sorgin-gurpil batean sartuta dagoela ematen du eta oso zaila izango zaio hortik irtetera.

h.- Ipar Irlandako egoera berezia: Azken hau izan daiteke bi hizkuntzen egoerak konparatuta desberdintasunik bitxiena. Independentzia lortzean, estatu independente berriak ez zuen lortu uharte osoa bereganatzea. Parte bat Erresuma Batuaren barruan geratu zen, Errepublikaren etsai politikoen menpe. Hauek, egoera politikoari bere gaitzespen osoa erakustearren, berarekin lotuta egon zitezkeen ezaugarri guztiei aurka egin zien, baita hizkuntzari ere. Errepublikazaleen artean, hizkuntza une hartan ez zen lehentasuna eta XX. mendean zehar gaclera poliki-poliki desagertuz joan zen, bera erabiltzen zuten azken hiztunak hiltzarekin batera. Bakarrik azken hamarkadetan berpiztu da interesa hizkuntzarekiko, batez ere, Bake Itunen ondoren.

Aurrerapausoak eman badira ere, nolabaiteko onarpen ofiziala, eskoletan sartzea, Errepublikarekin batera hizkuntza sustatzeko politika amankomuna garatzea; hirietan *Gaeltachta* bezalako eremuak sortzea eta garatzea, gaclerari bere atzerapen kutsu hori ezabatzen hasteko balio dezakeena, oraindik arazo larria du: komunitate protestante unionisten aurkako jarrera. Oso gutxi dira protestanteen artean, bere tradizio historikoa berreskuratzeko prest dagoen kopurua eta argi dago, bakerako ez ezik, gacleraren berreskurapenerako komunitate unionisten aldeko jarrera lortzea ezinbesteko baldintza dela, hori lortu ezean oso zaila izango da Ipar Irlandan benetako aurrerapausorik ematea.

5. ONDORIOAK.

Norabide kontrajarrietan mugitu diren bi hizkuntzen bilakaera azertu dugu idazlan honetan. Amankomuneko ezaugarriak izan badituzte ere, azkenean, hizkuntza bien egoera, gaur egun, oso desberdina da: suomierak bere egoera sendotu egin du, historikoki, bere “arerioa” izan duena, suediera, alegia, gero eta gutxiago erabiltzen da eta suomierak Finlandiako eguneroko bizitzan funtzio guztiak betetzen ditu. Agian, orain, “arerio” berri bat sortu zaio, ingelesa, hain zuzen ere, unibertsitatea bezalako esparruetan, baina horrek ez du suposatzen inolako arriskurik ez bere biziraupenean, ezta bere nagusitasun egoera horretan.

Ezin gauza bera esan gaieraren inguruan. Erdi Aroan distiratsu agertzen bazen ere, Aro Modernoaren etorrerak gaur egunera arte luzatu den etengabeko gainbehera

ekarri du. Hain gainbehera handia ezen, gaur egun hizkuntza mintzatu gisa, arriskuan dagoen. Eginiko ikerketek argi uzten dute milaka batzuk baino ez direla beren eguneroko bizitzan erabiltzen dutenak. Hurrengo hamarkadetan, egoera honi buelta ematen ez bazaio, gaierarenak egin du. Eskoletan irakatsiko da, hala izaten jarraitzen badu behintzat, erabilera sinboliko garrantzitsua izaten jarraituko du, irlandar nazionalitate ikur gisa, baina hizkuntza bere funtsezko balioan, komunikatzeko tresna, galduta egongo da.

Eginiko azterketa honetatik, ze ondorio atera daitezke? Asko dira eta garrantzitsuenak laburbiltzen saiatuko naiz.

1.- Hizkuntzen bilakaera ulertzeko mota askotako faktore izan behar ditugu kontuan: kulturalak, ekonomikoak, sozialak, demografikoak, politikoak, eta abar. Faktore horiek, gainera, oso modu desberdinean eragiten dute, besteekin duten harremanaren arabera. Erreformaren eragina lurralde bietan zabaldu zen, esate baterako, baina beste faktoreen eragina desberdina izanik, hizkuntzaren bilakaeran izan duen eragina oso desberdina izan da.

2.- Une edo aldi batean hizkuntza batek izan dezakeen egoerak ez du suposatzen handik aurrera egoera horretan, ez onerako ezta txarrerako ere, une horretako egoera sustatzen duten faktoreak aldatzen badira. Elite gaelikoaren galerak, ordura arte gaieraren gainbeheraren hasiera ekarri zuen; Finlandian, ordea, Industrializazio prozesuaren hasierak ekarri zuen eraldaketa sozio-ekonomikoak aukerak eman zizkion suomierari hizkuntza baztertua izatetik nagusi izatera pasatzeko, sortutako elite sozial berriak bere aldeko apustua egin zuenean.

3.- Elite sozialez ari garenean, azpimarratzekoa da elite sozial horiek duten garrantzia hizkuntza baten egoera eta bilakaera azaltzeko orduan. Elite sozialek hizkuntza baten alde eginez gero, hizkuntza horrek bizirauteko eta bere komunikazio funtzioak betetzeko tresnak izango ditu, lehiakideak lehiakide, latina, ingelesa edo suediera bera. Baina, arrazoiak arrazoi, eliteak hizkuntza aldaketa egiten badu, Irlandan gertatu zen bezala, epe ertainean edo luzean hizkuntza horren etorkizuna iluna izango da.

Elitearen erabakiaren garrantziaz jabetzeko, ezin dut azpimarratu gabe utzi, Finlandiako elite berriaren jarrera. Elite suedieraduna izanik ere, beraz hizkuntza nagusi

ziren, herri xehearen aldeko hautua egin zuten, nagusi zen hizkuntza utzi eta menpekoena guztiz bere egiteko. Zalantzarik gabe, kontzienteki hartutako erabaki horrek funtsezko garrantzia izan zuen suomierak nagusitasuna lortu ahal izateko.

4.- Hizkuntza baten garapenerako, gaur egun, oso garrantzitsua hizkuntza politika egokia egitea. Zentzu honetan Irlanda eta Finlandia paradigmaticoak izan daitezke. Egia da gaeleraren egoera, errepublikak independentzia lortu zuenerako, oso larria zela, baina handik aurrera gobernuek garatutako politika ez da, zehazki, oso egokia izan da. Errepublikako gobernuek gaelerari garrantzia handia eman diote, baina batez ere bere balio sinbolikoarengatik, irlandar nazionalitatearen oinarri nagusitzat hartuz, baina horrek ez du ekarri bere aldeko politika egokia. Gaelera eskolan sartu arren, horrek ez du, ia mende bat joan ondoren, biztanleria elebidun bihurtu. Irlandar gehienek ez dute hizkuntzaren gutxieneko ezagutza. Hor, zalantzarik gabe, kontuan hartu beharko da ze irakaskuntza mota erabili den. Beste aldetik, *Gaeltachta* izeneko eremuak sortzeak, gaeleraren aldekoa izan baino bere kalterako izan da. Planteamendu erromantikoetan oinarrituta, gobernuaren politika paradisu gaelikoa egiten saiatu da, bere biztanleriaren beharrei erantzun gabe. Eraitza emigrazioa eta hizkuntza prozesua areagotzea izan da. Gaur egun, ez da gaeleraz egiten ezta *Gaeltachta* eremuetan ere. Gainera, horrelako planteamendua egiteak eremu horietatik kanpo bizi den biztanleria ez da hizkuntzaren biziraupenean inplikaturik sentitu, azken finean horretarako dago gobernu eta, gainera, gaelera eremu atzeratuenean kontua baino ez da. Panorama ezin etsigarriagoa izan.

Finlandiako gobernuak, ordea, hizkuntza gatazkaren alde bortitza saihesten jakin du, suedieradunen eskubideak babestuz eta suomieraren aldeko politika eraginkorra burutuz. Hasiera puntua gaeleraren baino askoz hobea zela aitortu behar bada ere, ezin da ukatu, emaitzei begira, finlandiar gobernuek asmatu egin dutela.

5.- Amaitzeko, azken puntua, hizkuntza biziraupena ziurtatzeko ezinbestekoa da gizarte osoaren inplikazioa. Aurreko puntu batean, gizarteko elitearen garrantzia azpimarratu dugu, baina horrek ez du esan nahi beste maila sozialek garrantzirik ez dutenik. Finlandia eta Irlandaren kasuek oso ondo adierazten dute puntu hau. Finlandian gizarte osoak egin zuen suomieraren aldeko apustua eta horrek bere arrakasta ziurtatu du; Irlandaren kasuan, ordea, ez da horrelakorik gertatu. Maila teorikoan gaeleraren garrantzia oso gutxi baino zalantzan jarri ez badute ere, gizarteak XX. mendean zehar

bizkarra erakutsi dio gaelerari, Ipar Irlandaren kasuan, aurkako politika ere gauzatu da. 2010 urte honetan, honen guztiaren ondorioz, gaeleraren etorkizuna oso latz agertzen da; izan ere, gizarte bietan, Errepublikakoan zein Ipar Irlandakoan, gaeleraren aldeko politikaren inguruan gizartearen adostasunik ez dago, Errepublikan hizkuntzaren gaur egungo estatusaren aurkako ahotsak gero eta ozenagoak dira eta Ipar Irlandan komunitate unionistarentzat gaclera aldarrikapen politiko zehatz batzuekin loturik dago eta horrek hizkuntzatik eta bere benetako tradizioz ere urruntzen du.

Ez naiz igarlea eta etorkizunari begira nire igarkizunek duten balioa hutsaren hurrengokoak dira. Baina hizkuntza bien ibilbide historikoak aztertu ondoren, suomierarentzat etorkizun lasaia eta argia iragar daitekeen arren, ingelesaren “mehatxua” hortxe dago, gaclerarena, ordea, ezin latzagoa da. Epe laburrean goitik beherako aldaketarik ez badago, hurrengo bizpahiru hamarkadetan hizkuntza mintzatuaren estatusa galtzeko arrisku bizian dago.

6. IRUDIEN ETA MAPEN AURKIBIDEA

1. irudia: Biztanleriaren banaketa Finlandia hizkuntzaren arabera.	5. or.
2. irudia: Finlandiako udalerriak hizkuntzaren arabera	7. or.
3. irudia: Finlandiera Suedian	7. or.
4. irudia: <i>Kalevala</i>-ren itzulpen baten azala.	18. or.
5. irudia: Derrigorrezko suedieraren aurkako kanpainako logoa	21. or.
6. irudia: Irlandako lurraldeak eta konderriak.	23. or.
7. irudia: Galeradunen portzentajea Errepublikako konderri desberdinetan.	24. or.
8. irudia: Gaeltachteko gacleradunen bilakaera azken hiru erroldetan	25. or.

9. irudia: <i>Gaeltacht</i> eremuak Eireko Errepublikan	26. or.
10. irudia: Gaeleradunen portzentajea Ipar Irlandako konderrietan.	27. or.
11. irudia: <i>Ogham</i> idazkeraren alfabetoa	28. or.
12. irudia: Irlanda XIII. mendearen amaieran	31. or.
13. irudia: Irlanda 1450ean	31. or.
14. irudia: XVI. eta XVII. mendeetako kolonizazioak Irlandan	35. or.
15. irudia: Gosete Handiaren ondorio demografikoen diagrama.	43. or.
16. irudia: Gosete Handiaren ondorio demografikoen mapa.	43. or.
17. irudia: Gaeleraren hedapenaren mapa 1871ean	45. or.
18. irudia: Liga Gaelikoaren iragarki elebiduna	46. or.
19. irudia: <i>Gaeltacht</i> eremuak 1926ko Batzordeak eginiko proposamenaren arabera	49. or.
20. irudia: <i>Gaeltacht</i> eremuak 1956ko Batzordeak eginiko proposamenaren arabera	49. or.
21. irudia: 2007an argitaratutako txostenaren arabera, <i>Gaeltacht</i> eremuen barruan A multzoan sailkatu beharko eremuak	50. or.
22. irudia: 2001eko erroldaren arabera, biztanleriaren heren batek gaeleraz hitz egin dezakeen Ipar Irlandako mapa.	52. or.

7. BIBLIOGRAFIA.

Zerrenda honetan idazlanean zehar azaldutako aipamen bibliografikoez gain, niri lagungarri izan zaizkidan beste aipamen batzuk ere agertzen dira, irakurlearentzat ere lagungarri izan dakizkiokeelakoan.

BIBLIOGRAFIA HISTORIKO OROKORRA:

BENNASSAR, M. B. eta beste batzuk (1980): *Historia Moderna*. Akal editor. Madril.

DUROSELLE, Jean P (1981): *Europa de 1815 a nuestros días. Vida política y relaciones internacionales*. Labor. Bartzelona.

MARTÍNEZ CARRERAS, José U. (1996): *Introducción a la Historia Contemporánea. 1770-1918. La Era de las Revoluciones*. Istmo. Madrid.

RIU, Manuel (1979): *Lecciones de Historia Medieval*. Teide, Barcelona.

TENENTI, Alberto: *La Edad Moderna. Siglos XVI-XVIII*. Crítica, Barcelona.

Suomieraren inguruan:

ALAPURO, Risto (2007): *Nineteenth Century Nationalism in Finland: A Comparative Perspective*. Scandinavian Political Studies, 2, Issue 1. Helsinki Unibertsitatea. 19-29. <http://dx.doi.org/10.1111/j.1467-9477.1979.tb00203.x>.

ALLARDT, Erik (1985): Bilingualism in Finland: The Position of Swedish as a Minority Language. In: *Language Policy and national unity*. Edited by BEER, William R. and JACOB, James E.. ROWAN and ALLANHELD Publishers, Totowa (New Jersey).

ALLARDT, Erik eta MIEMOIS, Johan (1981) : *Roots Both in the Center and the Periphery: The Swedish Speaking Population in Finland*. In *The Swedish-Speaking Minority in Finland*. Ed. By ALLARDT, E. eta MIEMOIS, J.

<http://www.country-data.com/cgi-bin/query/r-4605.html>.

Biografiakeskus. 100 Faces from Finland – a Biographical Kaleidoscope

<http://www.kansallisbiografia.fi/english/?id=2599>.

Finland: A Country Study. Washington: GPO for the Library of Congress, 1988. Eric Solsten and Sandra W. Meditz, editors.

<http://countrystudies.us/finland/5.htm>.

<http://countrystudies.us/finland/6.htm>.

<http://countrystudies.us/finland/7.htm>.

<http://countrystudies.us/finland/8.htm>.

<http://countrystudies.us/finland/10.htm>.

<http://www.genealogia.fi/emi/art/article398e.htm>.

Finland's language strife.

<http://www.economicexpert.com/a/Finland:s:language:strife.html>.

HOBBSAWM, Eric J.(1990): *Nations and Nationalism Since 1780*. Cambridge University Press. Cambridge.

HENTILÄ, Seppo (2002): *Une affaire trop sérieuse ?* À propos de la signification particulière du sport pour les Finlandais. Cahiers d'histoire. Revue d'histoire critique Numéro 88 Sport et propagande en Europe (XIXe-XXe siècles).

<http://chrhc.revues.org/index1588.html>.

HROCH, Miroslav (1968): *Die Vorkämpfer der nationalen Bewegung bei den kleinen Völkern Europas*. Acta Universitatis Carolinae, Philosophica et Historica, Monographia XXIV, Praha.

La montée du nationalisme finnois. Hachette Livre et/ou Hachette Multimédia

http://www.memo.fr/Article.asp?ID=PAY_FIN_003.

LATHINEN, Mikko (2006): *Finnish 19th century nationalism as a case of revolution–restoration or as a ‘popular-democratic’ and an ‘authoritarian-conservative’ movement – preliminary remarks* In Historical Materialism Annual Conference, London.

<http://mercury.soas.ac.uk/hm/pdf/2006confpapers/papers/Lahtinen.pdf>.

NAIM, Tom (1977): *The Break-Up of Britain*. London: NLB.

Svenska Finlands folkting: *Swedish in Finland*. www.folktinget.fi.

OLA, Kristian: *Politicisation of 19th Century Finnish Society*.

http://www.allempires.com/article/index.php?q=19th_century_finnish.

Report of the Government on the application of the language legislation 2006.

<http://www.om.fi/20802.htm>.

Report of the Government on the application of language legislation 2009

<http://www.om.fi/20802.htm>.

SAARI, John: *Finnish Nationalism Justifying Independence*.

<http://www.genealogia.fi/emi/art/article398e.htm>.

Swedish in Finland. La Finlande suédophone. Ed. by Svenska Finlands folkting (Finlandiako suediarren batzarrak argitaratua). www.folktinget.fi.

UNGER, Jess B. (1986): *Language conflict, nationalism, and ethnic separatism in*

Finland. In *Working Papers in educational linguistics*. Edited by Jess Unger & Cher

Micheau Volume 2, Number 2. <http://www.wpel.net/v2/v2n2Unger.pdf>.

Gaeleraren inguruan:

ACHT NA dTEANGACHA OIFIGIÚLA 2003/ OFFICIAL LANGUAGES ACT 2003
<http://www.achtanna.ie/ga.act.2003.0032.1.html>.

BARBOUR, Stephen (2000): *Britain and Ireland: The Varying Significance of Language for Nationalism*. In *Language and Nationalism in Europe*. Ed. by: Stephen Barbour and Cathie Carmichael. Oxford University Press, 2000. 18-43.

BUTTNER, Neil (2004): *Decline of Irish Language*. Thomson Gale.
http://www.novelguide.com/a/discover/eich_01/eich_01_00222.html.

Coimisiún na Gaeltachta 2002 - Report.
<http://www.pobail.ie/en/AnGhaeltacht/ReportoftheGaeltachtCommission/file,2090,en.pdf>.

COLLINS, Jude (2003): *Unionist fear of Irish must be overcome*. In *Irish News*,
 otsailak 3
http://www.nuzhound.com/articles/irish_news/arts2003/feb6_fear_of_irish_JCollins.php.

CROWLEY, Tony (2005): *The Politics of Language in Ireland. 1537-2004*. Oxford University Press.

Final Principal Demographic Results 2006 (2007). Ed by Stationery Office, Dublin.
<http://www.cso.ie/census/documents/Amended%20Final%20Principal%20Demographic%20Results%202006.pdf>.

Foras na Gaeilge
http://www.gaeilge.ie/Foras_na_Gaeilge/About_Foras_na_Gaeilge.asp.

JOYCE, P. W. (1909): *The Statute of Kilkenny (1318-1377*. From *A Concise History of Ireland*). <http://www.libraryireland.com/JoyceHistory/Kilkenny.php>.

HARTLEY, Tom (1995): Book Review: *Hidden Ulster, Protestants and the Irish Language*. Book Review: *Hidden Ulster, Protestants and the Irish Language* By Padraig O Snodaigh. <http://www.hartford-hwp.com/archives/61/297.html>.

MAC GIOLLA CHRÍOST, Diormait (2005): *The Irish Language in Ireland. From Góidel to Globalisation*. Routledge, London.

MOYANO, Julene : *Gaeleraren bilakaera. Irlandako Errepublikako eta Ipar Irlandako Gobernuen hizkuntza politika* (Argitaratu gabea).

Northern Ireland Census of Population. 2001. 5. Irish Language.
http://www.nisranew.nisra.gov.uk/census/pdf/standard_tables_section5.pdf.

McCOY, Gordon (1997): *Protestant Learners of Irish in Northern Ireland*. In *The Irish Language in NORTHERN IRELAND* Ed. by Aodán Mac Póilin. Ultach Trust.
<http://cain.ulst.ac.uk/issues/language/mccoy97.htm#learn>.

McCOY, Gordon (2009): *A History of Protestant Irish Speakers*. <http://www.ultach.org>.

McMAHON, Timothy G. (2004): *The Gaelic League*. Thomas Gale.
http://www.novelguide.com/a/discover/eich_01/eich_01_00170.html.

Ó FLATHARTA, Peadar *et alii* (2009): *20-year strategy for the Irish Language 2010-2030*. Ed. by Department of Community, Rural and Gaeltacht Affairs.
<http://www.pobail.ie/en/IrishLanguage/file,10104,en.pdf>

Ó GIOLLAGÁIN, Conchúr eta MaC DONNACHA, Seosamh *et alii* (2007) :
Comprehensive Linguistic Study of the use on Irish in the Gaeltacht. Principal findings and recommendations. Ed by The Department of Community, Rural and Gaeltacht Affairs.
<http://www.pobail.ie/en/AnGhaeltacht/LinguisticStudyoftheGaeltacht/file,8677,en.pdf>.

O'REILLY, Camille (1997): *Nationalists and the Irish Language in Northern Ireland: Competing Perspectives*. In *The Irish Language in NORTHERN IRELAND*. Ed. by Aodán Mac Póilin. Ultach Trust.
<http://cain.ulst.ac.uk/issues/language/oreilly97.htm#national>.

Ó RIAGÁIN, Pádraig (2004) : *Irish Language since 1922*. Thomson Gale.
http://www.novelguide.com/a/discover/eich_01/eich_01_00223.html.

Ó TUATHAIG, Gearóid (2005): *Language, ideology and national identity*. In *The Cambridge Companion To Modern Irish Culture*. Ed. by Joe Clearly and Claire Connolly. Cambridge University Press. 42-58.

PRITCHARD, Rosalind M.O. (2004): *Protestants and the Irish Language: Historical Heritage and Current Attitudes in Northern Ireland*. This is a pre-publication copy of a paper to be published in the 'Journal of Multilingual and Multicultural Development' (volume 25). <http://www.cain.ulst.ac.uk/issues/language/pritchard04.htm>.

REFORM MOVEMENT (2003): *Why Gaelic Shouldn't Be Compulsary In Schools In Ireland*.
http://www.reform.org/TheReformMovement_files/article_files/articles/irish.htm.

RUDDOCK, Alan (2005): *Abandon Irish as an official language and watch it flourish*. *The Sunday Times*, Martxoak 20.
<http://www.timesonline.co.uk/tol/news/world/ireland/article432406.ece>.

Stratéis 20 bliain don Ghaeilge 2010-2030-Dréacht-20 Year Strategy for the Irish Language (Draft) (2009). Ed by The Department of Community, Rural and Gaeltacht Affairs. <http://www.pobail.ie/en/IrishLanguage>.

